

Bizikidetza eta bakearen aldeko heziketa Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Bizikidetza eta bakearen aldeko heziketa EAEko ikastetxeetan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

Bizikidetza eta bakearen aldeko heziketa EAEko ikastetxeetan. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

p. ; cm

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: «Educación para la convivencia y la paz en los centros escolares de la CAPV»

ISBN 84-457-2206-9

1. Educación para la paz. I. Euskadi. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social. II. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. III. Euskadi. Departamento de Cultura. IV. Título (castellano). 37.035

Erakunde kolaboratzaileak:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritza.

Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzaren izenean, Gazteriaren Euskal Batzordea.

Erakundeak: Elkarri, Bakearen Aldeko Koordinakundea, Gernika Gogoratuz eta UNESCO Etxea.

Argitaraldia: 1.a, 2004ko abendua

Ale-kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Composiciones RALI, S. A.
Particular de Costa, 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Ctra. Lutzana-Asua, 24-A - Erandio Goikoa (BIZKAIA)

ISBN: 84-457-2206-9

Lege-gordailua: BI-3100/04

Aurkezpena

XXI. mendeko hezkuntzari buruzko txosten batean UNESCOk gomendatzen duenez, elkarbizitzaren ikastea da hezkuntzaren zutabe nagusietako bat. Komunikazio-bide berriak irekitzen eta pertsona, herri eta kulturen arteko mugak ezabatzen ari diren gizarte berri honetan, bakean elkarbizitzen ikastea guztien eskaria da, eta hori hala da, bereziki, Euskal Herrian, arrazoi eta indar handiagoarekin.

Azken hamarkadan hainbat ahalegin egin dituzte erakundeek Bakerako Heziketaren inguruan oinarri komunak sortzeko. Hala, 1998an, *bakerako hezten Euskal Herrian. Euskal Herrian bakerako heziketa sustatu eta garatzeko oinarriak*, lana jorratu zuten Lehendakaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskadin bakerako heziketan lan egiten duten gizarte-erakundeekin batera. Taldeek egin zuten proposamen nagusietako bat *egoeraren mapa* egitearena zen. Abiapuntua bakerako heziketaren egoeraren argazki finko bat edukitzea zen, hortik aurrera proposamenak diseinatu, eskuartze-motak definitu eta ase beharreko premiak zehazteko.

2000. urtetik aurrera teknikari eta adituen lantalde bat osatu zen *egoeraren mapa* egiteko. Mapa horrek Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza arautu zein arautu gabekoan, elkarbizitza eta bakerako heziketak zuen egoera deskribatu behar zuen: errealitatea, premiak eta proposamenak. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Baliabideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren sustapenarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Kultura Saileko Gazteria eta Komunitate Ekintzarako Zuzendaritzaren laguntzarekin.

Lan horren emaitza elkarbizitza eta bakerako hezkuntzak Autonomia Erkidegoko eskola-arloan eta arautu gabeko hezkuntzan duen egoerari buruz orain argitaratu diren bi ikerketa-lan dira, eta horien edukia da Jaurlaritzak aurrera eraman nahi duen bakerako hezkuntzari buruzko politikak garatzeko oinarria.

Hezkuntza-arloko beharrian bat plazaratzen denean, lehenik eta behin, ikastetxea datorkigu gogora; izan ere, pertsona guztiak joan daitezke bertara, eta bertan pasatzen dute bizitzako zati garrantzitsu bat, garapen pertsonalerako erabakigarrienak diren faseetan bereziki. Ikastetxeetan familia eta gizarte maila desberdinetatik datozen pertsonak bizi dira; giro positibo eta eraikitzaile batean elkarbizitzen ikasten dute; eta oinarritzako kultur irakaspenak jasotzen dituzte, erreferente komuna osatzen dutenak. Besteak beste, horregatik onartzen dute hezkuntza-komunitateko kolektiboek zeregin garrantzitsua eta beharrezkoa dutela –ez, ordea, eksklusiboa– elkarbizitza eta bakerako heziketan.

Horren ildotik, aisialdiko taldeek egiteko bereziki garrantzitsua dute, borondatezkoak diren aldeetik. Horietan heziketa-lan bideratua egiten da, bizipen-metodologia dinamiko batekin, etengabeko elkarbizitza eta lankidetzaren testuinguru baten barruan.

Hori dela eta, txostenak bi dira. Horietako batek eskola edo hezkuntza arautuaren esparrua hartzen du, eta besteak eskolaz kanpokoa, edo arautu gabeko irakaskuntzarena.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du, erabat, gai horren inguruan dagokion ardura. Gure ustez, erakundeek ekidinezinezko betebeharra da aitzindaria izatea gizartearentzat, bake eta elkarbizitzako benetako kultura garatzeko lanean. Horregatik, behean sinatzen dugun hiru sailburuok, Jaurlaritza osoaren izenean, bakerako heziketa irmotasunez sustatzeko ardura hartzen dugu gure gain, aipatutako bide horretan aurrera egiteko ezinbesteko tresna delako.

Jakitun gaude lan hori etengabea dela, eta ez garela hutsetik hasiko. Izan ere, hainbat ekimenen bitartez hasitako lan garrantzitsua dago eginda, eta lan horietatik ikasi behar da, baliozko esperientziak diren aldetik, nahiz eta gaiak lan trinkoago eta sendoagoaren beharra duen.

Gure zereginaren xedea, bada, dauden ekimenak koordinatu eta dinamizatzea da, gaur arte garatu diren programa guztien koherentzia bermatzeko asmoz. Baina, batez ere, etorkizunean hartuko diren lan-ildo berrietan jarriko ditugu indarrak.

Finean, lerro hauen bitartez ikerketa-lan horiek aurkeztu nahi ditugu, bake eta elkarbizitzarako heziketak lehen mailako helburu politikoaren kategoria izan dezan Jaurlaritzarentzat, euskal gizartearentzat etorkizun orekatu eta gizalegezkoagoa lortze aldera. Ibilbide horri ekiteko, ezinbestekoa da, noski, erakunde publikoen partaidetza aktiboa, baita herritarrena ere, familiaren, aisialdiko taldeen eta komunikabideen bitartez, besteak beste. Indar horiek guztiak helburu berari begira jartzeak xede horretan aurrera egiteko aukera emango digu. Eta hori da Jaurlaritzak hartu duen norabidea.

JOSEBA AZKARRAGA

Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantzaren Sailburua

ANJELES IZTUETA

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailburua

MIREN AZKARATE

Kultura Sailburua

Aurkibidea

Sarrera	9
---------------	---

LEHENENGO ZATIA TESTUINGURU OROKORRA

1. Bakerako hezkuntzaren historia.....	13
2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren oinarritzko kontzeptu batzuk	15
2.1. Bake positiboaren kontzeptua	15
2.2. Gatazkaren ahalmen sortzailearen ikuspegia	17
3. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza	19
3.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren definizioa eta paradigmak.....	19
3.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren helburuak eta alorrak	20
3.3. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza, hezkuntza arautuan	22
4. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoera.....	27
4.1. Nazioartean	27
4.2. Estatuan.....	28
4.3. Euskadin.....	31

BIGARREN ZATIA BIZIKIDETZA ETA BAKERAKO HEZKUNTZARI BURUZKO AZTERKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN

5. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako bizikidetza	37
5.1. EAEko ikastetxeetako eskola giroa.....	37
5.2. Portaera desegokiak ikastetxeko bizikidetzan	49
5.3. Ikastetxeetako bizikidetzaren sustapena	59
5.4. EAEko ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ondorioak	69
6. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan	73
6.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren zentzua.....	73
6.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beharra ikastetxeetan	80
6.3. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza, ikastetxe proiektu gisa	83

6.4.	Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako berariazko programak.....	86
6.5.	Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren arduradunak ikastetxeetan	91
6.6.	EAEko ikastetxeetako bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko ondorioak	98
7.	Ikastetxeak euskal gatazka dela eta	101
7.1.	Hezkuntza komunitatean euskal gatazkarekin lotzen diren ideiak.....	101
7.2.	Ikastetxeko bizikidetzan euskal gatazkak duen eragina.....	103
7.3.	Ikastetxeen jokaera euskal gatazka dela eta	106
7.4.	Hezkuntza erakundeen jokaera, euskal gatazka dela eta	112
7.5.	Euskal gatazka dela-eta ikastetxeek duten jokaerari buruzko ondorioak	114
8.	Proposamenak.....	117
8.1.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren buru izatea.....	117
8.2.	Bizikidetza eta bakerako hezkuntza indartzeko eta eraginkor bihurtzeko, beste sail eta erakunde batzuen kolaborazioa behar da	119
8.3.	Ikastetxeei dagokie bizikidetza eta bakerako hezkuntza bultzatzea eta garatzea.....	120
8.4.	Familiak oinarritzko eragile dira bizikidetza eta bakerako hezkuntzan.....	122
9.	Metodologia	123
9.1.	Galdekizunak.....	123
9.2.	Lagina.....	125
9.3.	Datu estatistikoaren azterketa	139
9.4.	Eztabaida taldeak	140
9.5.	Txostenaren Lanketa.....	142

ERANSKINAK

I. eranskina:	Bibliografia eta beste informazio iturri batzuk	147
II. eranskina:	Jarduera egokiak, hezkuntza arautuan	159
III. eranskina:	Azterketako datuen sintesi-etaulak / Anexo III: Cuadros-síntesis de los datos del estudio....	175
Taulan eta grafikoan aurkibidea		257

Sarrera

Bake prozesuen gizatiartze plana abian jartzeko proiektu berriztatzailearen esparruaren baitan, «egoera mapa» bat egiteko ideia sortu zen, Unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntzan bizikidetza eta bakerako hezkuntza zein egoeratan dagoen ezagutzeko (datuak, beharrak eta gizarte itxaropenak) eta horri buruzko proposamenak egiteko. Gizatiartze plan hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren barneko Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak sustatu zuen, 1999. urtean, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren babesarekin du. Azken horrek Kultura Saileko Euskadiko Gazteria Sailaren bidez babesten du plana.

Gizatiartze plan horren sorrera eragin zuten baldintzak, ordea, aldatu egin ziren, eta, ondorioz, haren garapen orokorra gainbehera etorri zen. Baina ekimen honek nahikoa indar eta oinarri zuen berez, aurrera egiten jarraitu ahal izateko. Horrenbestez, helburu nagusi hauek onartu ziren:

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alorrean, Euskadiko hezkuntza arautuaren eta arautu gabearen egungo egoera eta beharrak ezagutzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumean bizikidetza eta bakerako hezkuntza sartzeko estrategia eta ekintza bateratuak sustatzea.
- Helburu hori lortzeko egun dauden material hezigarriak biltzea eta banatzea.
- Estatuko eta nazioarteko laguntza izango duen aditu talde bat antolatzea eta sustatzea, Euskadin bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alorrean egoera mapa bat eta ekintza plan orokor bat egiteko.
- Hori guztia abian jartzeko zer prozesuri jarraitu beharko litzaiokeen argitzeko erabaki eta gomendio txosten bat egitea.
- EAEn bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alorrean eskura dauden materialen datu basea sortzea.

Aipatutako helburu eta jardueretarako beharrezko diren ekimenak abian jartzeko, aditu talde bat osatu zen.

Talde horrek, esparru teorikoa eta ikerketa datu fidagarriak bateratuz, egoera mapa bat egin du, eta horrek hainbat erabaki eta orientazio lantzeko aukera ematen du, bizikidetza eta bakerako hezkuntza ahalik eta ongien jorratzeko eta gizarte sektore desberdinen ahalik eta partaidetza handiena sustatzeko.

Lan hori bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alorrean parte hartzen duten taldeetako zenbait lagunen eta arestian aipatutako hiru sailen artean egin dute:

- Elkarri: Susana Fernández.
- Bakearen Aldeko Koordinakundea: Susana Harillo.
- Gernika Gogoratuz: Mireia Uranga.
- Unesco Etxea: Mónica Vázquez.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila da, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren bidez eta Bizikidetzarako Hezkuntzaren programaren baitan, egitasmoa zuzentzeko (Nélida Zaitegi) eta azkeneko txostena idazteko ardura duena (Luis Otano).
- Kultura Saila –bertako Euskadiko Gazteria Saila– geroago sartu da lan talde horretan, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bidez (Gorka Ruiz).
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bidez hartu du parte, azkeneko hilabeteetan (Joseba Basagoiti).
- Datlan, Ikerketa Aplikatuak enpresak egin ditu inkestak, talde eztabaidak nahiz ikerketaren estatistikak. Aldi berean, laguntza teknikoa eman du lanaren faseen arabera galdera sortak antolatze eta dokumentua maketatze.

Une jakin batzuetan, Estatuko nahiz nazioarteko adituen aholkularitza ere jaso da (Xesús Jares eta Alan Smith-ena, hurrenez hurren).

Testuinguru orokorra

L E H E N E N G O Z A T I A

Bakerako hezkuntzaren historia



Bakerako hezkuntzari buruzko gaur egungo kontzeptuak eta jarduerak oso ibilbide luzearen ondorio dira. Ez dago horren hastapenari buruzko adostasunik. Zenbait egilek diote J. A. Comenius-ek egin zituela bakerako hezkuntzari buruzko lehen hausnarketak. Egile horrek hiru hipotesi hartu zituen abiapuntutzat:

- Pertsonen izaeran eta harmonian fedea izatea.
- Utopismo pedagogiko bat eta hezkuntza egitasmo orokor bat behar izatea, gizakiek bakea lortzeko.
- Unibertsaltasunean erabateko fedea izatea.

XIX. mendearen hasieran, filosofoek eta hezitzaile erreformistek jarri zituzten abian lehenengo programak.

XX. mendearen hasieran, Lehen Mundu Gerrak nabarmenki eragindako testuinguruan, *Eskola Berriaren mugimenduak* zenbait premia zeudela nabarmendu zuen: jarduera pedagogiko tradizionalak berrikus-teko beharra, eta nazioarteko ulermenerako lan egiteko beharra, horren bidez, estatuek beren arteko tirabi-rak eta areriotasunak gainditu ahal izateko. Askoz ere ikuspegi malguagoak proposatu zituzten ikastetxeen nahiz ikasgelen antolaketarako, ikasleen esperientzia aktiboa hartu baitzuten lanaren oinarritzat.

Gerra hasi zenean, espiritu militarista indartu egin zen, eta bakerako hezitzaileak jazarriak izan ziren. Oztopo horiek gainditzeko, bakeari buruz esplizituki hitz egiten zuten programak garatu beharrean, indarkeria murriztearekin edo horri buruzko beste alderdi batzuekin lotutako programak lantzen hasi ziren. Liskarra amaitu bezain laster, mugimendu hezitzaile bizi bat sortu zen. Mugimendu horren ezaugarri garrantzitsuenak gerra ekiditea eta nazioarteari begiratzea izan ziren. Mugimendu horren bizitasu-na, baina, hogeita hamarreko hamarkadan itzali zen; hain zuzen ere, faxismoaren eta nazismoaren ideia totalitarioak izugarri indartu zirenean.

Mugimendu hezitzaile horrek *Bigarren Mundu Gerraren ondoren* berriz ere garrantzia hartu zuen. Nazioarteko ulermena sustatu nahi zen, eta, horretarako, kultura arteko gaietan eta nazioarteko lankide-tzako gaietan prestakuntza ematea erabaki zen. Gainera, zenbait herrialdeetako eskolen arteko harremanak sustatzen hasi ziren. Nazio Batuen Erakundea sortzearekin, bi bide horiek indarra hartu zuten, eta, zehaz-kiago esanda, *UNESCO*ren Eskola Elkartuen proiektuarekin; izan ere, proiektu horrek giza eskubideen aldeko eta desarmerako hezkuntza zabaldu zuen nazioarteko ulermenerako.

Hirugarren mugarrria *60ko hamarkadan* sortu zen; hain zuzen ere, *bakearen aldeko ikerketa* sortu ze-nean, hezkuntza, ikerketa eta ekintza bateratzeko diziplina zientifiko moduan. Bakearen aldeko ikerke-

taren mugimendua, AEBetan sortu arren, Europan garatu zen batez ere. Izan ere, Europan egin ziren proposamen eta ikerketa nagusiak, eta bertan bizi ziren mugimendu horretan eragin handia izan zuten egileak; bereziki, Suedian eta Norvegian. 1959an, Oslon Ikerketa Sozialerako Institutua fundatu zen, Johan Galtung-en zuzendaritzapean gatazkak ikertzeko ikerketa sail bat; gaur egun, Johan Galtung oinarritzko erreferentzia bihurtu da Bakearen aldeko Ikerketari buruz aritzean. 1964an, IPRA (Bakearen aldeko ikerketarako nazioarteko erakundea) sortu zen. Bertan, Johan Galtung-ek egiturazko indarkeriari buruz aipatutako ideiak jaso ziren, bai eta P. Freire-ren proposamenak ere (horietan, herrien garapenarekin eta gizarte desberdintasunak gainditzeko behararekin lotzen zuen hezkuntza). Hasieratik bertatik agertu zen alor horretan egindako edozein ekarpen teorikok aldaketa edo eraldaketa soziala egiteko balio behar zuela. Sorreratik azpimarratu zen garrantzi handikoa zela ikerketaren, ekintzaren eta bakerako hezkuntzaren artean batasuna eta elkarrekintza izatea.

Gaur egungo bakerako hezkuntzaren ikusmoldean eragina izan duen beste alor bat *indarkeriarik ezaren ondarea* da. Gandhiren proposamen eta ekintza sozialak nahiz pedagogikoak kontuan hartuta, hezkuntza korrante jakin bat sortu zen. Korrante horren lana Gandhiren printzipio hauetan oinarritzen zen: egitasunean eta indarkeriarik gabeko ekintzan, baita autonomia pertsonalaren garapenean eta bidegabeko egiturei aurre egiteko desobedientzia jarrerak sustatzean ere. Hezkuntzaren arloan, indarkeriarik ezaren printzipioetan oinarritutako hezkuntza esperientziak jarri ziren abian; esaterako, Barbianako Eskola. Ikasleek, «Irakasle batentzako eskutitza» lanaren bidez, autoritarismoa, konformismoa eta hezkuntza sistema tradizionalaren segregazionismoa kritikatu zituzten.

70eko hamarkadan, armamentu lehia eta arma nuklearrak garatzen ari ziren garaian, garrantzi handia eman zitzaion gai hauekin lotutako alderdiak lantzeari: arma industria, *arrisku nuklearra* eta munduaren bipolaritasuna (bi bloke militar elkarren aurka aurrez aurre). Gai horiek guztiak lantzeko proposamenak eta materialak izugarri ugartu ziren, eta, era berean, lan egiteko metodologia aktiboagoak proposatu ziren; betiere, bakerako hezkuntzaren alorrean ikerketa-ekintza-partaidetza sustatzen zituztenak.

Bakerako mugimenduaren eragin politikoa galduz joan zen heinean, *80ko hamarkadaren* bukaera aldera, Bakerako Hezkuntzaren taldearen ikuspegia erabat aldatu zen; hots, ikuspegi kognitiboa izatetik ikuspegi erabat praktikoa izatera igaro ziren, eta *hurbileko elkartearen barneko bizikidetzak* lantzeari hasi ziren garrantzia ematen (ikasgela, ikastetxea, auzoa, etab.), bertan landutako jarrera eta balioak gizartearen nahiz nazioarteko eremuetan ere baliagarriak izan zitezen. Ikasleak bake kultura eraikitzen parte hartzeko prestatzea zen helburua: bake kultura beren komunitatetik bertatik eta modu aktiboan eta arduratsuan eraiki zezaten, alegia; azken finean, esperientzia esanguratsuak lantzea, jarreretan eragiteko eta esperientzia horiek eskolaren esparrutik beste esparru batzuetara igarotzeko.

Horien ondorioz sortu ziren gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko programak: asertziozko komunikazioa, elkarrizketa sortzailea, negoziazioa, bitartekotza eta indarkeriarik gabeko gatazka barne hartzen dituzten programak.

90eko hamarkadan, Bakerako Hezkuntzak, kultura arteko bizikidetzarekin lotutako alderdiak jorratzen hasi zen heinean, lotura estua izan zuen kultura arteko hezkuntzarekin. Eta horren guztiaren hausnarketan kultura eta leku desberdinetako profesionalek eta eskolek hartu zuten parte.

Teknologia berrien garapenak asko lagundu du lan horretan guztian. Interneti esker, profesionalen eta taldeen arteko sareak sortu dira, munduko edozein herrialderekin berehala komunika daiteke, eta nahi adina material, esperientzia, ikastetxe eta pertsonari buruzko informazioa lor daiteke. Horrek guztiak bakerako hezkuntzaren aro berria jarri du abian, eta, bertan, gerrariak oso azkar komunikatzen dira, baina baita bakearen aldeko borrokan dihardutenak ere.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren oinarrizko kontzeptu batzuk 2

Gaur egun, bakerako hezkuntza oinarrizko bi kontzeptutan oinarritzen da:

- Bake positiboaren kontzeptua; eta
- Gatazkaren ahalmen sortzailearen ikuspegia

2.1. Bake positiboaren kontzeptua

«Pax romana» (erromatarren bakea) kontzeptutik eratorritako ikusmolde tradizionalaren arabera, bakea estatuen arteko gatazka belikorik ez egotea da (ikusmolde hori estatu-nazioen sorreraren ondoren nagusitu zen Mendebaldean).

Bakearen ikusmolde hori negatiboa da; hau da, suntsitzeko ahalmen handiagoa izateari esker, etsaia indarkeria gehiago ez erabiltzeko konbentzitzen da. Horrela ulertzen zuten, behintzat, erromatarrek, honako hau ziotenean: «Bakean bizi nahi baduzu, presta zaitez gerrarako».

Bakearen planteamendu horrek bi alderdi barne hartzen ditu:

- Batasunari eta barne ordenari eustea, interes nagusientzat mesedegarri.
- Norberaren mugak kanpokoengandik babestea.

Bake negatiboa


Ikusmolde honek zuzeneko indarkeriarik gabeko egoera azpimarratzen du. Bakea «gerrarik ez» egotea da, besterik gabe. Beraz, ordenari eusteko, etsaia konbentzitzeko eta statu quoaren iraunkortasuna bermatzeko indar militarra behar dela esan nahi du.

Bakearen aldeko ikerketen ondorioz, bake kontzeptua hedatu egin zen; izan ere, gerraren aurkakotzat hartzeaz gain, edozein motatako indarkeriaren aurkakotzat ere hartzen hasi zen. Johan Galtung-ek idatzi zuen moduan (1998): «Zuzeneko indarkeria fisikoa edo/eta ahozkoa jarreretan hautematen da. Baina gizakien ekintza ez da hutsetik sortzen; batik bat, bi sustrai ditu: indarkeriaren kultura (heroikoa, aberkoia, patriarkala, etab.) eta berez bortitza den egitura errepresiboa, esplotatzailea edo alienatzailea; hots, jendearen ongizatea lortzeko gogorregia edo bigunegia».

Horrela, bada, besteak beste, indarkeria mota hauek bereizten dira:

- Zuzeneko indarkeria: fisikoa edo erasoa.
- Egiturazko indarkeria: pobrezia (oinarrizko beharrik eza), errepresioa (giza eskubiderik eza), alienazioa (bestelako beharrik eza); hots, azken batean, gizaki guztiei ahalmenak garatzen uzten ez dien egitura sozial eta politiko oro.
- Indarkeria kulturala: zuzeneko indarkeria erabiltzea justifikatzen duten elementu kulturalak, edo biztanleriaren zati batek oinarritzko eskubideak denbora luzean mugatuta edukitzea justifikatzen dutenak.

Grafikoki, indarkeriaren mapa hiruki honen bidez adieraz daiteke:



Indarkeriari buruzko ideia berri horiek bakeari buruzko beste kontzeptu bat sortu zuten:

Bakea prozesu dinamiko eta iraunkortzat hartu zen, ez erreferentzia estatiko edo higiezintzat. Bakearen kontzeptua justizia sozialarekin eta indarkeria murriztuarekin lotzen zen, baita garapenarekin eta giza eskubideekin ere. Alde horretatik, Galtung-ek honakoa dio: «Pobrezia, errepresioa eta alienazioa nagusi diren egoera bati bakea deitzea bake kontzeptuaren parodia da».

Aipatutako horretatik guztitik eratorri da egungo bakearen kontzeptua. Ez dauka ikusmolde tradizionalarekin zerikusirik; haren ezaugarriak eta honenak erabat aurkakoak dira, eta kontzeptu hau askoz ere aberasgarriagoa da:

Bake positiboa

Zuzeneko indarkeriarik ia ez egotea, eta justizia eta adiskidetze kultura ondo sustraituta egotea. Helburua egiturazko indarkeria eta indarkeria kulturala desagertzea da, eta, era berean, harmonia soziala eta guztien eskubideak errespetatzea. Gaur egun Bakerako Hezkuntzaren alorrean nagusi den ikusmolde honen arabera, baliorik garrantzitsuenak berdintasuna, justizia eta elkartasuna dira.

Bakea ez da mugatzen nahi ez den egoerarik eta baldintzarik ez egotera; horrez gainera, ezinbestekoa da nahi diren egoeretan eta baldintzetan bizitzea. Bake positiboa izateko, nahitaezkoa da harreman eta elkarrekintzetan justizia, berdintasuna, elkartasuna eta elkarrekikotasuna izatea. Gatazkarik ez egon arren, harreman sozialetan menderakuntza, injustizia, berdintasunik eza eta elkarrekikotasunik eza nagusi badi-ra, ez da bake positiborik izango.

Gaur egun, bake positiboaren ideia hori zabaltzen ari da, eta bakea bizikidetzarekin berarekin lotzen da, indarkeriarik gabeko egoerarekin baino gehiago. Hain zuzen, harremanak elkar laguntzeko tes-tuinguruan gertatzen direnean, elkar laguntzeko eta elkar aberasteko direnean, harreman horien ezauga-rria bake positiboa dela esaten da. Bakearen kontzeptu horrekin, gainera, indarkeria egoera orotan azaltzen diren gizatasun keinuak eta bizitzaren aldeko keinuak ere adierazten dira; esaterako: etsaiak di-ren bi taldetako kideek borrokaren erdian elkarri laguntzea; pertsona batzuek, gatazka egoeran egon arren, arriskuan dagoenari laguntzeko egiturak baztertzea; edota pertsona arruntek indarkeria kulturalari adorez aurre egitea.

Bakearen kontzeptu berri hori estu lotuta dago garapenarekin eta bizitzaren aldeko ideiekin: ingu-rumena zaintzea, sexuen eta kulturen eskubide eta aukera berdintasuna...

Esan liteke gaur egungo bakearen helburua giza eskubideen globalizazioa dela, bizitzaren alor guz-tietan: pertsonaren baitan, pertsonen artean, taldean, gizartean, nazioan, nazioartean, etab.

2.2. Gatazkaren ahalmen sortzailearen ikuspegia

Bakearen aldeko ikerketen ondorioz, gatazka kontzeptua ere birformulatu da; izan ere, tradizional-ki, negatiboarekin lotzen zen, indarkeriarekin, erasoarekin.

Gaur egun, gatazkaren zentzu negatiboa hartzen duen ikusmoldea da nagusi: zoritxarra, arazoa edo nahi ez den zerbait da gatazka. Gainera, gatazkaren adiera baten arabera, gatazka indarkeria da, eta gataz-kari emandako zenbait erantzun edo agerpide ere gatazkatzat hartzen ditu. Elkarren aurka dauden alde-en gutxiesgarria izaten da, baldin eta alde horiek portaera desberdina edo kritikoa badute, ezarritako por-taera edo balio jakin batzuekiko.

Eskola eremuan, zuzendu eta ekidin beharreko disfuntzio edo patologiatzat hartzen da. Ikasgelako ordenaren haustura da, edo, bestela, haustura horri eman beharreko erantzuna eta eraginkortasuna bat ez etortzea.

Dituen ondorio suntsitzaileen bidez hautematen dugu, eta, beraz, mesfidantzazko jarrera, jarrera negatiboa, hartzen da gatazkarekiko, norberak min hartzeko dakarren arriskua dela eta. Gure aurkakoei aurre egiten diegunean, geure buruaren balorazioa egiten dugu, zer-nolako pertsona balioa dugun azter-tzen dugu, eta geure buruari diogun errespetuari eta estimuari buruzko judizioa egiten dugu.

Oinarrian dagoena norberak bere buruari buruz egiten duen balorazioa denez, gatazkan sartzen ga-renean, gure pertsona balioa gatazka hori irabaztearen baitan dagoela iruditzen zaigu, eta, beraz, lehia mo-duan hartzen dugu. Horren ondorioz, gatazka egoera dikotomikoa izan daiteke; hots, bi alde baztertzai-leren arteko borroka. Horregatik guztiagatik, gatazkarik ez gertatzeko modua bilatzen da, eta, saihestu ezin denean, jarrera lehiakor eta defentsiboa hartuta egiten zaio aurre.

Lederach-ek honako hau dio: «Bai herritarren intuizioak, bai definizio zientifiko askok, fenomeno desatsegintzat eta berez txartzat hartzen dute gatazka».

Paco Cascón-en iritziz, gehienok uste dugu (hezitzaileak barne) ez gaituztela hezi gatazkei modu positiboan aurre egiteko; hori dela eta, tresnak eta baliabideak falta zaizkigu.

Horrela definituta, helburu bateraezinak dituzten pertsonen arteko elkarrekintza da gatazka (Lederach).

Bestetik, Galtung-ek gatazkaren ikuspegi positiboaren aldeko jarrera du: gatazka erronka da; azken batean, helburu bateraezinak edukitzea bi aldeentzat izugarrizko desafioa da, bai adimen aldetik, bai emozio aldetik. Horren arabera, beraz, gatazka gure izateari zentzua ematen dion arrazoietakoa bat da; aldaketaren arrazoiak, aldaketarekin batera gertatzen den zerbait eta aldaketaren ondorioa; bizitza sozialerako ezinbestekoa; bizitzeko arnasa hartzea bezain garrantzitsua.

Lederach-en ustez, gatazka prozesu naturala da, gizarte guztietan gertatzen da, eta beharrezko fenomeno da giza bizitzarako. Gainera, positiboa izan daiteke aldaketetarako eta harremanetarako, baina baita negatiboa ere; izan ere, hori gatazka erabiltzeko moduaren baitan dago.

Giza Eskubideen aldeko elkarteak (APDH-CIP) bakerako hezkuntzari buruz egindako mintegian honela dio: «Bakerako Hezkuntzan, gatazka da landu beharreko helburu garrantzitsuenetakoa bat, eta hausnarketa honetarako abiapuntutzat eta erreferentziatzat hartzen da: ba al dakigu gatazkak konpontzen? Eskuarki, gatazka negatibotzat hartzen da, desatsegina izaten da. Izan ere, zenbaitetan, gatazka konpontzeko erabiltzen dugun moduak ondorio suntsitzaileak edo kaltegarriak dakartza, eta horrekin lotzen dugu gatazka, ez gatazkarekin berarekin... horregatik hartzen dugu gatazka negatibotzat. Gatazka ez da indarkeria; aitzitik, beharrezko osagaia dugu pertsonon bizitza sozialerako».

Bakerako Hezkuntzarako Euskal Liburuan hauxe diote: «Bizitzak berezkoa du gatazka, elkarren arteko harremana bera da gatazka. Besteekin batera egiten gara, hainbat lagunekin harremanak ditugu, eta harremanak, izatez, gatazkatsuak dira, harreman horietan gizaki askok hartzen baitute parte. Gizakiak behar-beharrezko ditu desberdintasunak eta giza harremanak, eta horietan berezkoa da gatazka. Alde horretatik, gatazka ez da ez negatiboa, ez positiboa. Positiboa edo negatiboa gatazka konpontzeko modua izango da; hau da, bizirik eta elkarrekin harremanetan dauden pertsonen, desberdinak izanik, elkarren artean duten harreman mota».

Beraz, gatazka, izatez, ez da ez positiboa, ez negatiboa. Gatazka positiboa edo negatiboa izatea harremanak izateko dugun moduaren baitan dago; hots, mendekotasunezkoak, menderatzaileak edo berdintasunezkoak izatearen baitan. Positiboa edo negatiboa gatazka konpontzeko modua izango da; hain zuzen ere, elkarrekin bizi diren eta harremanetan dauden pertsona desberdin horien arteko gatazka konpontzeko modua. Gainera, gatazkak beharrezkoak dira garapen pertsonalerako eta partaide garen taldeen garapenerako; beraz, gatazkarako hezi, bizi dugun gatazkaz jabetu, horiei aurre egin eta horien jatorria aztertu behar dugu; eta, gainera, horiei erantzun positiboak emateko gaitasuna izan behar dugu, geure burua eta taldea garatzen lagungarri izateko.

Bakerako hezkuntzaren ikuspegiaren arabera, gatazka gizakiaren bizitzan berezkoa den prozesu naturala da. Agresibitatea gizakiak berezkoa duela uste da, eta, izatez, ez dela zerbait negatiboa, positiboa baizik; jarduera erabilgarriak egitera bideratu beharreko ezinbesteko indarra da.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza }

3.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren definizioa eta paradigmak

M^a Carmen Lópezek egiten duen moduan, bizikidetza eta bakerako hezkuntza ulertzeko eta horiek bideratzeko hiru ikuspegi bereizten dira: tekniko-positibista, hermeneutiko-interpretaziozkoa eta soziokritikoa:

- Lehenengo ikuspegiak, *tekniko-positibistak*, positibismo logikoan du jatorria. Hori dela eta, ikuspegi horren arabera, bakegintzan hauteman eta konta daitezkeen alderdiak transmititzeko prozesua da bizikidetza eta bakerako hezkuntza. Ikasleak jarrera pasiboa hartzen du: informazioa bildu eta, horren bidez, bakea lortzeko baldintza zehatzak ezagutzen ditu, baita bakerik ezaren arrazoiak eta agerpenak ere; haatik, ez du hausnartzen gertaera horiek zer gizarte eta hezkuntza testuingurutan gertatzen diren, eta ez zaio burutik pasatzen ekintzarik egiten hastea. Ikuspegi horretatik eratorritako bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren eredua erabat despertsionalizatu eta alienatzailea da ikaslearentzat, eta irakaslearen lana informazioa ematera mugatzen da.
- Ikuspegi *hermeneutiko-interpretaziozkoaren* baitan, bizikidetza eta bakeari eragiten dieten fenomenoak ulertzea da helburua. Horretarako, errealitateko egoerak aztertzen dira –batik bat, ingurune hurbilekoak–, eta horiek hobetzen saiatzen da. Hezkuntza jardueraren alderdi morala aldarrikatzen da, eta gatazkan parte hartzen duten subjektuen arrazoiak eta asmoak ulertu nahi dira, baita horiekin batera jarduten duten beste subjektu batzuen jokamoldeen esanahia ere. Gatazkarik ez gertatzeko eta gatazkak konpontzeko biderik egokiena hezkuntza dela uste da. Ikuspegi horren arabera, irakaslea eragile aktiboa da, gatazkari buruz hausnartzen eta ikertzen duen profesionala.
- Ikuspegi *sozio-kritikoaren* baitan, fenomeno sozialak gertatu diren espazioan bertan aztertzen dira. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza curriculumeko arlo guztietan azaltzen da, bai eta ikastetxeko egitura taxutzen duten elementu guztietan ere. Horrez gain, ikastetxeko mugak gainditzeko lagundu behar du, eskolaz kanpo atera behar du. Gatazkaren ikuspegi positiboa da, gatazkaren ahalmen sortzailearen ikuspegia; gatazka hezkuntza prozesuei lotutako zerbait dela uste da. Hausnarketaren bidez moral autonomoa garatzeko gai diren profesionalak behar dira, moral horren bidez beren jardunaren oinarri diren balioak argitzeko, eta balio horien eta ekintzaren arteko koherentzia eta jarraitasuna berrezartzeko.

Zenbaitek bizikidetza eta bakerako hezkuntza etikaren eremukoa dela diote; izan ere, indarkeria-
ren edozein agerpide salatzeko judizio moralak egin ahal izateko prestakuntza ematen du, bai eta norba-
nakoen portaerarako eredu moralak ere. Beste batzuek, egoera bidegabeak eta indarkeria errotik erauzte-
ko eta bake biderantz urratsak emateko konpromisoa eskatzen duenez, bizikidetza eta bakerako hezkuntza
politikaren alorrekoa dela deritzote. Gaur egun, bizikidetza eta bakerako hezkuntza, moralarekin nahiz
politikarekin lotura estua duela ahazten ez bada ere, kulturaren alorrekotzat hartzen da. Errealitatea inter-
pretatzeko tresna berri batzuk eraikitzea da gakoa, bai interpretazio pertsonalerako, bai sozialerako, bai
politikorako; eta, horren bidez, berdintasun, errespetu, justizia, elkartasun eta askatasun balioekiko joka-
molde koherentea izatea.

Ikuspegi hermeneutiko-interpretaziozkoak eta sozio-kritikoak bilduz, eta bake positiboaren eta ga-
tazkaren ikuspegiak kontuan hartuz, bizikidetza eta bakerako hezkuntza honela definitzea proposatzen
dugu:

Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza garapen pertsonal eta kolektiboa lortzeko ekintza inten-
tzionalak, sistematikoak eta jarraituak egiten diren prozesua da; horretarako, pentsatzeko, sentitze-
ko eta jokatzeko modu alternatiboak sortzen dituzten esparruak behar dira. Prozesu horrek gataz-
kei beren ahalmen sortzailea kontuan hartuta eta indarkeriarik gabe aurre egiteko gaitasuna
sustatzen du, baita berdintasun, justizia, errespetu, askatasun eta elkartasun balioak kontzienteki bi-
zitzeko ere.

3.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren helburuak eta alorrak

Hauk dira Ervin Satub-ek (2002) bakerako hezkuntzarako proposatutako helburuak:

- Haurren eta helduen garapenean laguntzea, *gainerako pertsonekin modu baketsuan harremanak izateko gaitasuna* izan dezaten eta agresiboak izan ez daitezen.
- Haurrek nahiz helduek *gainerakoen ongizatea bultzatzeko gaitasuna, borondatea eta kezka izan dezaten laguntzea*. Gainerakoen beharrei erantzun eta norberaren beharrak modu eraikitzailean eta ez-agresiboan konponduko dituzten pertsonak garatzen laguntzea.
- Haurrei heldu bihurtzen laguntzea, eta helduei, berriz, *norberaren gizartean eta mundu osoan in-
darkeriari aurrea hartzeko jarduten duten pertsona* bihurtzen laguntzea. Horretarako, *indarkeria
galarazten duten* eta bakea sustatzen duten *erakunde eta egiturak sortu* behar dira; esaterako: ikas-
tetxe afektiboak; justizia sistema eraginkorra, baina gizatiarra; gizartean eta munduan justizia
sustatuko duen sistema; eta pertsona taldeen aurkako indarkeria eta zapalketa aurreikusiko du-
en eta horri erantzungo dion *nazioarteko sistema*.

Xesus Jaresen ustez, oinarritzko helburuak hauk dira:

- Nazioarteko ulermenerako* hezkuntza: nazioen artean gero eta handiagoa den mendekotasuna positiboki balioestea eta ulertzea, eta bake positiboaren ideiak bere baitan dituen baldintzak aint-
ztat hartzea.
- Giza eskubideetarako* hezkuntza: giza eskubideak noiz urratzen diren jakitea, eta haien zergati-
ak eta irtenbideak aztertzea.
- Kultura arteko* hezkuntza: bestea errespetatzea, desberdintasunak balioestea, eta aurreiritzi eta
estereotipoak jarrera kritikoz aztertzea.

- d) *Desarmerako* hezkuntza: desarme kontzeptua ulertzea, eta desarmerako jarrera positiboak eta indarkeriarik gabeko defentsa alternatiboak sustatzea.
- e) *Garapenerako* hezkuntza: garapen kontzeptua ezagutzea, eta kontzeptu horrek bakearekin eta giza eskubideekin duen lotura aztertzea; Iparra-Hegoaren arteko harremanetan dagoen truke desorekatuarekiko jarrera kritikoa sustatzea.
- f) *Gatazka egoeretarako* hezkuntza: gatazka giza harremanetan naturala eta ekidinezina dela ohar-tzea, eta gatazka egoerei indarkeriarik gabe aurre egiteko estrategia eta teknikak ezagutzea eta praktikan jartzea.

Haatik, nazioartean gai hauetan adituak diren pertsonak, bakerako hezkuntzaren ezaugarriak dire-la eta, aipatutako helburuak lortzea oso zaila dela diote:

- Indarkeria mota oro (zuzena, egiturazkoa, kulturala, ingurumenekoa...) desagertzeko lan egiten denean, oso arazo korapilatsuari egiten zaio aurre, eta Harris-ek (2002) dioen modura: «Bake-rako hezkuntzak, izatez, ez du formarik; ameba baten antzera, mundu honetan dauden indar-keria mota guztietara egokitzen saiatzen da.»
- Talde eta banako bakoitzak bere ikuspegiaren arabera ulertzen du bakerako hezkuntza: zer mundu mota eraiki behar den (Bar-Tal, 2002), zer bitarteko erabili behar diren, eta horretan ikastetxeek zer eginkizun duten. Hori dela eta, hezkuntzaren beste zenbait esparrurekin alderatuta, bakerako hezkuntza gai korapilatsua da. Oso zaila da bakerako hezkuntzak nolakoa izan beharko lukeen esateko gizartean denak ados jartzea. Zenbaitek mehatxu moduan ikus dezake-te, boterea edo aberastasunak gal baititzaizkete, edo/eta ideologia, balio tradizionalak eta ezarri-tako ordena soziala kolokan jar baitaitezke.
- Desberdintasun handia dagoen egoeretan, desberdintasun horiek konpontzeko moduez baino gehiago, gatazkak konpontzeaz arduratzen da. Desberdintasun horiek erresumina eta gorrotoa sortzen dute, eta horrek zaildu egiten du besteen argudioak aditzea (Salomon, 2002). Elkar adi-tze hori, ordea, beharrezkoa da edozein bake prozesu eta adiskidetzeko sozialetarako.
- Indarkeriak eta gerrek gure kulturaren eta gure hedabideen muina izaten jarraitzen dute. Ge-rarren kultura hori kultura horren beraren emaitza da, baina, aldi berean, kultura horrek bizi-rik iraun dezan bitartekoa ere bada (Furer, 2002). Lor daiteke bake kultura izatea, baina erron-karik handienetako bat gerraren kulturak duen adinako erakarpen indarra («bake appeal») izan dezan lortzea da.
- Mendebaldeko kulturak irabazi pertsonalei edo taldeko irabaziei ematen dien garrantzia dela eta, berehala justifikatzen da erasoak. Gatazka egoeretan, galtzea edo irabaztea baldin badago jokoa, eta horri besteen gutxiespena eranstean bazaio, erasoak berehala sortzen da. Aitzitik, kulturak harre-man positiboak eta baketsuei atxikitako balioak eta poztasuna susta ditzake (Staub, 2002).
- Oso zaila da bakerako hezkuntzaren eraginkortasuna ebaluatzea. Izan ere, bakerako hezkun-tzaren helburua balioak, jarrerak, trebetasunak eta jokatzeko ereduak barneratzea da (Bart-Tal, 2002).

Aipatutako helburuen arabera, hauek dira bizikidetzak eta bakerako hezkuntzaren *alorrak*.

1. *Garapen pertsonala*: trebezia pertsonalak (autoezagutza, autoestimua, autonomia eta autokon-trola) eta trebezia sozialak (enpatia, positibotasuna, aktiboki entzutea, errespetuzko tratua, era-bakiak hartzea) bereganatzea, pertsona arteko harremanak eta harreman sozialak eraikitzaileak eta baketsuak izan daitezen.
2. *Giza eskubideak*: giza eskubideak ezagutzea eta testuinguru desberdinetan injustizia, diskrimi-nazio, zapalkuntza eta indarkeria egoerak (agerpenak, kausak, ondorioak) ikuspegi kritikoaz az-tertzea; batik bat, genero, arraza, egoera sozioekonomiko eta kulturarengatik gertatzen direnak.

3. *Balio demokratikoak*: berdintasuna, askatasuna, partaidetza, elkartasuna, justizia, errukia eta beste zenbait terminoren esanahia ulertzea eta horiek praktikan betetzen ikastea, horiek baitira gizarte baketsu baterako oinarriak.
4. *Ingurune hurbilean bizikidetza sustatzea*: familian, ikastetxean, lagun taldean, auzoan, herrian...
5. Gatazken konponketa: elkarriketarako, gatazkak konpontzeko... estrategiak praktikoki eta teorikoki ikastea, bakea eta bizikidetza positiboa eraikitzeko.
6. *Garapena*: herrien elkartasunezko garapenean eta ingurumenaren garapen iraunkorrean oinarrituta dauden munduko bizikidetza eta bakea ezagutzea. Gaur egungo garapenaren eredia eta eredu horrek herrialde pobreetan (gosea, gaixotasun endemikoak, gerra etnikoa, migrazio mugimenduak...) nahiz herrialde aberatsetan (immigrazioari jarritako oztopoak, ekonomiaren globalizazioa...) utzi dituen ondorioak ikuspegi kritikoaz aztertzea, baita baliabide naturalen ustiapenaren eta hondamen ekologikoen azterketa kritikoa egitea ere.
7. *Kulturartekotasuna*: kultura aniztasuna onartzea, eta, norberaren kulturatik abiatuta eta kultura guztiak errespetatuz, kulturen artean elkarriketa izaten ikastea, pertsonen eta herrien arteko bakea eta bizikidetza lortzeko.
8. *Norberaren nazioko nahiz nazioarteko gatazkak, eta horien konponbideak*: Gatazka nagusiak eza- gutzea eta aztertzea, baita horiek konpontzeko erabili diren, erabil daitezkeen eta erabili nahi diren ereduak ere. Gerra, terrorismoa eta botere abusua gatazkak konpontzeko bide bortitz eta bidegabeak diren aldetik aztertzea.

3.3. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza, hezkuntza arautuan

Jacques Delors batzordeburu zela aditu talde batek egindako UNESCOren txostenaren arabera, XXI. mendeko hezkuntzak lau zutabe izan behar ditu oinarrian: ikasten ikastea, egiten ikastea, izaten ikastea eta elkarrekin bizitzen ikastea. Horren bidez ezartzen diren helburuak, neurri batean, berriak dira hezkuntzaren alorrean lanean ari diren erakundeentzat; batik bat, hezkuntza arautuan ari direnentzat. Ikastetxeak arduratzen ziren kultura transmititzeaz, baita kultura eskuratzeko herritar orori ikaskuntza instrumentalak emateaz ere. Era berean, norbanakoaren garapenean laguntzeaz gain, lan munduan barneratzeko eta ongizate ekonomikoan eta sozialean parte hartzeko beharrezko oinarriak ematen zituzten.

Beste batzuk arduratzen ziren eskolako heziketaren oinarri ziren balioak finkatzeaz; ikasle bakoitzak etxetik zekarren oinarri etikoa, eta ikastetxeak hori sendotu eta arrazionalizatu baino ez zuen egiten. Tedesco-k (2000) dioen moduan, sozializazio primarioa familiaren egitekoa zen, eta lokarri afektiboen bidez sendotzen zen. Ikastetxeei, aldiz, sozializazio sekundarioa zegokien, eta zeregin garrantzitsua izaten zuten horretan, askoz ere oinarri arrazionalagoen bidez. Alabaina, egoera hori errotik aldatu da, eta ikastetxearen helburuak ez du irakastea soilik izan behar: balio jakin batzuetan ere hezi behar du, bai norberaren garapenaren oinarri direnetan, bai bizikidetzaren oinarri direnetan.

Ikastetxeen ardura nagusia ikasleak elkarrekin eta pertsona helduekin berentzat zeharo berria den testuinguru batean (familiarra baino irekiagoan) bizikide izan daitezen lortzea izan da; ikastetxeko bizikidetza gizarte bizikidetzarako eskola izatea, alegia. Aldaketa sozialek eta kulturek ikastetxeko bizikidetzari eragin dioten heinean, bizikidetza horren oinarriak sistematikoki lantzeko beharra sortu da —batik bat, garapen pertsonalarekin eta trebetasun sozialekin lotutako alderdiak—, bai eta talde barruko gatazkak lantzeko ere. Hala ere, gizartearen eskaera zabalduz joan den neurrian, ikastetxeak hezkuntzaren bidez bizikidetza hobetzen eta bakean oinarritutako gizarteak eraikitzen lagun dezaketela —eta lagundu behar du—

tela– ohartu dira, eta, horretarako, bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beste zenbait alor jorratu behar dituztela; esaterako, balioetan, giza eskubideetan, kulturartekotasunean eta garapenerako heztean.

Hezkuntza arautua egitura batzuen barruan garatzen da: hezkuntza sistemak ezartzen ditu jokoaren arauak, eta ikastetxeak arduratzen dira heziketa emateaz; betiere, arau horien barnean.

Hezkuntza sistemak hezkuntzaren helburuak lortzeko bide eraginkorrak eduki behar ditu. Mercedes Muñoz-Repisok dioen moduan, hezkuntza sistemak ikasketen eraginkortasuna ziurtatu behar du, guztiek lortu beharreko zerbait dela kontuan hartuta. Gainera, askatasuna bermatu behar du, bakoitzak gogokoen duen hezkuntza aukerari jarrai diezaion; betiere, hezkuntza sistemako oinarritzko beste balio bat alboratu gabe: kohesio soziala, alegia. Hezkuntza arautuak kohesio soziala bultzatzen duela esan daiteke, pertsonen, desberdinak izanik, ezagutzak eta esperientziak partekatu eta bazterketarik gabeko bizikidetza eraikitzen badute.

Ulerkortasun maila handiko hezkuntza sistemen erreferentzia nagusia kohesio soziala da. Sistemarik dibertsifikatuenean –hainbat eskola sare, adar alternatiboak, eredu desberdinak edo prestakuntza ibilbide desberdinak dituztenek– heziketa aukeratzeko askatasuna indartzen dute. Bi balio horiek errespetaatzeko, sistema ulerkorra behar da, aukera baztertzailerik eta itxirik eskainiko ez duen sistema; talde heterogeneoak egongo diren arren, curriculum bakarra baina malgua landuko duena. Beraz, bertan curriculumak ikasle bakoitzaren beharrezanetara egokituko da. Gure gizartean oraindik ere eztabaidatzen ari da zein den aniztasunari erantzuteko hezkuntza sistemarik egokiena. Iritzi desberdin ugari daude, eta, hori dela eta, urte gutxitan bi eredu oso desberdin agertu dira. Eredu horiek lege hauetan adierazi dira: 1990eko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa (LOGSE) eta 2002ko Hezkuntza Kalitatearen Lege Organikoa (LOCE).

Ikastetxe bakoitzak *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan* (IHP) zehazten ditu bere oinarritzko helburuak eta beretzat lehentasuna duten balioak; hau da, zein baliotan oinarritu nahi duen hezkuntza. Hezkuntza proiektuan hezkuntza komunitateak erabakitzen du zer-nolako herritar bihurtu nahi dituen ikasleak, eta nola hezi behar dituen besteekin batera bizitzen ikas dezaten eta gizarte baketsu eta kohesionatua eraikitzen lagun dezaten. Helburu horiek lortzeko, ikastetxeek oinarritzko bi tresna dituzte: curriculumak eta ikastetxeko bizitza.

Ikastetxearen Curriculum Proiektuak (ICP) irakasleek curriculumeko gaiei buruz adostutakoak biltzen ditu; betiere, IHPn proposatutakoarekin bat. Dokumentu horretan, alorrekin, orientazioarekin eta tutoretzarekin zerikusia duten gaiei buruz adostutakoak biltzen dira, eta, era berean, bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren hainbat alor jorrazteko *berariazko programak* adostu beharko dira. ICPn, irakatsi-ikasi beharreko edukiak zein diren erabaki beharko dute irakasleek, baita programa horiek eskolako curriculumean txertatzeko modurik egokiena zein den ere; hau da, zehar lerroen bidez landuko dituzten alor desberdinetan, tutoretza planaren parte izango diren, ala ikasketa horiek modu ordenatuan epeka landu behar ote diren.

Erabaki horiek hartu ondoren, irakasleek *programazio didaktikoak* zehaztuko dituzte, horiek baitira ikasgelan nola jokatu adieraziko dietenak. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan, ikasteko proposatzen diren edukiak ez ezik, irakasteko moduak ere oso garrantzitsuak dira. Ikasgelako metodologiak eta antolaketa asko lagun dezake bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren oinarritzko ikaskuntzak barneratzen; esaterako, norberaren ardura, talde lana, lankidetza eta zailtasun gehien duenari laguntzea; baina, era berean, jarrera berekoiak, lehiakorrak eta insolidarioak ere susta ditzake.

Tutoretza ikasleen hezkuntza prozesuekin (norbanakoarenak nahiz taldearenak) lotura estua duen berariazko jardura da. Tutorearen ardura da irakaskuntza jardura hezkuntza helburuarekin koherentea izatea eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea; aldi berean, tutorea da ikastetxearen eta familien arte-

ko lokarria. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan, tutoretza oso tresna garrantzitsua da; batik bat, ikastetxeko bertako bizikidetza, ikasleen garapen pertsonala eta soziala, eta ikasgelan giza eskubideak errespetatzea sustatzeko.

Tutoretzak garrantzi handia izan arren, ez da nahikoa bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alde ikastetxean egiten den guztia tutoretzetan bideratzea; izan ere, helburu hori curriculumeko arlo guztietan agertzen da. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikaskuntza-irakaskuntzarako helburuak eta egitura zeharkatzen dituen hezkuntza *orientabide* hartu behar da. Arlo guztietako edukiak prisma horren bitartez aztertu eta ikusi behar dira (Harris, 2002). Bereziki, oso erabilgarria da historian, geografian, gizarte zientzietan, literaturan, hizkuntzetan eta artean.

Antolamendu eta Jarduera Araudiak (AJA), ikastetxeko antolaketa eta funtzionatzeko eta antolatze-ko irizpideak zehazten dituenek, zuzenean eragiten du bizikidetzarako hezkuntzan, ikastetxean harreman positiboak errazteko ala zailtzeko testuingurua ezartzen duen heinean; hau da, eragin handia izango du, testuinguru horretan gatazkak konpontzeko eta horretan parte hartzeko aukera emateak; diziplinarik gabeko egoerak gerta ez daitezen, neurri zuzentzaileak baino gehiago, neurri prebentiboak hartzeak; eta diziplina arazoei erantzuteko neurri hezitzaileak jartzeak, zigor neurriak baino gehiago. Azken batean, ikastetxeko egoera baldintzatzen duen faktore bat izan daiteke; izan ere, atsegina eta estimulatzailerik denean (bai ikasgelan, bai ikastetxean), adibidez, bizikidetza positiboa izan dadin laguntzen du.

Ikastetxeko antolaketaren eta bizitzaren bidez, agerian gelditzen da ezkutuko curriculumak. Ez da hain arraroa kontraesanak egotea ikasgeletan ahoz adierazten den ageriko curriculumaren eta ikastetxeko bizitza antolatze moduan dagoen ezkutuko curriculumaren artean. Curriculumera iristeko bi bide horien artean koherentzia nahikoa dagoenean soilik izango du mezu batek eragina; batez ere, balio eta jarraia pertsonalei eragiten badie.

Ikastetxe batek, bizikidetza eta bakerako hezkuntzan egiten duena nahikoa ez dela uste badu (bai helburuak lortzen ez dituelako, bai beharrezko diren alor guztiak jorratzen ez dituelako), *hobekuntza plana* egitea pentsatu beharko luke. Lortu nahi denaren eta benetan lortu denaren azterketa egin ondoren, eta hezkuntza komunitatearen —edo, zehazkiago esanda, irakasleen— sentsibilizazio mailaren arabera, hobekuntza zein arlotan egin behar den zehaztu ahal izango da. Plan horretan, hobekuntza horiek lortzeko eginbeharrak adieraziko dira.

Bakerako hezkuntzarako ikastetxeen «konpromiso gradiente» bat ezar daiteke, aldi berean, norabide horretan aurrera egin nahi dutenentzat baliagarria izango dena:

Maila	Esanahia
A maila. Bakerako hezkuntza ez dela lantzen esatea.	Gai hori ezkutuko curriculumerako uzten dela adierazten du; izan ere, horren aipamenik ez egitean, izatez, gai hori jorratzeko eredu bat aukeratzen da.
B maila. Jarduera puntualak, denbora mugatua.	Esparru akademikotik kanpokoak izan arren, ikastetxeko bizitzaren baitakoak diren jarduerak: kultura jardunaldiak, kanpamentu eta udalekuak, ikastetxeen arteko jardunaldiak, bakearekin lotutako urteurrenen ospakizunak, elkartasun kanpainak, ikastetxeen arteko posta trukea, argitalpenak, trukeak...
C maila. Bakerako hezkuntza-ren ikuspegiari jarraituz bideratutako diziplina arteko lanak.	Horrelako jarduerak curriculumeko arloen programetako berariazko beharrek eraginak izan daitezke (horrek koordinazio arazoak sor ditzake), edo, bestela, arlo guztiak biltzen dituen gune orokor bat erabil dezakete.
D maila. Ikastetxeko departamentu didaktikoen programazioen garapena.	Departamentu didaktikoek curriculumeko arlo jakin bateko unitate didaktikoen alderdi esanguratsuak berrikus ditzakete (ikasturte, maila edo etapa osoko unitate didaktikoenak); edo, bestela, curriculum unitate jakin bat edo berariazko unitate didaktiko bat egin dezakete, bakerako hezkuntzaaren ezaugarri diren ikuspegi buruz.
E maila. Bakerako hezkuntza tutore lanean edo orientabidean, edo etapako curriculum proiektuan sartzea.	Ikasturte edo maila baterako tutoretza programak egitea, gatazken konponketa-ri buruz...
F maila. Bakerako hezkuntzako postulatuak ikastetxeko funtzionamendu arauetan sartzea.	Ikastetxearen Curriculum Proiektuak ikastetxeko bizimodua antolatzen lagunduko duen enuntziatu moduan hartzen du kontuan bakerako hezkuntzaaren zehar lerroa, ez intentzio onak adierazteko balio duen legezko enuntziatu moduan. Besteak beste, honela lagun dezake ikastetxeko antolaketa: barne erregimeneko araudia eginez, edo hori etengabe berrikusteko hezkuntza komunitateko kide ororen partaidetza bultzatuz; izan ere, horri esker, inork ez du prozesua bukatutzat ematerik izango (berez, hasi besterik ez da egin). Ikastetxearen hezkuntza proiektua, bakerako hezkuntzaaren ikuspegia kontuan hartuta landuz gero, oso tresna baliagarria da ikastetxeak koordinatzen eta aktibatzen dituen dinamismoak errealitatean gauzatzeko.
G maila. Ikastetxea BAKE KULTURAREN SUSTATZAILEA dela erabakitzea.	Horrek agerian adierazten du: Ikasleak alor horretako eragile aktiboak izango dira. Ikastetxeko bizikidetza zenbait plataformaren baitan antolatzen da; esaterako, batzarren, tutoretzen eta bizikidetza batzordeen baitan. Familiekin harremana edukiko da. Gai hori jorratzen duten inguruko erakundeek lankidetzak bilatzen da; horrela, haien proposamenak eta materialak arloko programazioaren barruan sartuko dira, eta sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzetan irakasleekin eta familiekin lan egingo da. Herrian nahiz herritik kanpo (eskualdean, Estatuan, Europan) horretan lanean diharduten erakundeek programak eta esperientziak ezagutuko dira, bakerako hezkuntzaaren aldeko proposamenak eta horren integrazio prozesuak ikertzeko eta ebaluatzeko.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoera munduan



4.1. Nazioartean

Nazioartean bakerako hezkuntzaren alorrean zer-nolako lanak egiten ari diren begiratuta, gizarte motaren arabera bakerako hezkuntza modu desberdinetan aplikatzen eta bideratzen dela ikus dezakegu. Alde horretatik, Solomon-ek (2002) bereizketa hau egiten du:

- Gatazka trataezinak dituzten eskualdeak.
- Arrazen, etnien edo taldeen arteko tentsioak dauden eskualdeak.
- Egoera lasaia duten eskualdeak.

Eskualdearen arabera, helburu nagusia desberdina da: historikoki etsaiak izan direnekiko jarrerak aldatzeko lan egitea, pertsonen arteko harremanetarako trebetasun jakin batzuk lantzea, giza eskubideak sustatzea (Hirugarren Mundua deitutako horretan, batez ere), edota ingurumenarekin, desarme globalarekin eta bake kulturaren sustapenarekin lotutako gaiak jorratzea.

- Australian, bakerako hezkuntza etnozentrismoa eta indarkeria gainditzean datza, bai eta kultura aniztasuna, desarme nuklearra eta gatazken konponketa sustatzean ere (Bar-Tal, 2002).
- Japonian, desarme nuklearrarekin, militarismoarekin eta iraganean erabilitako indarkeriaren erantzukizunarekin lotutako gaiak jorratzen dira, nagusiki.
- Hego Amerikan, bereziki egiturazko indarkeria, giza eskubideak eta desberdintasun ekonomikoak lantzea komeni da.
- Ameriketako Estatu Batuetan, kultura aniztasunarekin, pertsonen arteko indarkeriarekin eta ingurumenarekin lotutako gaiak lantzen dira bereziki.
- European, gatazka egoeretarako hezkuntza eta giza eskubideetarako hezkuntza garatu dira bereziki, eta demokraziarako hezkuntzari garrantzi handia eman zaio komunista izandako herrialdeetan.
- Corkalo-ren hitzetan (2002), oso garrantzitsua da komunista izandako herrialdeetan gatazka egoeretarako hezkuntza eta egoera horien konponbideak lantzea. Komunisten garaian, tresna onartezintzat hartzen zen gatazka, eta gizartearen batasunerako kaltegarria izan zitekeela uste zen. Erregimen komunistaren gainbeheraren ondoren, gatazka egoeretarako eta demokraziarako kultura berri baten oinarrietan hezteko beharra ikusi da.
- Indian, barneko bakea bilatzeko tradizioa dagoenez, ekintza sozialerako hezteko beharra ikusten da (Dadhich, 2002).

- Ipar Irlandan, Hegoafrikan, Ruandan, Guatemalan eta Israelen eta Palestinan, aurreiritziak gutxitzeari, komunitateek elkar ulertzeari, desberdintasunak gainditzeari eta gizartean bakeak egiteari ematen zaio garrantzia.

Alde horretatik, orain gutxiko *nazioarteko dokumentu* batzuek bakerako hezkuntzaren garrantzia azpimarratzen dute:

- NBEk munduko haurrentzako bake eta indarkeriarik gabeko kulturaren hamarkada izendatu du 2001-2010 hamarkada.
- Europako Kontseiluko Ministroen Budapesteko Deklarazioa, 1999.
- Europako hego-mendebaldeko herrialdeentzako Egonkortasun Hitzarmena, 1999.
- Pekingo Deklarazioa, 1995.
- Bake Kulturarako UNESCOren Programa, 1994
- Bakerako Nazio Batuen Agenda, 1992.
- ESLAk Parisko Gutuna onartzea, 1990

Dokumentu horietan agertutako helburuak aurrera eramateko, nazioarteko erakunde eta ekimen ugari daude. Horien artean, hauek nabarmentzen ditugu:

- *UNESCO* (Hezkuntzaren garapenerako Nazio Batuen erakundea).
- *IPRA* (International Peace Research Association/Bakerako Hezkuntzarako Nazioarteko Elkar-
tea).
- *Teachers for Peace*. Bakerako hezitzaileen nazioarteko mugimendua.
- *EIP*. Ikastetxea, Bakerako Tresna.
- *EURED*. Europako irakasleak Bakerako Hezkuntzaren alorrean prestatzeko nazioarteko proiektua.
- *Hague Appeal for Peace*. Bakerako Hezkuntzaren aldeko munduko kanpaina. 2000. urteko Hagoako Deklaraziotik sortua.

4.2. Estatuan

Estatu espainiarrean, mundu osoan gertatu den bezala, bakerako hezkuntzak iturri hauetatik edan du: indarkeriarik ezaren ondaretik, korronte hori erakunde ofizialetan instituzionalizatzetik, bakearen aldeko ikerketatik, eta horren inguruan sortu den berriztapen pedagogikoaren mugimendutik. Haatik, Bigarren Mundu Gerraren ostean oso egoera desberdinak bizi ziren Estatu espainiarrean eta mendebaldeko gainerako herrialdeetan; izan ere, garai hartan, herritarrei indarkeriak dakarren basakeriaren aurkako txertoa jartzeko funtsezko oinarriak hasi ziren finkatzen Europako herrialde horietan, eta, Espainia, berriz, diktadurapean zegoen; gerra zibilaren ostean ezarritako diktadura horrek berrogei urte iraungo zuen, gainera.

80ko hamarkadaren hasieran, ildo horretako ekintza mota berri eta interesgarriak jarri ziren abian; esaterako, intsumisioa, objektzio fiskala, kontzientzia eragozpena, bakerako hezkuntza edo NATOren aurkako borroka. Era berean, hezkuntza alorrean, zenbait talde, pertsona eta erakunde bakerako hezkuntza jorratzen hasi ziren, hainbat arrazoik eraginda: tradizio pedagogiko berritzailea, indarkeriarik gabeko taldeen ekintzak eta, beste zenbait faktoreren artean, bakerako hezkuntzaren planteamendua eta garapena. «Baina, horien guztien artean, ezbaierik gabe, mugimendu bakezaleek gizarteko militarizazioaren eta arrisku nuklearraren aurka gizartean sortutako inpaktuak izango du eragin ekonomikorik handiena.» (Xexús R. Jares).

Hirurogeiko hamarkadan horren guztiaren bi aurrekari ditugu; bata, gizarte alorrekoa, eta, bestea, pedagogia alorrekoa: gizarte alorrean, hamarkada horren amaieran nuklearren aurkako mobilizazio ugari

egin ziren, eta, pedagogia alorrean, 1964an Lorenzo Vidalek (Oinarrizko hezkuntzako Mallorcako ikuskatzailea) indarkeriarik gabeko eta bakearen aldeko eguna ezarri zuen. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1978ko azaroaren 29ko Ministro Agindua bidez ikastetxeko jardunaldi horiei onespena eman zientean, ikastetxe eta bake binomioak izaera ofiziala hartu zuen. Kontzientzia Eragozpeneko Mugimenduak (KEM-MOC) eta indarkeriaren aurkako beste talde batzuek bakerako hezkuntzari egindako ekarpena indarkeriarik eza da. «Horregatik guztiagatik, Espainian, objektzioaren aldeko eta indarkeriaren aurkako zenbait talde bakerako hezkuntzaren aldeko ekimen zehatz batzuk abian jartzen hasi ziren; betiere, bakerako hezkuntza indarkeriarik gabeko hezkuntza global moduan ulertuta (CAN 1981 eta 1985). Talde horiek hirurogeiko hamarkadaren amaieran egin zuten beren lehen ekimenetako bat; abenduan, hain zuzen ere: jostailu belikoen aurkako kanpaina (Xesús R. Jares). Hurrengo helburua jolasak berak izan ziren: lan-kidetza jolasak talde horien bidez sartu ziren lehendabiziko aldiz Espainian. Talde horien artetik aipagarrienak Bilboko Oinez taldea, Torrelavegako Educar para la paz taldea eta Malagako Acción noviolenta taldea izan ziren. Horiek guztiek atera dituzte lankidetza jolasei buruzko argitalpenak.

Indarkeriaren aurkako talde horiek, kontzientziazte jarduerak eta ikastaroak emateaz gain, indarkeriarik ezerako eta bakerako hezitzaileen topaketak antolatzen hasi ziren, 1983ko udatik aurrera.

Ikastetxeek, gizarte egoera berri hori zela eta, hezkuntza erantzun berria eman beharrean ikusi zuten beren burua. Bakearen kontzeptua eta bizipenak pedagogia alorrera eramaten saiatzean, bakerako hezkuntzarekin lotutako talde edo/eta lagun asko agertu ziren. Eta horiek guztiak eremu desberdinetatik zetozenez, mota askotako ekarpenak egin ziren, bakoitzaren hezkuntza egitekoaren arabera:

- Talde bakezaleak (antimilitaristak, indarkeriaren aurkakoak...). Horien artean, mugimendu batzuk berriz aipatu behar dira: CAN, Madril; OINEZ, Bilbon; Educar para la Paz kolektiboa, Kantabrian; GANV, Malagan; Asamblea de Noviolencia, Asturiasen; Comité Anti-OTAN, Madril; Colectivo para la Paz y el Desarme, Zaragozan...
- Berriztapen pedagogikoko mugimenduak (MRP): Educadores por la Paz (Nova Escola Galega), Galizian; Redpaz, Sevillan; zenbait talde, eta, horien artean, Ciudad Realgoa aipatu behar da; Escuela de Verano de Aragón-eko Bakerako Hezkuntza taldea, Zaragozan; eta abar.
- Gobernu kanpoko erakundeak (GKE); batik bat, Garapenerako Hezkuntzaren alorrean jarduten dute: Manos Unidas, Gurutze Gorria; Intermon; Paz y Cooperación; Hegoa. Hala ere, gero eta gobernu kanpoko erakunde gehiagok jarduten dute gure inguruan ere bakea eta bizikidetza sendotzen; batez ere, kontzientziazte eta gizarte mobilizazioen bidez.
- Bakerako dokumentazio eta ikerketa zentroak: Centro de investigación para la paz (CIP), Madril; CIDOB, Bartzelonan; Centro Pignatelli, Zaragozan...
- Zenbait pertsona: Xesús R. Jares, Paco Cascón, Xabier Etxebarria, Rafael Grassa, Vicenc Fisas, Carmen Romía... bai haien ekintzengatik, bai haien hausnarketengatik, nahitaezko erreferentzia bihurtu dira. Bakerako hezkuntzako mintegiak eta talde autonomoak.

Geroago, mugimendu horretan beste hauek guztiak elkartu dira:

- Nazioarteko erakundeak edo Espainian dauden erakunde horien sail batzuk: Escuela instrumento de paz (EIP); UNESCOko Eskola Elkartuak; Club de Amigos de la UNESCO; Amnesty Internacional; etab.
- Irakasleen sindikatuak.
- Giza eskubideen aldeko herritarren elkarteak; esaterako, Madrilgo APDH. Elkarte horrek 1986tik bakerako hezkuntzaren mintegia antolatzen laguntzen du, eta, beste zenbait jardueraren artean, Estatuan bakerako hezkuntzaren alorrean egiten diren kongresuek jarraitasuna izan dezaten arduratzen da.

- Erakundeen ekimenak: horien artean, nabarmentzekoak dira zenbait CEP; besteak beste, Albacetekoa, Getafekoa (Madril), Guardokoa (Palentzia), Marbellakoa (Malaga), etab. Zenbait udal-letako Hezkuntza Sailetan bakerako hezkuntzaren aldeko erronka garbia egin duten ekimenak. Zenbait kontseilaritzaren eta gobernu autonomoren ekimenak; esaterako, Madrilgo Komunitatearen eta Andaluziako Juntaren argitalpenak. Hala ere, hori guztia egoera zehatzetan eta al-dizka baino ez da egiten. Azken urteotan, erakundeen programa globalak ere jarri dira abian; horien artean, Bake eta indarkeriarik ezaren kulturarako Andaluziako Hezkuntza Plana, eta Madrilgo, Kataluniako eta Euskadiko Bizikidetza planak dira aipagarrienak. Erakundeen eki-menak ugaritu egin diren arren, horien erantzuna oraindik ez da nahi adinakoa.
- Unibertsitateetan, askoz ere gutxiago sustatzen da babes hori; oso unibertsitate gutxi hartzen dute kontuan bakerako hezkuntza beren ikasketa planetan. Alor honetan, nabarmentzekoa da bai Bartzelonako Unibertsitatean UNESCO Katedra sortu izana (Vicenc Fisas-en zuzendaritza-pean), bai Castellóko, Granadako eta Euskadiko Unibertsitateetan bakearen aldeko ikasketen programak izatea.

Azkenik, Estatu espainiarrean bakearen aldeko ikerketaren alorrean lan egin duten taldeen eta mugimenduen garrantzia aipatuko dugu.

1981ean, UNESCOren Bildumaren arabera, mundu guztian 310 erakundek ziharduten ikerketa alor horretan lanean; Espainian, berriz, ez zegoen horretan aritzen zen zentrorik. Diziplina hori 80ko hamarkadatik aurrera garatu zen gehienbat. Hala ere, 70eko hamarkadan izan zituen lehenengo aurrekari-ak: Institut Victor Seix de Polemología-Frederic Roda, 1972koa, eta, Centre d'Análisi de Conflictes (C.A.C), 1974koa; azken hori bi urte geroago itxi zuten, diru laguntzarik jaso ez zuelako. Bi kasuetan, Vi-cenc Fisas-en parte hartzea erabakigarria izan zen, eta erreferentzia garrantzitsua bihurtu zen Estatuan. Ekimen horiek guztiak, ordea, ez ziren oso indartsuak, eta ez zuten oihartzun handirik lortu. Bakearen al-deko ikerketak laurogeiko hamarkadan hartu zuen garrantzia, bakerako eta bake hezkuntzarako mugi-menduarekin batera; besteak beste, talde hauei esker:

- Madrilgo Grupo de información sobre el desarme y la paz (Giza Eskubideen aldeko Elkartea). Horren adierazpidea *Derechos Humanos* aldizkaria izan zen.
- Bartzelonako Nazioarteko Zentroko Secció de Estudis sobre Pau i Conflictes (CIDOB) dela-koa; Vicenc Fisas-ek sustatu zuen, 1984an. Bertako aldizkaria «Sobre Pau» izan zen.
- Madrilgo Centro de investigación para la paz (CIP); 1984ko azaroan sortu zen. Hilero kalera-tzen zuen *Papeles de Paz* izeneko aldizkaria; gerora, ordea, hiruhileko bihurtu zen.
- Zaragozako «Centro Pignatelli» ere nabarmentzekoa da.
- Granadako Unibertsitateko Instituto de estudios de paz y conflicto.
- Euskadin, Bakeaz dokumentazio zentroa eta Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko aztertegia.

1985ean, Fisas-ek egindako zenbaketaren arabera, Estatuan hogeitabat ziren bakeari buruzko txos-ten eta dokumentazio zentroak, eta gehienak Madril-en eta Bartzelonan zeuden.

Talde ugari, eta oso eremu desberdinetakoak, sortu dira Estatuan hezkuntza berri hori sustatzeko asmoz, eta horrek agerian jartzen du pertsona eta talde askok dutela hezkuntza berri horri buruzko kez-ka. Ezbairik gabe, teknologia berriak oso lagungarriak dira, web orrien bidez, abentura kitzikagarri horre-tan murgildu nahi dutenen oinarriak sendotzeko eta erakusleirio izateko. Tresna berri horiek eskain die-zaguketenaren erakusgarri da, adibidez, helbide hau: www.pangea.org.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren gaur egungo egoera aipatu berri ditugun joera horien guz-tien laburpena da. Hala ere, ezinbestean aipatu behar dira Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alorre-an aurrera egiteko eragin handia izan duten bi gertakari:

- LOGSE legean (1990) bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxearen curriculumeko zehar lerrotzat hartu izana.
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren barneko bi osagairekin lotutako ekimenak ugaritu izana; hain zuzen ere, garapenerako hezkuntzarekin lotutakoak (gizartean gero eta GKE gehiago izatearekin bat gertatua) eta kultura arteko hezkuntzarekin lotutakoak (immigrazioaren arazoa dela eta indartua).

4.3. Euskadin

Euskadin, bakerako hezkuntzak bestelako bilakaera izan du, bertako errealitate soziopolitikoaren eraginez.

Frankismo garaian, Espainia barruan elementu kultural bereizle izan zitekeen oro zapaldu zen. Euskadin, euskaraz hitz egitea debekatu zuten, eta indarkeria erabili zen euskaldunen identitate ikurra desagertarazteko. Horrek guztiak frankismoaren aurkako sentsibilitate handia piztu zuen, eta, horren ondorioz, erregimenaren bukaeran, talde politiko eta sindikal ugari sortu ziren: guztiek aldarrikatzen zituzten konkista politikoak eta sozialak, baina oso ikuspegi desberdinetatik begiratuta.

Garai hartan, errepresioaren kontra indarkeriaz erantzuten zuten taldeak sortu ziren. Gaur egun, zenbait sektoreen iritziz, oraindik ere indarkeria da gatazka konpontzeko modu bakarra. Estatuak ere, bestalde, indarkeria erabili zuen talde armatuen indarkeriari erantzuteko.

Zapalketaren aurkako erresistentzia handiko testuinguru kultural horretan, «bake» hitza gaur egun «bake negatibo» deiturikoarekin lotzen zen. Bake negatiboa zuzeneko indarkeriarik ez egotea da, eta ez ditu kontuan hartzen bake horri eusten dioten alderdi kulturalak eta egiturazkoak. Ideia horrek 90eko hamarkadara arte iraun du.

Euskadin, bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alorreko ekimenak beste zenbait lekutan baino geroago sortu ziren, euskal gatazka politikoarekin lotutako indarkeria fenomenoek eragindako zailtasunen ondorioz. Gaur egun, ordea, horrelako ekimen ugari eta askotarikoak daude.

Batetik, *mugimendu bakezaleak* beti saiatu izan dira beren proposamenak hezkuntza alorrera helarazteaz. Hauek dira aipagarrienak:

Gesto por la Paz-Bakearen aldeko koordinakundea 1986an sortu zen, helburu honekin: publikoki, modu aktiboan, solidarioan eta isilean salatzea Euskal Herriari buruzko ustezko motibazio politikoek eragindako indarkeriak ez duela, etika eta politika aldetik, zilegitasunik. Horien planteamendua indarkeriarik ezeko parametroen baitan dago. Indarkeria defendatzen edo justifikatzen dutenek hartutako lekuari aurre egin nahian, agerian eta guztien begi bistan jarri nahi dute arazoak konpontzeko (zehazki, edozein gatazka politiko konpontzeko) indarkeria erabiltzearen aurka dagoen jendea, eta, horrez gainera, gizartea adiskidetzeko dagoen beharra ere jarri nahi dute agerian. Bakerako hezkuntzari laguntzeko asmoa ere agertu dute: eskuarki, indarkeria adierazle desberdinei eta bakearen ezaugarriei buruz egindako hausnarketan bidez, eta hezitzaileentzako material lagungarria prestatuz.

Gernika Gogoratz-Bakearen aldeko aztertegia eta gatazken transformaziorako zentroa da. 1987ko amaiera aldera sortu zen, Eusko Jaurlaritzan hartutako baterako erabaki baten ostean. Gainera, 1995etik aurrera, zentro horrek gizartea adiskidetzeko konpromisoa hartu zuen; iraganeko oroitzapenak eta etorkizunerako lana uztartu nahi ditu, eta biktimak gogoan hartzen ditu. 1989an hasi zen hezkuntza sisteman lanean, bakerako hezkuntza gatazkaren trataeraren bidez sustatzeko, eta esperimentazio eta hedapen lan handia egin

du diziplina hori Euskadin nahiz Estatuko gainerako lekuetan eta nazioartean hedatzeko. Era berean, lan handia egin du hezkuntza sistemarako jendea prestatzen: pertsona gaituak izan daitezen, bai programak dinamizatzeko, bai hezkuntza sistemako gatazka egoeretan esku hartzeko. Izan ere, eguneroko gatazketan oinarriturik, gatazkak eraldatzeko tresnak nola erabili erakutsiz bideratu nahi dute bakerako hezkuntza.

Bestetik, zenbait erakundek giza eskubideetan oinarrituta egiten dute bakearen aldeko lana; esaterako, *Asociación Vasca de Derechos Humanos*, *UNESCO Etxea* (kulturaren eta hezkuntzaren alorrean), *Comité UNICEF-País Vasco* (umeentzako arretaren alorrean), *Movimiento contra la intolerancia eta Jóvenes por la paz* taldeek.

UNESCO Etxeak Bakerako Hezkuntzarekin lotutako bi proiektu sustatzen ditu. Batetik, *Lingua-pax* proiektua, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza/ikaskuntza eta nazioarteko ulermena eta elkartasuna lortzeko proposamena; hain zuzen, helburu hori lortzeko, *Bakegintzan* izeneko material didaktikoa sortu dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle eta irakasleentzat, elkarren mendekotasuna, lankidetzat, munduko gatazkak eta beste zenbait gai lantzeko. Gainera, prestakuntza lantegiak ere sustatzen ditu, eta bertan metodologia sozio-afektiboa lantzen dute. Era berean, Euskadin nazioarteko sarearen barnean dauden UNESCOko eskola elkartuak koordinatzeaz arduratzen da. Hezkuntza programa hori orain dela 50 urte sortu zen eskolako hezkuntzaren bidez lankidetzat eta bakea sustatzeko. Gaur egun, programa horren baitan mundu guztiko 7.000 ikastetxe inguru daude.

ELKARRI elkarriketaren eta akordioaren aldeko Euskal Herriko gizarte mugimendu bat da. 1992an sortu zen, euskal gatazkari irtenbide baketsua eta elkarriketatuak ematea defendatzeko eta bultzatzeko asmoz. Erakunde independentea eta plurala da, 3.000 bazkide inguruz osatua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herri eta auzoetan 100 lantegi inguru ditu. Bakearen ikuspegi hau dute abiapuntutzat: bakea ez dute gertaera puntual eta estatikotzat hartzen, ezta formula magikotzat ere, baizik eta dinamikotzat; bakea prozesu eraikitzailea da, eta prozesu hori nazioarteko zuzenbidearen, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko itunen erreferentzia markoaren baitan kokatzen dute. Bake prozesua eta irtenbide eta normalizazio politikoak garatzen eta oinarritzen lagundu nahi du. Zehazki esanda, askoren arteko elkarriketak bultzatzen eta babesten ditu, printzipio eta prozedurei buruz alderdien artean akordioak bilatzeko. 2001. urte osoan zehar, Elkarrik Bake Konferentzia bultzatu zuen.

Bakea Orain ere 1992an sortu zen. Erakunde bakezale horren helburua «indarkeria politikoaren amaiera bizkortzea» da. Horien ustez, horretarako bide eraginkorra euskal herritarrek indarkeriaren aurkako borrokan aktiboki lan egitea litzateke; ez uztea lan hori, ordura arte bezala, politikarien eta polizien esku; eta ez onartzea, etsi-etsian, indarkeria horrek dakartzan sufrimendu eta heriotza gero eta handiagoak eta ugariagoak. Elkarriketa soziala sustatu nahi dute, hori jotzen baitute bakea lortzeko bide eraginkorrena, baina, horretarako, ezinbestekoa da indarkeria gaitzestea, eta elkarriketa hori askatasunean eta itxuralda dezakeen elementurik gabe egitea.

1997tik aurrera, hainbat foro sortu ziren: *Ermuko Foroa* (abertzaleak ez diren talde politikoekin lotua), *El Salvador Foroa* (erlijio ingurunearekin lotua) eta *Foro por la libertad* (intelektualekin eta unibertsitate ingurunearekin lotua). Foro horiek ez dute onartzen nazionalismoaren ezarpenarekin lotutako inolako konponbiderik, ezta elkarriketarik ere, Konstituzioan eta Gernikako Estatutuan lortutako oinarritzko adostasunak aintzat hartuta abiatzen ez bada. Izan ere, horien ustez, Konstituzioak eta Gernikako Estatuak bermatu dute Estatuko nahiz autonomia erkidegoetako erakunde demokratikoen sorrera.

Terrorismoaren biktimen inguruan sortutako elkarteek eta fundazioek, ñabardura desberdinekin bada ere, egin zaien kaltea konpontzeko eskatzen dute. Horretarako, nahitaezkoz jotzen dute justiziak kalte hori eragin dutenak zigortzea eta ETA eta haren laguntzaileak desagertzea; bestela, kaltearen ordaina ez da erabatekoa izango.

Plataforma por la libertad zenbait talde eta pertsona (batez ere, abertzaleak ez diren politikariak, unibertsitateko irakasleak, kazetariak) jasaten ari diren jazarpen indarkeriari erantzuteko sortu zen; izan ere, pertsona horiek, iritzi askatasunik ez edukitzeaz gainera, bizitza bera dute arriskuan. Plataforma horren barruan *Asociación Víctimas del Terrorismo*, *Ermuko Foroa*, *El Salvador Foroa*, *Movimiento contra la intolerancia eta Asociación por la tolerancia* daude. Plataforma horrek, «erabakitzeko euskal esparruaren» eskakizunari aurre eginez, «askatasunerako espainiar esparrua» aldarrikatzen du. Esparru hori «hain larria den erabaki horretan espainiar guztiek iritzia emateko eta esku hartzeko duten eskubidean oinarritzen da. Horien ustez, eskubide hori erabiltzeaz gain, inplikatzeko eta mobilizatzeak ere nahitaezkoa da terrorismoaren amesgaiztoa eta horren zilegitasuna amaitzeak lortzeko, ez baita sinestekoa Europar Batasuneko herrialde batean zilegitasun hori izatea».

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Bakerako heziketari buruzko euskal liburua izeneko bi liburuki argitaratu ditu. Lehenengo liburukia 1997an argitaratu zen, eta, bertan, bakerako hezkuntza aisialdiko hezkuntzaren esparrutik jorratzen da; bigarren liburukian –1999an argitaratua–, ikuspegi antimilitarista ematen da bakerako hezkuntzari buruz.

Ezin aipatu gabe utzi 1998tik aurrera *Gasteizko Udalak* antolatutako bakerako hezkuntzaren jardunaldiak.

1997-98 ikasturtean, Lehendakariaren ekimenez, garai hartan zeuden erakunde bakezaleek *Educación para la Paz en Euskal Herria* izeneko dokumentua egin zuten. Bertan, bakerako hezkuntzari buruzko planteamenduak biltzeaz gain, hori sustatzeko proposamenak aurkezten zitzaizkien zenbait erakunderi; batik bat, ikastetxeei.

Hezkuntzaren eremutik ere ekimen asko jarri dira abian.

Honela dio 1993ko otsaileko Euskal Eskola Publikoaren Legeak, helburuei buruz ari dela: «Elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten balioetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela». (3,2 b atala)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 1992an argitaratutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Diseinuan, «Giza Eskubideetarako eta Bakerako Hezkuntza» izeneko zehar lerroko programa bat proposatu zuen.

2000ko maiatzean, sail horrek berak 2000-2003 urteetarako Hezkuntza Berriztapenerako programak aurkeztu zituen, eta, bertan, alor horretako lehentasunak adierazi zituen. Horien artean dago bizikidetzarako hezkuntzako programa. Bertan, ikastetxeetan bizikidetzarako hezkuntza sustatzeko proposatutako oinarritzko ildoak zehazten dira. Gaur egungo egoeraren diagnosis egin ondoren, bost jarduera ildo zehazten dira: 1. Bizikidetzak kultura berri baten sustapena; 2. Ikastetxeetako bizikidetzaren kudeaketa; 3. Ikasgelako bizikidetzaren kudeaketa; 4. Portaera desegokiak hobetzea eta kontrolatzea, eta gatazka egoerak gainditzea; 5. Bizikidetzarako oinarritzko balioetan hezteak. Jarduera ildo horietako bakoitzean, hainbat eremutan aurrera eramango diren ekintzak aipatzen dira: irakasleen prestakuntza, hezkuntza berriztapena eta esperimentazioa, ikastetxeen antolaketa, baliabide didaktikoak eta informazioa. 2001eko apirilean, bizikidetzarako hezkuntzaren I. Kongresua antolatu zen.

Programa hori abian jartzearen ondorioz, Berritzeguneetako (Prestakuntzan eta hezkuntzaren berriztapenean laguntzeko zentroak) zonaldeko laguntza zerbitzuetan, bi figura nagusi sortu ziren. Batetik, bizikidetzak eta aniztasunaren arduraduna (EAEko lurralde bakoitzeko bat); horren egitekoa dagokion lu-

rraldeko ekintzak eta laguntzak koordinatzea da. Bestetik, bizikidetzarako eta aniztasunerako aholkularia (20 Berritzeguneetako bakoitzean bat), ikastetxeek bizikidetza eta aniztasunarekin lotutako egitasmoak egin ditzaten laguntzeko eta aholkatzeko. Gainera, irakasleen prestakuntza plana egin da, eta esperimentazio eta berriztapen proiektuen lehentasunak finkatu dira. 2002-03 ikasturtean, bizikidetzarako hezkuntzarekin lotutako 38 ikastetxe proiektu onartu eta babestu dira –bai laguntza ekonomikoa emanez, bai aholkularitza emanez–, irakasleen prestakuntzarako nahiz hezkuntza berriztapenerako. Proiektu horietako batzuk «berriztapen» hartu dira, kalitate handia izateaz gain, antzeko arazo eta helburuak dituzten beste ikastetxe batzuentzat eredu izan daitezkeelako.

Ikastolen Federazioa, Xesús Jaresen aholkularitzaren bidez, bakerako hezkuntzako egitasmo bat ari da sustatzen ikastola guztietan.

Erlijosoen ikastetxeetan ere ari dira proiektuak aurrera eramaten; horretarako, Hezkuntza Sailaren eta beren aholkularien laguntza dute.

Hezkuntza arautu gabearen alorrean, Bizkaiko Elizak sustatutako *EDE Fundazioa* (1975/76 ikasturtean sortua) hezkuntza arautu gabean lanean diharduten hezitzaileen prestakuntzaz arduratzen da; horrez gainera, ikastetxeetarako zerbitzuak ematen ditu eta programak bultzatzen ditu. EDEren barruan, AHIMSA LAN TALDEA-Educación y no violencia de EDE lan taldea sortu da. Lan talde horrek hezitzaileei gai hauetarako laguntzak eskaintzen dizkie: gatazkaren ahalmen sortzailea lantzeko, indarkeriarik ezerako, lankidetza jolaserako eta familia eremuko bakerako hezkuntzarako.

**Bizikidetza eta bakerako
hezkuntzari buruzko azterketa
Euskal Autonomia Erkidegoko
ikastetxeetan**

B I G A R R E N Z A T I A

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako bizikidetza

5

Ikastetxeetan, elkarrekin bizitzeaz gain, bizikide izaten ere ikasten da. Bertan, pertsona desberdinak etengabe daude elkarrekin harremanetan, familiaren berezko lotura afektiborik gabe. Pertsona horiek esperientzia eta helburu desberdinak dituzte, baina interes komun berak eta egiteko kolektibo bera; eta horixe da, hain zuzen ere, haien lokarria. Askotariko elementuen eragina izan dezakeen eremu irekia da, baina kontrolatua, eta, bertan, irakasleen eginkizuna pertsonak zaintzea, bizikidetza ona izateko neurri prebentiboak eta zuzentzaileak ezartzea, eta balio eta portaera egokiak bermatzea da.

Ikastetxeko komunitateko kide guztien portaera aztertuz, hainbat gauza jakin daitezke ikastetxeko bizikidetzari buruz: bizikidetza ona izateko beharrezkoak diren ohiturak eta trebetasun sozialak zenbateraino garatu diren, horiek barneratzeko baldintza egokiak dauden, eta egiten den lana nahikoa ote den hezkuntza komunitateko kide guztiek elkarrekin bizitzen ikasteko. Hori da ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko lehen diagnostikoa.

Azterketa honetako lehen atalean gai hauek landuko dira:

- 5.1. EAEko ikastetxeetako eskola giroa.
- 5.2. Portaera desegokiak ikastetxeko bizikidetzan.
- 5.3. Ikastetxeetako bizikidetzaren sustapena.
- 5.4. EAEko ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ondorioak.

5.1. EAEko ikastetxeetako eskola giroa

Ikastetxe eta ikasgela bakoitzean sortzen den giro instituzionalak bizikidetza zaildu edo erraztu egiten du. Giro hori nolakoa den baloratzeko, bertako kideen arteko harremanen kalitatea, haien onarpen eta baztertzeko sentipenak eta ikastetxeko lanekiko duten asebetetze maila aztertu behar dira. Eskola giroa barne antolaketaren eta barne egituren ondorioa da; horiexek bideratzen dituzte kideen arteko harremanak eta horien kultura kolektiboarenak (kultura bera baitute portaerak ulertzeko eta baloratzeko). Ikastetxean giro egokia izateak ongizate kolektibo eta pertsonala sustatzen du, bizikidetza errazten du, eta baliuzko gatazkei baldintza egokiagoetan heltzeko aukera ematen du. Ikastetxearen kalitate adierazleetako bat da, eta eragin handia dauka bertako irakaskuntzaren kalitatean. Ama batek hauxe dio: «Frogatuta dago

irakasleen, gurasoen eta ikasleen artean harmonia ona izanez gero, ikastetxe, ikastola edo institutuak ondo funtzionatzeko duela».


5.1.1. Ikastetxeetako harremanak

Ikastetxe baten barruko harremanak era askotakoak dira: adin berekoak diren arren (haur, nerabe nahiz helduak izan), familia jatorri eta gizarte jatorri desberdinak dituztenen artekoak; adin desberdina eta funtzio eta ardura desberdinak dituzten pertsonen artekoak...

Ikastetxeetako harremanak onak dira. 1. grafikoa ikusten den moduan, irakasleek, 1etik 4rako eskalan, 3 eta 3,5 puntu eman dizkiete aztertutako harremanei; ikasleek batez besteko puntu horiek baino gutxiago ematen dizkiete zuzendaritzarekin eta irakasleekin dituzten harremanei. Oro har, ikasleek zer-txobait okerrago baloratzen dituzte erlazioak, beren taldearen barrukoak izan ezik.

Hauek dira ikastetxeko komunitatearen barneko harremanen batez besteko balorazioak, 1etik (txarrak edo oso txarrak) 4rako (onak edo oso onak) eskalan:

1. grafikoa
Ikastetxeko harremanak




Gurasoek ere haien seme-alabak eskolatuta dauden ikastetxeetako giroa positiboa dela deritzote: 0tik 10erako eskalan, lehen hezkuntzan 7,7 puntu ematen diote; bigarren hezkuntzan, berriz, 7,2.

Lehen hezkuntzako harremanak bigarren hezkuntzakoak baino hobeak dira. Harremanek okerre-
ra egitea ulertzeko –alde batera utzita arrazoi pertsonalak eta egoera zehatzetakoak, nahiz hezkuntza eta-
pa horretan agerian jartzen diren aldaketa sozial sakonei lotutako arrazoiak–, adin horren ezaugarriak
hartu behar dira kontuan, bai eta garai horretan eskola eskakizunak handitu egiten direla ere; batik bat,
Derrigorrezko bigarren hezkuntza 16 urtera arte luzatu izanaren ondorioz. Beraz, ikasleekiko harremanak
okerrera egiteak berekin ekarri du irakasleek zuzendaritzarekin eta gurasoekin ere harreman okerragoak
izatea.

Aldagai sozioekonomikoak ere eragiten du ikastetxe barneko harremanetan. Ikasleen maila sozioekonomikoa altuagoa den ikastetxeetan, harremanak hobeto balioetsi dituzte bi etapetan.

2. grafikoa

Irakasleek egindako harremanen balorazioa, ikasleen maila sozioekonomikoaren arabera



Ikastetxeko hezkuntzak hobeto erantzuten die ikasle horien helburuei, eta, hori dela eta, horiek beste zenbait gizarte talde baino errazago egokitzen dira ikastetxeko arauetara. Esan liteke irakasleen kultura eta horiek harremanak ulertzeko modua bat datorrela maila sozioekonomiko altua duten taldeen kultura nagusiarekin; horren ondorioz, gizarte maila horietatik datozen ikasleentzat askoz ere ohikoagoa da ikastetxeetan harremanak izateko modu hori.

Bigarren hezkuntzan, ikastetxe pribatueta publikoetan baino harreman hobeak daudela agertzen da hiru taldeetan. Desberdintasun horren arrazoietako bat ikasleen gizarte mailak desberdinak izatea izan daiteke; hala ere, horrez gainera, kontuan hartu behar da bi ikastetxe motetan antolatze eta funtzionatzeko moduak desberdinak direla, eta beren kulturen balio desberdinak dituztela.


Neskek mutilek baino balorazio hobeak egiten dute ikastetxeko harremanez. Neskak askoz ere harberagoak izaten dira, eta errazago barneratzen dituzte proposatzen zaizkien bizikidetza arauak.

5.1.2. Ikastetxeetako gatazkak

Ikastetxe bateko giroa ikusteko eta aztertzeko beste modu bat ikastetxeko bizikidetza arriskuan jarritzen duten edo bizikidetza hori eteten duten gertaerak eta egoerak ezagutzea eta baloratzea da; hau da, ikastetxeetan gertatzen diren gatazkak eta diziplinarik gabeko egoerak –batzuetan, baita indarkeriazkoak ere–. Sarritan, bi horiek (gatazka eta diziplina eza) sinonimotzat hartzen dira, nahiz eta izatez bi kontzeptu oso desberdin izan eta errealitate arras desberdinak islatu. Kontzeptuzko desberdintasun hori gorabehera, ez da izaten hain erraza ikastetxeko bizitzako zenbait unetan gatazka eta diziplinarik eza bereiztea; izan ere, maiz lotuta egoten dira biak.

3. grafikoa

Gatazkaren balorazioa



Pertsonak edo taldeak interes, behar eta iritzi bateraezinak dituztela uste dutenean sortzen da gatazka. Gatazkak ezegonkortasuna esan nahi du, eta ezinegon sortzen du, baina aurrera egiteko eta loturretan sakontzeko aukera ere ematen du. Aitzitik, gatazkarik eza lasaigarri jotzen da, harremanak sendotu diren seinale; baina konformismoak eragina ere izan daiteke: «statu quo» berari eusten zaio, taldeak aurrera egiteko gaitasunik ez duelako.

Ondoko grafikoa azaltzen den moduan, hezkuntza komunitateko gehienek (Lehen Hezkuntzako irakasleen %80,1ek eta ikasleen %43,6k) gatazkak ez dituzte ez positibotzat, ez negatibotzat hartzen.

Talde edo kolektibo guztietan, gatazkari buruzko ikuspegi positiboa, gehienez, %5ek dute. Inkestatuen %25en iritziz, gatazkak, hasieran behintzat, ñabardura negatiboa du, nahiz eta luzera onuragarria izan daitekeela onartu. Lehen hezkuntzako irakasleak dira baikorrenak (%16,8k soilik hartzen dute gatazka negatibotzat). Ezkorrenak, berriz, ikasleak dira (%50,4k negatiboa dela diote).

Aztertutako aldagai guztien artean, ez dago desberdintasun esanguratsurik bost taldeen artean.

Onartu beharra dago gatazkak baloratzeko modu horrek kultura aurrerapen handia agertzen duela. Irakasle batek honela azaltzen du: «Gatazkak arazoren bat dagoela esan nahi du. Bizitzak irakatsi egiten du, eta gatazkek, bizitzaren parte direnez, irakatsi egiten dizute. Gatazka bat sortzen zaidanean, ez naiz jartzen pentsatzen ondo etorriko zaidan, edo ona ala txarra izango ote den. Agian, urte batzuk igaro ostean, horri buruz hausnartzen hasi, eta ohartzen zara helduago izateko edo beste gatazka batzuei hobeto aurre egiteko balio izan dizula».

Gatazkei modu egokian aurre egiteko gai baldin bazara, gatazkek ikasteko, aurrera egiteko eta hobetzeko aukera ematen dizute; horretarako, ordea, baldintza batzuk behar dira. Irakasle batek denbora aldagaiaren garrantzia nabarmendu du; izan ere, ikastetxeko gatazkei erantzuteko orduan, denborak lehenetasunak ezarri eta hori lantzeko ordena ezartzen du. Haatik, guztiak ez daude prest faktore hori aintzat hartzeko: «Gatazka guztiak 'onak' direla esan dezakegu; betiere, gatazkak konpontzeko denbora ematen baduzu. Gatazka, bere horretan, buru eragilea dela esan genezake: pentsarazi egiten dizu, eta hausnartzerara bultzatzen zaitu. Hala ere, zenbait gatazka unean bertan konpondu behar dira. Eta horietatik dira gatazkarik zailenak. Guztiak dabilta beren arazoak konpondu nahian. Lehenetasunak ezarri behar dira».

Ikasleek dute ikastetxeko gatazkei buruzko ikuspegi negatiboa. Agian, gatazka horiek konpontzeko ez zaiela entzuten sumatuko dute; ez direla batzuen nahiz besteen arazoak aintzat hartzen, eta irakasleen aginduak direla beti nagusi; eta ez dela irtenbide hitzarturik bilatzen, talde guztien arazoak eta interesak kontuan ahalik eta gehien hartuta. Ikasle batek egindako eskaera guztiz logikoak da, baina, era berean, agerian uzten du ikastetxean gatazkaren bat gertatzen denean ikaslearen ustez eskaera hori ez dela beti kontuan hartzen: «Gatazkak konpontzeko guztien iritzia hartu behar da kontuan. Hitz egin behar da, eztabaidatu, konponbideak bilatu... eta, ondoren, gauzatu». Gatazkak modu positiboan jorratzeko, ezinbestekoak dira zenbait estrategia: gatazka aztertzen eta erabakiak hartzen parte hartzeko estrategiak, hain zuzen ere. Horrela ez bada, konponbideak bilatu beharrean, protesta bat isilarazteko edo gatazkaren sustraiari ez heltzeko moduak bilatzen direla pentsa liteke.

Gatazka egoeretan, aurrez aurre dauden alderdiek, jarrera irekia izateaz gain, elkar errespetatu behar dute. Zenbaitetan, irakasleek pentsa dezakete ikasleek helburu zuzenak onartzea beren autoritatearen kalterako izango dela; izan ere, autoritate hori beste arazoak batzuegatik dagoeneko nahiko murriztuta dagoela uste dute. Ikasleek sarritan ez dute ez entzun, ez arazoitu nahi izaten. Horrela onartzen du ikasle batek: «Ikasleak uste du beti berak duela arazoa, eta, horren ondorioz, zenbaitetan itsutu egiten da. Uste du begitan hartuta dutela, bere aurka daudela. Irakasleek, berriz, uste dute nahi dutena egin dezaketela, gelako jaun eta jabe direla. Bi aldeetarik inork ez du amore eman nahi».

Gatazkak ez dira borondate onez soilik konpontzen. Zenbait jokaera eredu eta gaitasun ezagutu eta aplikatzen jakin behar da. Irakasleek onartzen dute prestakuntza handiagoa behar dutela ikastetxeko gatazkak behar bezala jorratzeko. Eta egun ez dute gai horri buruzko inolako prestakuntzarik jasotzen.

Ikasleek ustez, ikastetxeko gatazkarik gehienak ikasle taldearen barnean gertatzen dira, eta, ondoren, baina askoz ere gutxiago, irakasleek eta ikasleek arteko harremanetan. Gatazkak eragiten dituzten arazoak buruz galdetuta, aipatuenak ikastetxeko arauak buruzko desadostasuna, suntsiketak, diskriminazioak eta iritzi desberdintasunak dira.

1. taula

Ikastetxeetako gatazkarik ohikoenak, ikasleen arabera

Gatazkak (subjektuak)	%	Gatazkak (arrazoiak)	%
Talde barneko gatazkak	36,3	Desadostasuna eskola antolaketari buruz	11,7
Ikasle-irakasle arteko harremanak	17,5	Suntsiketak	9,7
		Diskriminazioak	7,7
		Iritzi desberdintasunak	5,1

Talde barneko gatazka gehiago egoten dira ikastetxe pribatuetan, A eremuan, maila sozioekonomiko ertaina eta ertain-baxua duten ikastetxeetan. Irakasle eta ikasle arteko gatazka gehiago gertatzen dira ikastetxe pribatuetan, B eremuan eta gizarte maila ertain-altua dutenetan.

Arauekin ados ez egoteagatik sortutako gatazkak ohikoagoak dira B eta D eremuan. Zerbait suntsitzeagatik gertatutakoak askoz ere ohikoagoak dira ikastetxe publikoetan eta gizarte maila ertain-baxua dutenetan. Diskriminazioagatik gertatzen diren gatazkak ugariagoak dira A eremuan. Eta iritzi desberdintasunagatik gatazkak gehiago gertatzen dira ikastetxe publikoetan eta maila ertain-altua dutenetan.

5.1.3. Ikastetxeetako diziplinarik eza eta indarkeria egoerak

Diziplinarik eza diogunean, arauekin bat ez datozen portaerak adierazi nahi dira, bai eta ahalegirik eza, ahalik eta lanik gutxiena egitea eta ikastetxeko nahiz ikasgelako jarduna oztokatzen duten portaerak ere. Indarkeria egoerak, berriz, norbaiti min ematearekin lotuta daude: erasoak, suntsiketak, mehatxuak, hertsapenak... Sarritan, diziplinarik gabeko egoera arazotsuei –larriak direnean edo sarritan gertatzen direnean, batez ere– ikastetxeko gatazka ere deitzen zaie, nahiz eta, berez, ez izan ikastetxeko gatazka. Azken batean, jorratu gabeko eta konpondu gabeko gatazka baten adierazle dira, ikastetxeko lanarekiko arbuioa adierazteko modu bat, edota bidegabetzat jotzen den arau edo erabaki batetik desadostasuna adierazteko era.

Diziplinarik eza ikastetxeko bizikidetza normalaren parametroen barruan sartzen da. Baina arazo bihurtzen dira, diziplinarik gabeko egoerak maiz gertatzen badira, eta horren ondorioz pertsonen arteko harremanak okertu eta ikastetxeko eginbeharrari larriki eragiten badiote. Aitzitik, indarkeriak bere baitan du adiera negatiboa.


Irakasleen arabera, ez da hain ohikoa ikasgelan diziplinarik ez egotea. Lehen hezkuntzan, 1etik (in-oiz ez) 4rako (askotan) eskalan, batez bestekoa 1,5 puntu dira, eta bigarren hezkuntzan, 1,9. Gurasoek, berriz, halako egoerak ohi samar gertatzen direla uste dute: 2,4 puntu eman diote lehen hezkuntzan, eta 2,5 bigarren hezkuntzan.

Askoz ere ohikoagoa da ikastetxeko diziplinarik eza. Aipatutako eskalan, lehen hezkuntzako irakasleek 1,9 puntu eman diote, eta bigarren hezkuntzakoek 2,2. Honetan ere gurasoek irakasleek baino iritzi okerragoa dute: lehen hezkuntzan 2,5 puntu, eta bigarren hezkuntzan 2,6.

Ikastetxean indarkeria egoeraren bat gertatzea ez da batere ohikoa, eta are gutxiago ikasgelan: 1etik 4rako eskalan, gurasoek nahiz irakasleek 1,3-1,4 bitarteko batez besteko balioa eman diote ikasgelan gertatzen diren indarkeria egoerei; eta 1,4-1,8 bitartekoa ikastetxean gertatzen direnei.

4. grafikoa

Diziplinarik eza eta indarkeria ikastetxean eta ikasgelan



Egoera horiek ohikoagoak dira bigarren hezkuntzan lehen hezkuntza baino, eta ez da harritzekoa; batak bat, adina eta etapan artean dagoen desberdintasuna kontuan hartzen baditugu. Deigarriagoa da irakasleek eta gurasoek gai horri buruz duten pertzepzio desberdintasuna: egoera horiek irakasleek «sufritzen» dituzten arren, gurasoek agertzen dute kezkarik handiena. Ikasgelako eta ikastetxeko egoeren artean dagoen aldeak garbi uzten du ikasgelaren barnean irakaslea egoteak murriztu egiten duela indarkeria edo diziplinarik gabeko jokabideak agertzeko aukera; aitzitik, irakaslearen presentzia hain handia edo hain agerikoa ez den lekuetan (komunean, korridorean, jolastokian...), horrelako jokaerak gehiagotan gertatzen dira.

Lehen hezkuntzan, ikastetxe pribatuetakoa irakasleek ikastetxeko diziplinarik eza eta indarkeria egoerak nabarmendu dituzte. Eskuarki, ikastetxean eta ikasgelan diziplinarik eza eta indarkeria egoerak gertatzea ohikoagoa da, irakasleen eta gurasoen ustez, A eta B ereduetan. Gizarte maila ertaineko eta ertainbaxuko ikastetxeetako irakasleek ere azpimarratu dute; baina, gurasoei dagokienez, gizarte maila ertaineko ikastetxeetakoek soilik nabarmendu dute.

Bigarren hezkuntzan, diziplinarik gabeko egoerak honako hauek nabarmendu dituzte: ikastetxe publikoetako irakasleek, gizarte maila ertain eta ertain-altukoak direnek. Gurasoei dagokienez, ikastetxe pribatuetakoa, A ereduak eta gizarte maila ertainekoak direnek azpimarratu dituzte.

Desberdintasun horiek direla eta, pentsa liteke egoera bati buruz dagoen pertzepzioa tolerantzia mailaren arabera dela, eta hori, aldi berean, itxaropenekin edo aurretik izandako esperientziarekin dago lotuta. Desberdintasun horiek berriz ere agertzen dira, diziplinarik eza eta indarkeria areagotu egin diren galdetzean.


Diziplinarik gabeko egoera larrienak ikasle edo talde jakin batzuen ondorioz gertatzen dira. Hone-ladira irakasle batek: «Arazoak ikasle gutxi batzuek, oso talde txikiek, eragiten dituzte...» Beste irakasle batek uste du ikasle gehienak oso onak direla, baina gutxi batzuek irakaslea eta ikasgela osoa muga-mugako egoeretara eramane dezaketela: «Ikasgela bateko ikasleei begiratzen diedanean, pentsatzen dut «gehienak zoragarriak dira eta!». Gehienak horrelakoak dira, eguna alaitzen dizute. Baina gutxi batzuk ezin dituzu kontrolatu, molestatzen aritzen zaizkizu, eta ez dute uzten klaserik ematen».

Aurreko datuak kontuan hartuta, esan daiteke harremanak onak direla eta, eskuarki, diziplinarik gabeko egoerak ez direla onar daitekeen mugatik haragokoak; baina, hala ere, irakasleek uste dute diziplinarik eza asko ugaritu dela, eta indarkeria ere nahikoa.

Irakasleek diziplinarik eza izugarri ugaritu dela uste dute, bai lehen hezkuntzan (4,1), bai bigarren hezkuntzan (4,2). Indarkeria, berriz, zertxobait gutxiago; horrela baloratu dute: 3,8 lehen hezkuntzan, eta 3,7 bigarren hezkuntzan. Bi etapetan desberdintasun nabarmenak gertatzen dira, baina portaera horiek gehienbat ikastetxe publikoetan, Gipuzkoan eta D ereduan ugaritu dira.


5. grafikoa

Diziplinarik eza areagotzeari buruzko pertzepzioa



6. grafikoa

Indarkeria areagotzeari buruzko pertzepzioa



Indarkeria eta diziplinarik eza areagotu izanaren uste hori, ordea, ez dute irakasle guztiek: «Nik adin hori nuenean, gaur egun baino arazo gehiago zeuden. Ikasleen eta irakasleen arteko harremanak gaur egungoak baino askoz ere okerragoak ziren; egoera politikoaren eraginez, agian. Lapurretak, borroak... orain baino gehiagotan gertatzen ziren. Garai hartan, 70eko hamarkadari buruz ari naiz, heroina asko salerosten zen, eta 16 urteko gazteak heroinaren mendean erorita zeuden». Hala ere, guztiak bat datoz jarrera aldaketak gertatu direla esatean; gainera, askotan, jarrera horiek oso mingarriak dira irakaslearentzat, eta iraintzat ere har ditzake. «Nire ustez, orain garai batean baino portaera desagoki gutxiago daude, baina diziplinarik eza beste modu batera agertzen da. Garai batean, ikaslea ez zen gai irakasleari esateko ‘zuk ezin didazu ezer egin’, ‘salaketa jarriko dizut’ edo ‘badakit zer auto duzun’. Gaur egun, berriz, ikasleek ikasiak dituzte horrelako gauzak... Izatez, ez zaituzte iraintzen, baina aurre egiten dizute, mesprezuz...»

Ikasle taldeen gizarte osaeran gertatutako aldaketek eragin handia izan dute gaur egungo egoerari buruzko ikuspegi negatiboan; batez ere, egoera hori iraganarekin alderatzen denean. Hori dela eta, oso desberdinak diren bi taldek azpimarratu dute indarkeriaren eta diziplina ezaren areagotze hori: ikastetxe pribatuetakoen lehen hezkuntzako irakasleek (jaiotze tasaren jaitsieraren ondorioz, ikasleen gizarte egoera heterogeneoagoa delako) eta ikastetxe publikoetako bigarren hezkuntzako irakasleek (derrigorrezko eskolatze adina luzatu egin delako, eta, horren ondorioz, ikasketetan hainbesteko interesik ez duten gizarte taldeetako ikasleek eskolatuta jarraitu behar dutelako; beraz, ikasle horiek diziplinarik gabeko jarreraren bidez adierazten dute arbuioa).

Faktore hori azpimarratu du irakasle batek: «Beti egon dira arazoak. Orain, ordea, gazteek 16 urtera arte derrigorrean etorri behar dute eskolara, eta lehen ez. Lehen inork ez zituen ezagutzen arazodun ikasleak, desegituratutako familietakoak, ez baitzeuden ikastetxeetan». Ama batek iritzi hau nabarmendu du: «DBH sortzearekin, lehen hezkuntza sisteman ez zeuden ikasle askok gaur egun derrigorrean egon behar dute, eta horrek arazoak sortzen ditu. Horrek izugarritzko kaosa eragin du, eta bertan guztia da gatazka, eta hori gehiegizkoa da».

Hala ere, diziplinarik eza eta indarkeria ugaritu egin direlako pertzepzio hori oso antzekoa da Lehen eta bigarren hezkuntzan. Beraz, DBHko egoera berri hori ez da nahikoa jasotako datuen azalpena emateko. Logikoagoa dirudi gure gizarteko aldaketa kulturalak aipatzea, horiek baitira adin guztietako ikasleen jokamoldeak aldatu izanaren eragile. Ezin da aldaketa kulturei eta horiek ikasleen jarretan duten eraginari buruzko ikuspegi sinplista eta negatiboa eduki: irakasleek ez dute horrelako ikuspegi norberaren bizitza aztertzen dutenean; bai, ordea, haien lanbideari eragiten dienean. Hausnarketa hau egiten du irakasle batek: «Gazteek beren balioak dituzte. Guk, zenbaitetan, ez dakigu bereizten aldaketek izan dezaketen eragin positiboa, eta hasieran harrigarriak iruditzen zaizkigu... Onartu beharra dago dena aldatuz doala. Guk askoz ere hezkuntza zorrotzagoa izan dugu, eta, gauzak aldatzen direnean, hasieran, eskandalagarriak iruditzen zaizkigu; baina, gerora, onartu eta positiboak direla ere ikus dezakegu».

Ikastetxeetako egoera berri hori gehiegizkoa da beste baldintza batzuetan lan egitera ohitutako talde batzuentzat; hots, egoera horrek zenbait talderen tolerantzia muga gainditzen du. Esperientziaren arabera, eta arazo edo gatazka egoera bat ulertzeko eta kontrolatzeko norberak duen gaitasunaren arabera, egoera bera oso modu desberdinetara ulertzen du irakasle bakoitzak: «Irakasle batzuk ondo moldatzen diren egoeretan, beste zenbait irakasleek asko sufritzen dute, ez dira eroso sentitzen. Hori pertsona bakoitzaren arabera da. Horretan faktore askok eragiten dute. Irakasle batzuk erreta daude; eta ez haien egitekoan onak ez direlako, baizik eta une jakin batean ‘ikasgela honetan ez nago gustura’ diotelako».

Hedabideetan askotan azaltzen dira gizarte talde batzuen portaera alarmistak, eta horrek ugartu egiten du eskola arazoei buruzko pertzepzio sozial negatiboa. Horrela onartu du ama batek: «Ikas-

tetxeetan gertatzen dena asko puzten da. Kasu bat edo bi gertatu bezain laster, argitara ematen dira, eta horiek izaten dute oihartzunik handiena. Morboagatik da». Ikasle baten iritziz, jarrera horiek alde aurretik ondo pentsatuta daude: «Nik ez dut uste esaten duten adina arazo dagoenik. Baina institutu-ei eta institutuko arazoei buruz hitz egiten duten bitartean, ez dute hitzik egiten beste kontu batzuei buruz, ez baitaie komeni».

Eskuarki, ikaslea hartzen da diziplinarik eza areagotzearen erantzulezat, eta, ama batek dioen moduan, ahaztu egiten da ikastetxeko harremanak gure gizarte ereduaren ispilu direla: «Nik uste dut guztiok gaudela zertxobait harroago, eta harremanak izateko modua ere agresiboagoa da. Baina ez dut ikusten telebistan zenbaitetan aipatzen duten indarkeria mota hori. Horrelako egoerak oso gutxitan gertatzen dira, eta nik ez ditut inoiz ikusi. Indarkeria handiagoa ikusten dut harremanak izateko du-gun moduan. Ez dut uste indarkeria gehiago dagoenik lehen baino gaiztakeria eta asmo txar gehiago egotearen ondorioz». Zenbaitetan, gainera, ahaztu egiten da ikastetxeko diziplinarik eza eta indarke-ria gehienbat irakasleei eragiten dien harreman mota berriaren ondorio dela. Hala onartu du irakasle batek, honako hau esatean: «Garbi dago irakasleen eta ikasleen estatusa aldatu egin dela, eta neurri handi batean gizartearen demokratizazioak eragin du hori. Beraz, hori guztia dela eta, planteamendu berria egin beharrean gaude».

5.1.4. Ikastetxeetako diziplinarik ezari eta gatazkei heltzeko moduak

Gatazkei eta diziplina ezari heltzeko moduak aztertzea funtsezkoa da ikastetxeko bizikidetzan di-tuen ondorioak baloratzeko. Talde desberdinetan bildutako datuak ez dira elkarren artean konparagarri-ak, ez baita denetan sailkapen bera erabili, baina ondorio bat ateratzeko aukera ematen digute; hots, ikas-tetxeak, gatazkei eta diziplina ezari nahiz indarkeria egoerei aurre egiteko, egoera horiek kontrolatzen eta jarrerak aldatzen saiatzen dira, zigortzen baino gehiago.

2. taula

Ikasleen diziplina ezari eta gatazkei heltzeko moduak

Irakasleak	LH	DBH	Gurasoak	LH	DBH	Irakasleak	DBH
Elkarrizketa informalean bidez	12,5	14,7	Barne konponbideak bilatzen dira	69,1	45,3	Elkarrizketa	36,2
Talde eztabaiden bidez	45,5	27,3				Bitartekotza erabiltzen da	10,9
Egiturretan	11,4	16,8	Bitarteko batek laguntzen du	18,1	40,2	Beste norbaitek egiten du epaile lana	1,9
Araua aplikatuz	13,4	28,3	Askotan kanporatzen da	0,6	0,4	Erruduna zigortu egiten da	26,4
Ez da aintzat hartzen	1,-	1,9	Ez da aintzat hartzen	1,4	2,1	Ez da aintzat hartzen	10,7
Ed/Ede	16,4	7,3	Ed/Ede	10,8	11,9	Ed/Ede	13,9

Inkestatutako taldeen artean ez dago desberdintasun esanguratsurik.

Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkak konpontzeko (baita ikasleen artekoak ere), elkarrizketa eta hausnarketa mekanismoak erabiltzen dira: irakasle eta ikasle arteko elkarrizketak, portaerak larriak ez di-renean; talde-ikasgela osoaren bilerak, talde guztiari eragiten dioten portaerei buruz hausnartu nahi dene-an edo gatazka bat aztertu nahi denean; gatazkan parte hartzen duten pertsonen arteko bilerak, tutorea aurrean dagoela, eta, zenbaitetan, baita ikasgelako ordezkaria ere; gatazkak eragindako pertsonen artean gatazkaz kanpoko beste pertsona batek bitartekotza lanak egitea.

Amak irakasleen eta ikasleen arteko gatazketan irtenbide elkarrizketatua lortzearen aldekoak dira: «Elkarrizketa nahitaezkoa da. Bigarren hezkuntzako ikasleari ezin zaizkio gauzak inposatu, horien azalpenik eman gabe. Ikastetxean, ikasleak hasieratik bertatik aurka egiten du, baina irakasleak azalpenak ematen badizkio «begira, zenbait gauzatan ados jartzeko aukera dago, eta beste zenbaitetan ez» ikasleak ulertu eta onartu egiten du». «Beti jardun behar dugu azalpenak ematen, argudiatzen, hitz egiten eta elkarrizketan: guk, guraso garen neurrian; irakasleek irakasle diren neurrian; eta ikasleek ikasle diren neurrian». «Ikastetxe pribaturen batean arazoren bat baldin badago –gurearen, adibidez–, argitara atera ez dadin saiatzeko gara, eta zuzendariaren eta taldearen artean konpontzen da arazoa. Alde horretatik, ikastetxe publikoa irekiagoa da. Pribatua gatazka hori ez kaleratzeaz arduratzen da, inork ezer ez jakiteaz».

Irakasleen arteko gatazkak koordinazio egituretan (zikloko lan taldean, departamentuan, klaustroan) eta gatazkaren ondorioak pairatu dituztenen arteko bilera informaletan jorratzen dira. Eskuarki, helburua hitz egitea izaten da, baina zenbaitetan nahiago izaten da gatazkak saihestu. Oso gutxitan iristen dira hitzezko indarkeriara.

Ikasleen ustez, zigorra askotan erabiltzen da. Neurri zuzentzaileak beharrezkoak diren arren, beti pentsatu beharko litzateke ea prebentzio neurri egokiak hartzeak ez ote lukeen eragotziko gerora zuzendu beharreko portaera batzuk agertzea. Ekintzak larriagoak direnean, beste instantzia batzuetara jotzen da (zuzendaritza, bizikidetza batzordea edo eskola kontseilua), ikastetxeko araudian azaltzen diren zigorrak ezartzeko. Gurasoek onartzen dute ez dela ohikoa zigorrak larriena ezartzera iristea; hots, ikastetxetik kanporatzea. Baina ama batek hauxe dio: «Gorrito dut espedientearen kultura. Lotsagarriak dira zenbait ikasleri irekitzen zaizkien espedienteak. Gauza beragatik ikastetxe batzuetan ohartarazi bakarrik egiten zaituzte, eta beste batzuetan kaleratu».

Baieztapen horrek ez du beste hau baztertzen: gatazkak konpontzeko eta kontrolatzeko eta portaerak hobetzeko ikastetxeetan erabiltzen diren prozedurak eta bideak ez dira nahikoak eta hobe daitezke. Ikasleek uste dute ez zaiela entzuten, irtenbideak ez direla elkarrizketaren ondorio izaten, eta irakasleen aginpidea behar baino gehiago nagusitzen dela. Iruditzen zaie askotan arazoak erruduna bilatuz eta hari dagokion zigorra ezarri konpontzen direla. Ikasle batek bere esperientzia kontatu du: «Ni ikasgelako ordezkaria naiz, eta, arazoren bat egon denean, esan egin didate. Behin baino gehiagotan elkartu gara tutorea, arazoa izan duten ikaslea eta irakaslea, eta laurok. Beste zenbaitetan, tutorearengana joan naiz, eta gelakoak, tutorea eta arazoa izandako irakaslea elkartzeko eskatu diot. Jolas ordu askotan gelditu gara hitz egiten eta konponbidea bilatzen. Gehienetan, ez da ezer lortzen, baina saiatu, behintzat, egiten gara...».


Gatazkei aurre egiteko modua eta unea oso garrantzitsuak dira gatazkak konpontzeko; bestela, konpontzen oso zailak bihur daitezke. Horrela dio ama batek: «Zenbaitetan, egoerak okerrera egin baino lehen horri aurre egiteko gai ez garelako sortzen da gatazka. Arazo txikiren bat dagoela, haurrek zerbait kontatzen dutela, ohartzean, arazoaz jabetzen den lehenak, gurasoak nahiz irakasleak izan, arazoa konpontzen saiatu behar du. Denbora igarotzen uzten bada, elurrezko bolak bezala handitzen da, eta oso zaila izaten da gelditzen. Orduan guztiek defentsa jarrera hartzen dute. Hasieratik heltzen badiozu, ordea, bideratu eta hobeto konpon dezakezu».

5.1.5. *Ikasleen sentipenak ikastetxeetan*

Ikasleek ikastetxeetan dituzten sentipenek eskolako giroa neurtzeko aukera ematen dute; horien termometroak direla esan daiteke. Bigarren hezkuntzako ikasle gehienek irakasleek nahiz ikasleek ondo balioesten dituztela sentitzen dute; hala ere, gutxiengo bat baztertuta sentitzen da.


Ikastetxe pribatuetan askoz ere nabarmenagoak dira bai balioespen sentipenak, bai bazterketa sentipenak. Balorazio hobeak egiten dira A erudian, eta bazterketa gehiago B eta D ereduetan.

7. grafikoa
Ikasleen sentipenak



Hala ere, bigarren hezkuntzako ikasle askok zenbait egoeraren beldur direla aitortu dute: irakasleek galderak egiteari eta irakasleek nahiz ikasleek gainerakoen aurrean barregarri uzteari diote beldur gehien; gutxiago ikaskideen erasoei, eta are gutxiago irakasleen erasoei.

8. grafikoa
Ikasleak zertan diren ikaskideen eta irakasleen beldur



Ikasleen artean, ikastetxe pribatuetakoak eta bi ikastetxe sareetako neskak dira ikastetxeko harremanekiko poztasun maila handiena dutenak, baina, aldi berean, beldur gehiago ere badituzte.

Bigarren hezkuntzako ikasle askok diote beldurra «irakasleek galderak egiteari», eta horren arrazoiak oso desberdinak izan daitezke: batzuk beldur dira, eskolak gero eta gehiago eskatzen diela eta, zailtasunak dituztela sentitzen dutelako, eta, beste batzuk, berriz, ikasketetan oso axolagabeak direlako. Beste batzuetan, gerta daiteke irakasleek «barregarri uzteko» beldurra ere edukitzea; izan ere, irakasleak zenbaitetan horrela saiatzen dira ikasleak motibatzen, kontuan hartu gabe errespetu falta dela eta errespetu hori pertsona guztiei zor zaiela, baita ikasketa maila jakin bat lortzen ez dutenei ere.

Ikaskideen artean barregarri geratzearen beldur izateak pertsonen arteko harremanak baldintzatzen ditu. Egiaztatuta dago –eta hurrengo atalean aztertuko da xehetasun handiagoz– akatsen bat duten ikasleekin edo ikasgelan esperotako arrakastarik lortzen ez dutenekin oso anker jotzen dutela neska-mutilek.

5.2. Portaera desagokiak ikastetxeko bizikidetzan


Komeni da harremanei negatiboki eragiten dieten ohiko portaera desagokiak eta baztertzailak zein diren jakitea. Iritziek, errealitatea baino gehiago, pertzepzioak uzten dituzte agerian, eta horiek bakoitzak normalizat edo onargarritzat duenaren arabera dira.

5.2.1. Ikasleen arteko portaera desagokiak

Lehen hezkuntzan, ohikoa da ikasleek ikaskideak iraintzea, kontuan ez hartzea eta horiei ikasgelan traba egitea. Gutxiago dira ikaskideekin borrokan egiten dutenak eta ikaskideak mehatxatzen dituztenak. Gutxi batzuek gauzak lapurtzen edo puskatzen dituzte. Oso gutxi egiten dituzte nolabaiteko sexu jazarpenak. Irakasleak eta gurasoak bat datoz balorazioetan, baina gurasoek seme-alaben jokabideei buruzko ikuspegi positiboagoa dute. 9. grafikoan, zenbait portaeraren maiztasuna azaltzen da, 1etik (batere ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan.

9. grafikoa

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek dituzten portaera desagokiaren maiztasuna




Aldagairik aipagarriena gizarte maila da: ikasleen arteko portaera negatiboak maizago gertatzen dira gizarte maila ertain-baxuko ikastetxeetan, eta, gutxiagotan bada ere, gizarte maila ertaineko ikastetxeetan. Ikasleek kasurik ez egitea eta horien arduragabekeria gehiago nabarmentzen dute ikastetxe pribatu- etako gurasoek eta irakasleek, ikastetxe publikoetakoek baino. Ikastetxe pribatu- etako irakasleek ere nabarmentzen dituzte ikaskideei traba egitea, jarduna etetea eta suntsiketak.

Bigarren hezkuntzan ohikoagoa da ikasleek portaera desagokiak izatea. Etapa horretan ohikoa da ikasleek elkar iraintzea; gainera, ikasle askok «paso» egiten dute ikaskideez, eta traba egiten diete eskola- ko lanak egitean. Batzuetan, gauzen edo pertsonen aurkako indarkeria jarrera ere izaten dute. Sexu jazar- penak kasu bakanen batean baino ez da gertatzen. Portaera horien guztien maiztasunaren batez bestekoa 10. grafikoan dago irudikatuta, 1etik 4rako eskalan.

Bi etapetako portaerak alderatuz gero, bigarren hezkuntzan kasu gutxiago egiten dela eta ardura- gabekeria gehiago dagoela ikusten da, bai eta ikastetxeko eta ikaskideen objektu gehiago puskatzen dire- la ere. Aitzitik, erasoak murriztu egiten dira, baina nerabeen artean gertatzen direnak Lehen hezkuntza- koak baino larriagoak dira.

10. grafikoa
Bigarren Hezkuntzako ikasleek dituzten portaera desagoki- en maiztasuna



Bi aldagai hauetan ageri dira desberdintasunik handiak aztertutako ia portaera guztietan: ikastetxe motan (ikastetxe publikoak nabarmentzen dira) eta ikaslearen etxeko maila sozioekonomikoan (batez ere, maila ertain-baxua dutenak nabarmentzen dira); lurraldeen artean, berriz, Bizkaia nabarmentzen da. Inkestatutako hiru taldeak bat datoz balorazio horretan. Nabarmentzekoa da, era berean, horrelako porta- erak DBHn oso maiz gertatzen direla, eta batxilergoan lanbide hezkuntzan baino ohikoagoak direla.

Ereduei dagokienez, taldeak ez datoz bat: irakasleen arabera, portaera horiek zenbaitetan A eredu- an nabarmentzen dira, eta beste batzuetan, berriz, D eredu- an. Gurasoen arabera, berriz, A eredu- an maiz- zago gertatzen dira, ia balizko egoera horietan guztietan. Aitzitik, ikasleen arabera gehiagotan gertatzen dira D eredu- an, eta gutxiagotan B eredu- an.

Inkestatuen iritziz, portaeren maiztasunak horien larritasuna adierazten du. Ikasleek uste dute be- ren arteko harremanak onak direla, nahiz eta onartu sarritan beren artean portaera desagoki eta bazter-

tzaile asko izaten dituztela. Irakasleek, ikasleen arteko harremanei buruzko iritziz okerragoa duten arren, portaera negatibo horiek gutxiagotan gertatzen direla uste dute. Beraz, irakasleek eta ikasleek neurtzeko modu desberdinak dituztela esan liteke. Irakasleen iritziz, portaera desagokiak zaildu egiten dituzte harremanak, edota harremanetan zerbait ez dabilela ongi adierazten dute; ikasleen iritziz, berriz, portaera horiek ez dute eragozten harreman onak izatea.

Lehen nahiz bigarren hezkuntzan, ohikoagoak dira ukipen fisiko gutxi eskatzen duten portaerak. Bi etapetan ohikoenak irainak eta bestelako hitzezko indarkeria dira; gutxien gertatzen direnak, berriz, lapurretak eta sexu jazarpena.

Helduak oso kezkatuta agertzen dira gazteen hitz egiteko modua dela eta; ez hainbeste, ordea, gazteak berak. Ikasle batek dioen moduan: «Biraoak esatea normala da. Adin kontua da. Horixe dago modan. Hala ere, tonua oso garrantzitsua da. Jende askok uste du biraoak esateagatik besteak baino gehiago dela. Baina ni ez naiz irain asko esaten dituzten pertsonengana hurbiltzen elkarriketa bat izatera, eta ez beldurra ematen didatelako, baizik eta ez dizutelako konfiantza handirik eragiten».

Kontuan hartu beharreko datu bat talde baztertzailerak dira. Ikasle batek haxe dio: «Taldea ugari daude. Talde bakoitzaren barruan lotura handia dago, errazagoa da ondo konpontzea. Zenbaitek taldekoak soilik errespetatzen dituzte». DBHn daude horrelako talde gehien, eta ohikoa izaten da talde horiek indarkeria gehiago adieraztea. Honela dio ikasle batek: «Matoiak ere badira. Nahiko nota txarrak ateratzen dituzte, eta ez dute ikasturtea gainditzen. Batxilergoan ia ezinezkoa da horrelako ikasleak egotea». Ama batek nahiko orokorra den kezka bat plazaratu du: «Arazo handia sortzen da, ikasgela batean desegituratutako familietako haur bat baino gehiago elkartzeko direnean. Oso egoera zaila da, ikasteko gogoia duten haurrek ezin baitute aurrera egin, ezta irakasleak ere. Gainera, horrelako ikasleak elkartu egiten dira, eta ikasgelako dinamika asko oztopatzen dute. Arazo horren irtenbidea zaila da, eta ideia berriekin egin behar zaio aurre».


Ikastetxeetan sexu jazarpena egotea hutsa kezkarria da; hala ere, termino horrek askotariko portaerak hartzen ditu bere baitan, ikasleen definizioak ikusita agerian geratzen den moduan: «Norbaitek beste bat sexualki behartzea» (mutil batek). «Adibidez, ipurdia edo zerbait gehiago ukitzea... DBHko bigarren mailan, mutilak nesken titiak ukitzen hasi ziren. Astinaldi batzuk eman behar izan nizkien bakean uzteko» (neska batek). «Baita biluztera behartzea eta zu ukitzera behartzea ere» (mutil batek). «Inoiz neskek ere egiten dituzte abusuak, baina ohikoagoa da mutiletan. Mutilei beraiegana hurbiltzea atsegin zaie... ez dira jazarrita sentitzen; neskak, berriz, bai» (neska batek). «Mutil batek neska bati ipurdia ukitzen badio, agian neskak jo egingo du, baina neska batek mutil bati ukitzen badio, mutila zuzen-zuzenean joango da neskarengana...» (neska batek).

Ikasleen arteko zenbait portaera bereiz aztertu behar dira; esaterako, *portaera baztertzailerak*. Portaera horien bidez, barregarri uzten dira ikasleak, eta, are maizago, min egiten zaie –psikologikoki, behintzat–, eta gainerakoengandik bereizten dira.

Ikasleek itxura fisikoagatik eta ikasketetan lortutako emaitzengatik uzten dituzte ikaskideak barregarri. Horiek dira portaera baztertzailerik ohikoenak; ez dira, ordea, ugari. Gainera, zenbaitetan, ikasleak beren gizarte jatorriagatik, sexuagatik, arrazagatik eta jaioterriagatik ere baztertzen dira. Bi etapetan irakasleek egiten duten balorazioa bat dator. 11. grafikoa ikus ditzakegu balorazio horiek, 1etik 4rako eskalan.

Portaera desagokiak eta baztertzailerak maiztasunari buruz galdetzen zaienean, oro har, irakasleek iritziz zorrotzagoak dituzte gurasoek eta irakasleek baino. Horrek argi adierazten digu zer-nolako justizia zentzua duten nerabeek, eta zein zorrotz epaitzen dituzten bidegabe jotzen dituzten egoerak. Baina, aldi berean, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den gertaera baten berri ere ematen digu; hots, kideen arteko tratua txarra. Gainera, tratua txar horiek ezkutuan daude helduentzat. Ikaskideen arteko indarkeria portaerarik gogorrenak irakasleen begi bistatik at gertatzen dira.

11. grafikoa
Ikasleen arteko portaera baztertzaileak



Ikasleen gizarte maila baxueneko ikastetxeetan sarriago gertatzen dira portaera desagoki eta baztertzaile horiek. Ikastetxeetako portaera ereduak gero eta gehiago desberdintzen dira behar handiak dituzten testuinguru sozialetan nagusi diren eruedetatik. Desberdintasun horiek areagotu egiten dira adinarekin; batik bat, eskola porrota behin baino gehiagotan gertatzen bada, gizarte maila horretako ikasleen zati bati gertatzen zaion modura; horren ondorioz, portaera desagokiak areagotu eta ugaritu egiten dira.

Ikastetxe pribatuetaiko irakasleek ikasleen axolagabekeria eta elkarri lanean sortzen dizkieten trabak nabarmentzen dituzte. Ikastetxe publikoetakoek, berriz, portaera baztertzaileak. Portaera horietan agerian gelditzen da bi sareetako ikastetxeen egoera desberdina dela: ikastetxe pribatueta, ikasketei garrantzi handiagoa ematen dietenez, eskolako lanak oztopatzen dituzten portaerei ematen diete garrantzia. Ikastetxe publikoetan, aldiz, haien ikasleen aniztasunaz kezkatuta daudenez, desberdintasunak areagotzen dituzten portaerei.

Bigarren hezkuntzan, portaera desagoki eta baztertzaile gehiago izaten dituzte DBHkoek –batxilergokoek gutxiago–, bai eta ikastetxe publikoetakoek ere. Bi kasuetan, aldagai sozioekonomikoak eraginar du; baita, beste maila batean, aldagai hauek ere: antolaketak, askatasun eta ordena balioei ematen zaien garrantziak, eta ikastetxeetan azken bi aldagai horiek batzeko moduak.

Ikasleen arteko portaera horietan genero aldagaia kontuan hartzen badugu, ikasle guztiak (bai neskek, bai mutilak) bat datoz mutilek neskek baino portaera desagoki gehiago dituztela esatean. Mutilen portaera negatiboen eta nesken portaera negatiboen artean, alde nabariak daude besteekiko axolagabekeriari eta indarkeriari dagozkienetan (borrokak, mehatxuak, suntsiketak, lapurrekak eta sexu jazarpena); horiek ohikoagoak dira mutilen artean. Bestelako zenbait portaeratan, aldiz –esaterako, ikaskidea irainitzea edo molestatzeari, nahiz eta aldeak nabarmenak izan, ez dira aurrekoetan bezainbesteak.

Mutilak neskek baino baztertzaileagoak dira. Hala ere, portaera mota horietan ez dago hainbeste desberdintasunik; batik bat, kideen itxura fisikoa eta eskola porrota edo lorpena direla-eta gertatzen diren diskriminazioetan.

Mutilen nahiz nesken iritziz mutilek portaera okerragoak izan arren, horien erantzunetatik sexuen arteko gerra dagoela ondoriozta daiteke: mutilei portaera desagoki gehiago leporatzen dizkiete


neskek, mutilek berek baino; eta neskei horrelako portaera gehiago leporatzen dizkiete mutilek, neskek berek baino.

Mutilak neskak baino okerrago portatzen dira, DBHn batxilergoan baino gehiago, eta bi etapa horietan lanbide heziketan baino gehiago. Ikastetxe publikoek mutilen portaera baztertzaila azpimarratzen dute; aitzitik, ikastetxe pribatuak portaera negatibo gehiago ikusten dituzte neskengan. Horrek guztiak adierazten du 12 eta 18 urte bitarteko ikasleek, sexuaren arabera, helduen artean nagusi den ereduaren antzeko portaerak dituztela.

5.2.2. Irakasleen arteko portaera desagokiak

Irakasleen artean oso gutxitan gertatzen dira portaera desagokiak. Zenbaitetan, kideekiko axolagabekeria azaltzen da; hau da, ez dute elkarren artean harreman handirik izaten, eta horren arrazoiak berezko antipatia edo desadostasun pertsonalak edo ideologikoak izan daitezke. Zenbaitetan, iruzkin iraingarriak ere egiten dira. Oso gutxitan oztopatzen da lankide baten egitekoa, eta ia inoiz ez da hitzezko indarkeriarik erabiltzen edo mehatxurik esaten. Inoiz ez diote elkarri eraso fisikorik egiten. Grafiko honetan, batez besteko balorazioak ikus daitezke, 1etik 4rako eskalan (lehen eta bigarren hezkuntzan berdinak dira):

12. grafikoa
Irakasleen arteko portaera desagokiak



Irakasleek oso ondo balioesten dute beren burua: irakasleen arteko harremanak onak dira, eta oso gutxitan gertatzen dira portaera desagokiak. Askoren ustez, kideen artean traturik ez egotea, talde lanik ez egitea eta elkarrekin ez hausnartzea ez dira portaera desagokiak, baizik eta, besterik gabe, gertatzen diren egoerak, eta ez dute beren burua egoera horien erantzule jotzen. Hala ere, onartzen dute horiek eskolako lana hobetzen lagunduko luketela. Haatik, zenbaitek hein batean horrelako portaeren erantzule direla onartzen dute, eta horrexegatik portaera desagokitza hartzen dituzte.

Ikastetxe publikoetako irakasleek ikastetxe pribatuak baino egoera okerragoa adierazten dute. Pentsa liteke irakasleen arteko gatazkak eta hika-mikak sarriagotan gertatzen direla irakasleek erabakietan parte hartzeko aukera gehiago duten ikastetxeetan eta zuzendaritzarekiko lotura hain mendekotasunezkoa ez den ikastetxeetan (ikastetxe publikoetan). B eta D ereduak irakasleak ere kritikoagoak dira. Gizonezkoek iruzkin iraingarriak azpimarratzen dituzte, eta emakumezkoek mehatxuak.

5.2.3. Irakasleen eta ikasleen arteko portaera desegokiak


A) Ikasleek irakasleekiko dituztenak

Ikasleek askotan erakusten dute irakasleekiko axolagabekeria, ez dute irakaslea kontuan hartzen, ez entzunarena egiten dute, ez diote autoritaterik onartzen. Oso gutxitan iraintzen dute irakaslea. Oso arraroa da irakaslearen objektu pertsonalak puskatzea eta mehatxatzea. Salbuespenak salbuespen, ez da eraso fisikorik gertatzen.

Portaera horiek gehiagotan gertatzen dira bigarren hezkuntzan lehen hezkuntza baino. Ikasleen iritziz gehiagotan gertatzen dira, irakasleen iritziz baino. Hauek dira batez besteko balorazioak, 1etik 4ra-ko eskalan:

13. grafikoa

Ikasleek irakasleekiko dituzten portaera desegokiak



Bi etapetan, desberdintasunak daude maila sozioekonomiko desberdina duten ikastetxeen artean: irakasleen ustez, ikasleek irakasleekiko portaera desegokiak izatea ohikoagoa da gizarte maila ertaineko ikastetxeetan; ikasleen ustez, berriz, sarriago gertatzen dira maila ertain-baxua dutenetan, eta, horren ondoren, maila ertainekoetan. Pentsa liteke ikasleak errazago jabetzen direla errealitateaz; eta irakasleek, berriz, espero gabeko portaerei ematen dietela garrantzia.

Bigarren hezkuntzako irakasleak eta ikasleak bat datoz portaera horiek ikastetxe publikoetan zenbateko maiztasunez gertatzen diren adieraztean.

Datu horiek honela interpreta daitezke (ziur asko, interpretazio hori nahiko ongi egokitzen zaio errealitateari): ikasleen artean nahiko hedatuta dago irakasleen eskakizunetikiko axolagabekeria mota bat; aitzitik, une jakin batzuetan baino ez dira agertzen eskolako lanetikiko eta irakasleen eskaeretikiko axolagabekeria larriak, eta gutxiagotan mehatxuak, suntsiketak eta eraso fisikoak (azken horiek are gutxiagotan); ikasle jakin batzuek soilik jotzen dute horrela. Horixe uste du irakasle batek: «Orain hitzezko indarkeria gehiago dago, irainak... Ez dira borroka asko gertatzen. Gazte batzuk zorriak baino alferragoak dira... Zenbait irakasle ez da eroso sentitzen ikasle pasiboekin; beste batzuek, berriz, gelako bazter batean uzten dituzte, eta inori tra-

barik egiten ez dioten bitartean, irakaslea eroso sentitzen da. Ikasle batzuek ez dute ez libururik, ez boligrafik, ez paperik ekartzen, eta azkenean erronka baten modura planteatzen duzu. Probokazio handia da».


Ikasle batek ikasleen portaera desegoki arruntenak hauek direla dio: «Gelan ondo ez portatzea, ki-dearekin hitz egitea, ezin denean zutik jartzea». Beste ikasle batek portaera larriagoak erantsi ditu, nahiz eta hain ohikoak ez izan: «Gauzak apurtzea, puskatzea. Aulkiak leihotik botatzea. Ezabagailuak, klario-nak... botatzea, leihoak puskatzea». Beste ikasle batek informazio hori guztia osatu du: «Zergatik gertatzen dira suntsiketa horiek? Izorratzeagatik. Eta ondo pasatzeagatik».

Guztiak bat datoz honetan: gurasoek inoiz baino jarrera ulerkorragoa dute seme-alaben portaera negatiboekiko, eta inoiz baino babes handiagoa ematen diete. Irakasle batek hauxe dio: «Ikasleak oso babestuta sentitzen dira. Izugarrizko indarrez esaten dute 'zu hor geldirik egon; ni ezin nauzu ukitu ere egin'. Askotan, gurasoak ere etorri zaizkit 'zuk nire semeari... traumatizatzen ari zara-eta' esanez, ikasleari errietan egin diodalako». Horrelako baldintzetan, irakaslearen lana oso zaila da, eta zenbaitetan ezinezkoa. Ikasle batek horixe onartzen du: «Hain babestuta gaudenez, edozeini, baita irakasleei ere, edozer gauza egin diezaiokegula uste dugu. Ohartu naiz irakasle batzuk beldur direla. Batzuk zenbaitetan gelatik negarrez irten dira». Gainera, irakasleak ez dira gai horrelako egoerak baloratzean bat etortzeko eta horiei aurre egiteko moduz akordioak lortzeko, eta horrek babesik gabe uzten ditu irakasleak, ikasle batzuen nagusikeriaren aurrean. Ama batek honela dio: «Lehen pentsaezina zen ikasle batek irakasle bati 'Baina zu zer! Zer uste duzu?' esatea... Gaur egun, berriz, ikastetxe askotan onartu egiten dira horrelakoak; beste zenbaitetan, ikaslearekin hitz egiten da, horrelakorik gehiago esan ez ditzan; eta, gutxi batzuetan, ikastetxetik kanporatzen dituzte».

B) Irakasleek ikasleekiko dituztenak.

Guztiak onartzen dute ez dela ohikoa irakasleek ikasleekiko portaera desegokiak izatea. 1etik 4ra-ko eskalan, batez bestekoaren balorazioa ez da inoiz 2tik (oso gutxitan) gorakoa, eta 1etik (inoiz ez) hurbil dagoela esan daiteke. Hala ere, batzuen eta besteen balorazioetan desberdintasun handiak daude. Ikasleek batez ere ebaluazioak bidegabeki erabiltzea, ikasleei kasurik ez egitea eta iraintzea leporatzen diete. Irakasleek portaera horiek oso gutxitan gertatzen direla onartzen dute: horien batez besteko balorazioak ez du 1,3 gainditzen inolako hipotesietan.

14. grafikoa
Irakasleek ikasleekiko dituzten portaera desegokiak



Irakasleen eta ikasleen arteko portaera desegoki horiek maizago gertatzen dira hauetan: maila sozioekonomiko ertaineko ikasleak dituzten ikastetxeetan (gizarte maila ertain-altuko edo ertain-baxuko ikasleenetan baino gehiago), DBHn eta, neurri txikiagoan, batxilergoan. Bigarren hezkuntzari dagokionez, ikastetxe publikoetan eta B eta D ereduetan dira ohikoenak horrelako portaerak. Gerta daiteke ikasleengandik esperotakoa ez dela betetzen ikusteak eragitea irakasleen balorazio horiek, gehiago espero izaten baita aipatutako gizarte maila eta eredu horietan.

Kontuan hartzekoa da ikasleek ebaluazioen bidegabeko erabilerari buruz eginiko kexa; izan ere, batetik bat irakaslearekiko jarrera axolagabea edo begirunerik gabea duten ikasleak zigortzeko erabiltzen dela uste dute. Irakasleak esan dezake ez dela erraza kalifikazio batean biltzea ebaluazioan kontuan hartu beharreko hainbat alderdi; batez ere, ikasleek ikasteko duten jarrerari dagozkionak. Zenbaitek aitortzen du ebaluazioa dela ikasleen portaera jakin batzuk zigortzeko irakaslearen esku dagoen tresna bakarra.

Ikasleen ustez, irakasleek ikasleekiko dituzten portaera desegokiak arrazoi nagusia «ikasleak ez errespetatzea da. Ez dute ikasleen iritzia kontuan hartzen. Ahaltsuegitzat dute beren burua; haiek esaten dutena egin behar da, eta kito (ez da askotan gertatzen, baina zenbaitetan ikusi izan dut)».


5.2.4. Irakasleen eta gurasoen arteko portaera desegokiak

A) Gurasoek irakasleekiko dituztenak.

Ez da oso ohikoa gurasoek irakasleekiko portaera desegokiak izatea. 1etik 4rako eskalan, batez beste balorazioa ez da 2ra (oso gutxitan) iristen. Lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak gehienbat arrazoi hauetaz kexatzen dira: gurasoen axolagabekeria eta gurasoekin harremanak izateko dituzten zailtasunez, bai gurasoak ikastetxera oso gutxitan joaten direlako, bai seme-alaben arazoei buruz ados jartzen ez direlako. Bigarren hezkuntzako gurasoek onartzen dute egoera hori; ez, ordea, lehen hezkuntzakoek. Oso gutxitan erabiltzen dute gurasoek hitzezko indarkeria edo mehatxua. Guztiak ados daude eraso fisikorik gertatzen ez dela esatean.

15. grafikoa

Gurasoek irakasleekiko dituzten portaera desegokiak



Ikasleek badakite gurasoek irakasleei aurre egiten dietela beren seme-alabak defendatzearren. Hona hemen irakasle batek emandako deskribapena, ikasleekin arazoren bat dutenean zenbait gurasok duten portaeraz: «Ikasleren batekin arazoren bat gertatzen denean, gurasoak kexatzera etortzen dira. Garai batean, etxean ez zenuen ezer esaten, bestela masailekoa ematen zizuten, eta, gainera, 'irakaslearekin hitz egitera noa, zer egin duzun jakiteko' esaten zizuten. Ama batek horrela onartzen du: «Nire iritziz, irakasleei autoritatea kentzen ari gara, izugarri».


Portaera horiek gizarte maila ertaineko ikastetxeetan gehiagotan ikusten dira gizarte maila altuko ikastetxeetan baino (irakasleen eta ikasleen arteko portaerak aztertu ditugunean ere, emaitza bera lortu dugu). Gizarte talde horrek itxaropen handia du bere seme-alaben etorkizunean; baina, aldi berean, irakasleei gehiago eskatzen diete, eta haiekiko kritikoago agertzen dira. Ez dute irakasleei laguntzeko konpromisorik hartzen, baina haiengatik emaitza batzuk lortu nahi dituzte. Lehen hezkuntzako irakasleen arabera, axolagabekeria eta hitzeko indarkeria jarrera gehiago dituzte gizarte maila ertain-baxuko gurasoek.

B) Irakasleek gurasoekiko dituztenak

Esan genezake irakasleek ia ez dutela gurasoekiko portaera desagokirik, 1.15 grafikoa agertzen den moduan. Aipatzen den bakarra da irakasleak gutxi batzuetan gurasoekiko axolagabe azaltzen direla edo ez dituztela gurasoak kontuan hartzen. Ez da hitzeko indarkeriarik gertatzen, ez beldurrarazterik, ez eraso fisikorik.

16. grafikoa

Irakasleek gurasoekiko dituzten portaera desagokiak



Irakasleek harreman onak dituzte gurasoekin, eta jarrerak, kasurik gehienetan, errespetuzkoak dira.


5.2.5. Ideologia dela-eta gertatzen diren liskarrak

Ikastetxeetako portaerak eta gatazkak aztertzean, merezi du ideologia dela-eta gertatzen diren liskarrei erreparatzea. Hiru taldeetakoek diote Lehen hezkuntzan ia ez dela gertatzen horrelako liskarrik, eta

bigarren hezkuntzan ere oso gutxitan gertatzen direla (1etik 4rako eskalan, batez besteko balorazioak 1,2 eta 1,6 artekoak dira). Ikasleek soilik uste dute mota horretako liskarrak ikasleen artean eta ikasle eta irakasleen artean gertatzen direla, nahiz eta bi kasuak oso gutxitan gertatzen diren (batez besteko balorazioak: 1,7 eta 2,2 dira, hurrenez hurren).

17. grafikoa

Arrazoi ideologikoengatik liskarren maiztasuna, bigarren hezkuntzan



Liskar horiek mota askotakoak dira:

Lehenik eta behin, eginkizunen bat duen edozein taldetan normalak izaten diren liskarrak daude. Irakasleen arteko liskarrik ohikoenak haien lan egiteko modua ulertzeko erarekin daude lotuta; batik bat, egoerarik arazotsuenei heltzeko moduarekin. Ikasleen artean, berriz, liskarrik ohikoenak pertsonalak dira. Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkarik gehienak ikasleak araukin edo irakaslearen erabakiarekin ados ez daudelako gertatzen dira.

Ikasleek ikastetxeko gatazken adibide batzuk aipatu dituzte: «Irakaslearen eta ikasleen arteko ohiko gatazka bat azterketen datarena da». «Irakasle bati ez zaio ezer ulertzen euskaraz ari denean... eta horrela ez dago ezer gaitzizkerik. Zuzendariari gutun bat idatzi diogu arazoa konpontzeko, baina inork ez digu kasurik egin». Ama batek beste gatazka bat aipatu du: «Bigarren hezkuntzan, askotan gertatzen da ikasleak irakaslearekin hitz egin nahi izatea notak edo antzeko gauzak azaltzeko, eta irakasleak ezezkua esatea».

Arrazoi ideologikoengatik gertatzen diren gatazka batzuk hezkuntzan euskara ezartzearekin daude lotuta. Irakasleen artean, askok ahalegin handia egin duten arren (batzuek baita sufritu ere), inork ez du euskara baztertu, ez behintzat zuzenean. Egia da, ordea, euskara gehiago erabiltzen duten ereduak ezartzeko orduan, liskarrak gertatu zirela irakasleen artean, eredu horiek ezarri beharreko erritmoari eta moduari buruz; izan ere, erabakiak zuzenean eragiten zuen irakasleen lanean, eta horixe izan zen eztabaidaren arrazoia. Zenbait kasutan, aukera baten eta bestearen aldekoak banandu egin dira. Ikasleen artean, ez da ia liskarrik egon arrazoi horrengatik. Gurasoak ere liskartu izan dira elkarren artean, baita irakasleekin ere, ikastetxeak eskaintako eredu eta familia talde handi batek eskatutakoa bat ez etortzeagatik: hasieran, gatazkarik gehienak B eta D eredu gutxi zeudelako gertatu ziren; gerora, berriz, A eredu B edo D

eredu bihurtzearekin ados ez zeudelako, eta, azken urte hauetan, nahi den ikastetxean (edo etxetik hurbil) A eredurik ez dagoelako.

Liskar politikorik ere gertatu da ikastetxeetan; batez ere, bigarren hezkuntzakoetan. Euskal gatazka dela-eta dagoen jarrera aniztasunak (bai planteamendu politikoei, bai indarkeria agerpenei dagokienez) liskar asko eragin ditu. Gehienak ikasleen eta irakasleen artean gertatu arren, gogorrenak irakasleen artekoak izan dira. Ikerketa honen hirugarren zatian arretaz aztertzen da ikastetxeko bizikidetzan euskal gatazkak duen eragina.

5.3. Ikastetxeetako bizikidetzaren sustapena

Ikastetxeen etengabeko egiteko bat bizikidetzatza positiboa eta atsegingarria sustatzea da, horren bidez, ikaslearen garapen pertsonala eta soziala ahalbidetzearekin batera, ikasketa jarduera errazteko. Lan eraginkorra egiteko, errealitatearen diagnosi zehatza egin behar da; hori dela eta, komenigarria da ikastetxean gertatzen diren egoeren berri izatea (gehiegizko zorrotasun edo permisibitatez informazioa desitxuratu gabe), bai eta ikastetxeko portaera desagoki horietan eragiten duten arrazoiak zein diren ezagutzea ere. Gainera, garrantzitsua izango da ikastetxean jarduera egokiak abian jartzea, eta, horretarako, beharrezko diren eskola elementu aproposak erabiltzea.

5.3.1. *Ikasleen artean portaera desagokiak agerrarazten dituzten faktoreak*

Ikasleen portaeran hainbat faktorek eragiten dute: faktore pertsonalek, eta familia, harreman, gizarte eta eskola faktoreek. Etapa guztietako gurasoak eta irakasleak bat datoz ikasleengan eragiten duten faktore horien garrantziaren hurrenkeran.


Faktore pertsonalek, familiakoek eta harremanetakoek eragiten dute gehien haurren eta gazteen portaeran. 1etik 4rako eskalan, 3tik gora dago, 18. grafikoan ikusten dugun moduan.

Guztiak azpimarratzen dute familiak eragin handia duela ikaslearen portaeran: batez besteko balorazioak 3,5 eta 3,8 artean daude. Haurrek, lehenik, familiaren bidez ezagututako balioak, portaera arauak eta bizitza estiloak ikasten dituzte, eta partaide izatearen sentimendua dela eta (lotura afektiboetan oinarritua) bereganatzen dituzte. Familiaren azterna sakonagoa da afektibitate giroan bizi direnean, eta familian portaera eredu argi eta koherenteak daudenean. Gainera, haurren izaeraren osaketan garrantzi handia duen unean eragiten du familiak.

Bi taldeek garrantzi gutxiago ematen diote portaera jakin batzuk agertzeko familiaren maila soziokulturalak izan dezakeen eraginari: batez besteko balorazioak 2,6 eta 2,9 artekoak dira. Azterketa honetan, familiaren maila soziokulturalak ikaslearen portaeran eragin handia duela egiaztatu da. Izan ere, familiaren maila soziokulturalaren arabera zehazten dira ikasketa itxaropenak, eta horiek oso lagungarriak dituzte ikasleek eskolako lanari heltzeko eta eskolako arauekin bat datozen portaerak bereganatzeko. Ezin dira inolaz ere parekatu familia baten maila soziokulturala eta portaera eredu jakin batzuk; baina egia da familien gizarte egoera bazterketatik hurbil dagoenean, familia defizitak areagotu egiten direla.

18. grafikoa

Ikaslearen portaeran eragiten duten familia faktoreak eta harreman faktoreak



Ikasleen portaeran familiak duen garrantzia guztiek azpimarratzen duten arren, irakasleak harago doaz. Norberaren erantzukizunaren zamaz libratzeko desio modura ere interpreta liteke, irakasle batek dioen moduan: «Niri beldurra ematen dit guztiaren errua gurasoei botatzek. Hori egitearen arrazoi bat, agian, guk izan dezakegun errua zuritzea da». Hala eta guztiz ere, agerian gelditu da gero eta familia gehiago direla haien seme-alabei gizarte ohitura eta balio argi batzuk emateko gaitasunik ez dutenak, eta bizikidetzaren eskakizunen abantailak eta betebeharrak nork bere gain hartzeko behar adina afektibitate emateko gai ez direnak. Beste batzuek uste dute beren seme-alabak ikastetxeetara eramaten dituztenean irakasleen ardurapean geratzen dela haurren heziketa guztia. Horrela dio ama batek: «Guraso askok ardura guztia ikastetxearen baitan uzten dute. Eta hori ezin liteke». Horrelako egoerak gero eta ugariagoak diren arren, Euskadin oraindik ez dira ohikoak. Horixe dio irakasle batek: «Zenbait familiak beren seme-alaben heziketaren norabidea galdu dute, baina beste familia batzuek oso argi dute, eta ongi konpontzen dira. Nik besteak baino galduago dauden bi familia ditut, eta haiekin bilera gehiago egiten ditut, baina gainerako familiak nahiko ongi konpontzen dira. Hala ere, galdetzen didatenean, okerrenaz gogoratzen naiz».

Hala ere, badirudi seme-alabak hazten diren heinean familiaren eragina gutxitu egiten dela. Norberaren balioak eta askatasuna gizartearen gero eta gehiago preziatzen diren garai honetan, gazteek beren nortasunaren ezaugarriak familiatik kanpo bilatzen dituzte. Adinean zenbat eta aurrerago egin, orduan eta handiagoa da arau eta pentsatzeko modu propioak dituzten berdinkideen taldeen eragina. Bigarren hezkuntzan, hori da ikaslearen portaeran eragin handiena duen bigarren faktorea; lehenengo faktoretik bi hamarrenetara baino ez dago. Lehen hezkuntzan, berriz, hirugarren postuan dago, bost hamarrenetara.

Balio sozial berrien ondorio positiboekin batera, askoz ere ondorio anbiguoagoak ere agertu dira. Horietako bat autoritateari zitzaion begirunearen aldaketa da. Gero eta gutxiago onartzen da norbaiten autoritatea (guraso nahiz irakasleena), pertsona horren estatus hutsagatik. Pertsona horrek, bere autoritatea zilegi bihurtzeko, zuzen erabili behar du. Beste ondorio anbiguo horietako bat mugarik ez egotea da.


Ohiko prozesuetan, arau batzuen beharra onartzen da; arau horiek lehenik ezarri egiten dira, eta ondoren barneratu. Hori dela eta, mugarik ez jartzearen ondorioz, ez dago behar adinako autorregulaziorik eta autokontrolrik, eta, areago esanda, pertsonak oso garapen etiko urria izan dezakete. Irakasle batek seme-alaben hezkuntzari eragiten dion arazotzat hartzen du familien permissibitatea: «Zenbait ikasleren muga faltaren arrazoia familiak oso permissiboak izatea izan daiteke».

Bigarren Hezkuntzan, faktore horiek gehiago nabarmentzen dituzte emakumezkoak diren irakasleek eta amek, baita D eta B eredukoek ere, nahiz eta B eredukoek gutxiago.

Testuinguru sozialaren faktoreek eragin handia dute. 1etik 4rako eskalan, batez besteko balorazioak 2,5 eta 3 artekoak dira ia kasu guztietan. Irakasleek eta gurasoek ikasleen testuinguru politikoaren eta hedabideen eragina nabarmentzen dute. Irakasleek gehiago azpimarratzen dute faktore horien eragina gurasoek baino. Gurasoen artean, Bigarren Hezkuntzakoak dira gehien nabarmentzen dutenak.

19. grafikoa

Ikaslearen portaeran eragiten duten faktore sozialak



Hedabideek (batik bat, telebistak) eta informazioaren eta ezagutzaren gizartearekin sortutako aukera berriek gero eta eragin handiagoa dute gazteen hezkuntzan. Batzuek uste dute telebistaren eragina edukietan datzala, eduki horien helburua ikusleak erakartzea dela, eta ez zaiela ardura hezigarriak diren ala ez. Beste batzuek telebistan erabilitako hizkera azpimarratzen dute, hizkera multimedia, arrazionaltasunaren galbahetik pasa gabe pertsonari barneraino sartzen zaion hizkera. Dena dela, atentzioa ematen du Lehen hezkuntzako gurasoak izatea hedabideei garrantzi gutxiago ematen diotenak; izan ere, haur txikiak, telebistari begira komeni baino ordu gehiago egoteaz gain, babesik gabe jasotzen dituzte telebistako irudien bidez iristen zaizkien askotariko mezuak.

Hedabideen ondoren, ikaslearen portaeran eragiten duten faktore garrantzitsuen artean testuinguru soziokulturala eta politikoa azpimarratzen dituzte. Aipatu berri dugun datu hori oso garrantzitsua da, eta azterketa lan honetan zehar gehiago sakonduko dugu horretan.

Drogen kontsumoa ere arazo kezkarria da, baita lehen hezkuntzan ere. Etapa horretan, droga kontsumoari buruzko beldurra agertzen dute; aitzitik, bigarren hezkuntzan egitatea da. Alkohola gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen nerabe euskaldunen aisialdian. Gainera, beste zenbait droga mota ere oso eskura daude, eta horiek gero eta neska-mutil gazteagoek kontsumitzen dituzte. Helduak errealitate horretaz jabetu dira, eta badakite gero eta eragin handiagoa duela nerabeen bizimoduan eta portaeretan. Bestalde, ezin da ahaztu familia giroan helduek droga kontsumitzeak zuzenean eragiten diela horrelako egoerak bizi dituzten gazteei.


Azkenik, guztiek onartzen dute indarkeriazko jostailu eta jokoek haurren portaera desagokiak eragiten dituztela. Jostailu eta joko horiek haur eta nerabeek eskueran izaten dituzte, gero eta gehiago; batik bat, teknologia berrien bidez. Gurasoak nahiko arduratuta agertzen dira horretaz, baina ez dugu ahaztu behar teknologia horiek familia eremuan lortzen eta erabiltzen dituztela. Neska-mutilak publizitatearen presioaren biktima dira, eta, horren ondorioz, jostailu eta joko jakin batzuk ez dituztenek beren kideak baino gutxiago direla uste dute. Gainera, gurasoek ez dakite haurren eskaerei ezetz esaten, edo uste dute erosten ez badiete kalte handiagoa eragingo dietela. Okerrena, ordea, zera da: behin erosi dituztenean, gurasoek ez dakite haurrek nola erabiltzen dituzten jostailu edo joko horiek.

Eskola faktoreek ere dezente eragiten dute ikaslearen portaeran, baina aztertu berri ditugunek baino gutxiago: 1etik 4rako eskalan, horien guztien batez besteko balorazioa 2,4 eta 3 artekoa izan da. Irakasleen eta gurasoen iritziz, faktore horiek nahiko garrantzi handia dute. Eskuarki, gurasoak eszeptikoa- goak dira eskolak ikasleen portaeran duen eraginari buruz.

Kontsultatutako pertsonen iritziz, ikasleengan portaera desagokiak agertzeko faktorerik garrantzi- tsuena zenbait ikaslek ikasketekiko duten axolagabekeria da. Aitzitik, ikastetxeko antolaketa desagokiari ematen diote garrantzirik gutxiena.

20. grafikoa

Ikaslearen portaera desagokian eragiten duten eskola faktoreak



Oso deigarria da pertsona helduek ikasketen axolagabekeria nabarmentzea ikasleen portaera dese- gokien arrazoitzat, eta garrantzi gutxiago ematea beste zenbait faktoreren eraginari; esaterako, ikaslearen-

gan jarritako itxaropenen eraginari; izan ere, ikasketekiko axolagabekeriaren erantzule nagusia, itxuraz, ikaslea bera da, eta ikaslearengan jarritako itxaropenena, berriz, helduak nagusiki. Gainera, kontuan hartu behar da ikasketekiko axolagabe izatea, arrazoia baino gehiago, beste zenbait faktoreren ondorioa dela; batez ere, irakasleek ikasleengandik gauza handirik espero ez izatearena.

Eskolako giroari ere ikastetxeko barne antolaketari baino garrantzi handiagoa ematen zaio. Inkongruentea da, ikastetxeko antolaketa baita ikastetxean giro ona egoteko elementurik garrantzitsuenetako bat –ez, ordea, bakarra–.

Amek garrantzi handia ematen diote irakasleen jokabideari. «Irakaslearengandik gehiago ikasten da haren jokabideagatik, diziplinarekin baino. Irakasleek, ezagutzak irakasteaz gain, jokabide erakargarria izan behar dute. Baliteke irakasleei gehiegi eskatzea». «DBHn, irakaslearen jarrerak asko eragin diezazuke. Adin horretan, irakaslearen jarrera erakargarria bada, kasu handiagoa egiten diote irakasleari gurasoei baino, eta, hala ez bada, ‘zein ergela den irakasle hau!’ pentsatu eta esan egiten dizute».

Balorazio horiek aldaketa bat gertatzen ari dela jartzen dute agerian: orain urte batzuk, optimismo handiz ikusten zen eskola (gehiagizkoa zela frogatu zen), eta orain, berriz, pesimismo handia sortzen ari da eskolaren heziketarako gaitasunari buruz (hori ere muturreko jarrera). Irakasleek –eta gurasoek– tesi hau barneratu dute, eta nahikoa egiaztatuta dago: familiak eta inguruneak eragin handia du eskolako errendimenduan. Baina oraindik ez dituzte bere egin «eskola efektua» izenekoari buruzko tesiak. Efektu hori antzeko maila soziokulturaleko ikasleekin lanean diharduten eskolen arteko emaitzak aztertzean frogatu daiteke. Efektu hori gertatzeko, familiak eta beste gizarte eragile batzuk parte hartu behar dute, eta ikasleek bizi dituzten familia eta gizarte testuinguruaren baldintzak kontuan hartuz eta ikasleen aukerak aprobetxatuz egin behar dira eskola jarduerak.

Hala eta guztiz ere, ama batek dioten moduan, eskola faktoreak ondo erabiltzea irakaslearen lehiakortasunaren baitan dago: «Gauza bat da irakasleak errurik ez izatea, azken finean, ahal duena egiten baitu. Baina beste kontu bat da ea jokabide egokia duten, prestatuta dauden, prestakuntza eta garapen pertsonal nahikoa duten... Zenbait irakasle oso prestatuta daude eskola saio bat emateko, baina ez gazteekin egoteko.»

5.3.2. *Ikastetxeetan bizikidetza sustatzen duten eskola faktoreak*


Eskolako bizikidetza izugarritzko garrantzia duen hezkuntza helburua da, ez soilik eskolako lana egiten laguntzen duelako, baita pertsonak bere garapen osorako ikasi beharreko hezkuntza elementuak dituelako ere. Horretarako, aurretiaz ikastetxean bertan irakatsi eta bizi beharko dira elementu horiek. Ikastetxeko bizikidetza hobetzeko ikastetxeko bizimoduan eragiten duten elementuak aztertzen dira.

Irakasleen iritziak, ikastetxeetako *harreman eta antolaketa faktoreen* artean ikastetxeko bizikidetzarako garrantzitsuenak pertsonen arteko elkarrekintzak eta gatazkari heltzeko modua dira. Antolamendu eta jarduera araudia (AJA) ere oso tresna baliagarritzat jotzen da. Espazioaren eta denboraren antolaketari ez zaio hainbesteko garrantzirik ematen; batik bat, bigarren hezkuntzan. «Ez daki/ez du erantzun» erantzunak, zenbaitetan, %15 baino gehiago izan dira.

Faktore horiek gehiago balioesten dira maila ertaineko eta ertain-altuko ikasleak dituzten lehen hezkuntzako ikastetxeetan. Bigarren hezkuntzan, ikastetxe pribatuak eta A ereduak nabarmentzen dituzte.

21. grafikoa

Ikastetxean bizikidetza errazten duten harreman eta antolaketa faktoreak



Elkarrekintzak, hezkuntza prozesu guztian oso elementu garrantzitsuak izateaz gain, bizikidetzaren oinarri dira. Elkarrekintza horiek positiboak izan daitezen zaintzea eta gatazkak ondo bideratzen jakitea, gehienen ustez, ikastetxeko bizikidetza sustatzeko erabili beharreko tresna garrantzitsuak dira.


Antolamendu eta jarduera araudian (AJA) erabakitzen edo zehazten dituzte ikastetxeek gobernuko organoak, koordinazioa eta partaidetza, bai eta ikastetxeko funtzionamendua ona izateko arauak eta irizpideak ere. Ohikoa da AJA diziplina arauditzat jotzea, baina, izatez, ikastetxeko bizimodua antolatze dokumentu bat da, eta horren baitan ezkutuko curriculum dago. Ezkutuko curriculum horrek koherentea izan behar du ageriko curriculumarekin eta hezkuntza proiektuarekin. Irakasleen %14,7k ez dute faktore horri buruz hitz egin; beraz, agerian gelditzen da nahiko kopuru esanguratsuak ez duela iritzi garbirik AJAk eskolako bizikidetzan benetan duen egitekoari buruz. Zehazkiago esanda, AJAn erabakitzen dira gatazka eta diziplinarik ezeko egoerei aurre egiteko irizpideak, eta, hain zuzen ere, horixe da irakasle askok faltan sumatzen dutena: «Irakasleen artean ez dago irizpide bateraturik, eta horixe da zailtasunik handienetako bat. Izan ere, batzuentzat mingarria dena beste batzuentzat normala eta naturala da. Minimo batzuk jarri behar dira, diziplina arau argi batzuk».

Ikastetxeko jarduera espazio eta denbora jakin batean antolatzen da. Baliabide funtzional horiek ikastetxe bakoitzak bere kasa erabil ditzake, muga jakin batzuen barruan. Irakasleek ez diote garrantzi berezirik ematen aipatu berri dugun bizikidetzako faktore horri, batez ere Bigarren hezkuntzan; gainera, %14,7k ez dute eman horri buruzko erantzunik.

Hezkuntza komunitateko sektoreek parte hartzeak bizikidetza errazten du, irakasleen ustez. Eguneroko dinamiketako eta Eskola kontseiluko partaidetzak balioesten dira gehien. Gatazken konponketan eta Bizikidetza Batzordean parte hartzearen baliagarritasunari buruz, berriz, zalantzak daude. Lehen hezkuntzan bigarren hezkuntzan baino gehiago balioesten da partaidetzaren eragina.

22. grafikoa

Eskolako bizikidetzaren sustapena, partaidetzaren bidez (egungo egoera)



Bizikidetzaren egokiaren sustapenean parte hartzeari eta horren eraginari buruz irakasleek duten ikuspegia nahiko positiboa da. Ama bat, ordea, askoz ere kritikoago azaltzen da: «Gero eta gizarte erakunde gutxiagotan har dezakete parte gazteek. Ezta GKEetan ere. Ikastetxeek, behintzat, ez dute partaidetza demokratikoaren espiritua indartzen».

Gizarte maila sozioekonomiko ertaineko eta ertain-baxuko ikastetxeetako bigarren hezkuntzako irakasleek gutxiago balioesten dute partaidetza, gizarte maila ertain-altuko ikastetxeetako irakasleek baino. Gainera, ikastetxe horietan harreman hobeak daudela ikusi da, eta hori, partaidetza ahalbidetzeko oinarritzko alderdia izateaz gain, garrantzitsua da partaidetza eskolako bizikidetzaren sustapenerako faktore positiboa dela uste izateko ere.

Lehen hezkuntzako irakasleek konfiantza handiagoa dute partaidetzan, agian, esperientzia hobeak izan dutelako. Etapa horretako ezaugarrien ondorioz, gurasoek harreman gehiago izaten dituzte ikastetxearekin, tutoretzaren bidez. Aldi berean, ikastetxeko jardueretan gehiago laguntzen dute; batik bat, guraso elkartearen bidez. Eskola kontseiluan presentzia handiagoa dute etapa horretan bigarren hezkuntzan baino. Gatazkak konpontzen errazagoak izaten dira, eta Bizikidetzaren Batzordean ere gutxiagotan jotzen da (hutsegite larri edo oso larrietarako egin ohi den diziplina batzordearekin nahasten da). Irakasleek eguneroko dinamiketan parte har dezakete; izan ere, tutorea etengabe taldean dagoenez, harremana ez da akademikoko hutsa, askoz ere estuagoa da.

Bigarren hezkuntzako ezaugarriek eta egiturek zaildu egiten dute hezkuntza maila horretako partaidetza, eta, horrenbestez, baita eskolako bizikidetzaren egokia sustatzeko gaitasuna ere. Gurasoek gero eta lotura gutxiago dute ikastetxearekin, eta Eskola kontseiluan duten lekua ikasleei uzten hasten zaie. Irakasleek ez dituzte beti izaten tutoretza orduak, eta arazoak konplexutasuna areagotu egiten da; hori dela eta, ikastetxeek partaidetza foroak antolatu eta horiek eraginkorrak izateko baldintzak sortu behar dituzte. Ikastetxearen tamainak irakasleen arteko eta irakasleen eta ikasleen arteko harremanak baldintzatzen ditu.

Eguneroko bizitzak aukera asko ematen ditu bizikidetza lantzeko. Horrela dio ama batek: «Egunerokotasunean irakasten da bizikidetza. Txikitatik neskek eta mutilek aukera berdintasunean bizi behar dute. Bizitza osasungarrian hezi behar da, jokabide sanoak sustatu behar zaizkie. Gauza txikiak edo oinarrikoak azaldu behar zaizkie, inolako maisu erretolikarik gabe. Horrela, egunerokotasuneko gauza txikien bidez, horiek barneratzen joaten dira».


Ikastetxeek partaidetza bide asko dituzte. Eskola kontseiluak, mugak izan arren, gero eta garrantzi handiagoa hartu du eskola komunitateko taldeen partaidetza eta topaleku organo gisa. Zenbait irakaslek mesfidantza dute organo horretan, bizikidetzarako eta lankidetzarako izan beharrean, liskarrak areagotu egiten dituela uste baitute. Irakasle taldeak eta klaustroa dira irakasleek parte hartzeko eta elkar laguntzeko organoak, eta horietan, gatazkak konpontzeaz gain, akordioak ere lortzen dituzte. Ikasleek ikasgelako ordezkarien bidez, ordezkarien bileretan eta ikasgelako batzarretan laguntzen dute bizikidetza horretan. Gurasoak guraso elkarrekin bidez aritzen dira ikastetxearekin lankidetzan. Badirudi Bizikidetza batzordea ez dela eskolako bizikidetza sustatzeko foro bihurtu. Sorreran, hutsegiteak zigortzeko zeregina zuen batzorde horrek, eta baliteke horren ondorioz bideratu izana bere egitekoa zigorrak ezartzera, bizikidetza sustatzera baino gehiago.

Ikasleek onartzen dute parte hartzeko bideak eskaintzen zaizkiela, baina ez dute nahikoa direnik uste: «Guk ez dugu arauak egiten parte hartzen. Ikasturtearen hasieran arau guztiak eman zizkiguten, eta horietatik ondo zein iruditzen zitzaizkigun esan behar genuen. Ikasgela osoa elkartu ginen behin baino gehiagotan, eta bakoitzak ondo edo gaizki zer ikusten zuen aztertu genuen, zer aldatu behar zen... Tutorari eman genion. Baina ez dugu horren emaitzarik ikusi» «Nik horretan parte hartu dut, Eskola kontseiluko kide naizelako, baina gainerakoek ez dute parte hartzen. Gainerako ikasleek zerrenda batean idazten dute gaizki ikusten dutena, eta Kontseiluko kideoi ematen digute. Ondoren, ordezkariak elkartu, eta guztien iritzia entzuten da, gai hori Kontseilura eraman aurretik. Baina, noski, Kontseiluan sei ikaslek egin behar diegu aurre guztiei –zuzendaritzari, irakasleei eta gurasoei–; gutxiengoa gara, eta ez dugu inoiz irabazten. Irakasleren bat inoiz egon izan da gure alde...».

Lehen nahiz bigarren hezkuntzako irakasleen ustez, partaidetzak eragin handia izan dezake eskolako bizikidetzaren sustapenean; horren ondorioz, ikastetxe batean dauden partaidetza forma guztiak erabiltzea komeni dela azpimarratzen dute. 23. grafikoan, balorazio guztiak biltzen dira, 1etik (ezer ez) 4rako (asko) eskalan, baita abstentzioen ehunekoa ere.

23. grafikoa

Ikastetxeko bizikidetza sustatzea, partaidetzaren bidez (lortu nahi den egoera)



Berriz ere, garrantzi handia ematen zaio eguneroko dinamiketan, gatazken konponketan eta Eskola kontseiluan parte hartzeari, eta ez dago horien arteko balorazioetan alde handirik. Bizikidetzaren batzordea ez dute beste faktoreak adina balioesten.

Abstentzio kopurua handiagoa da oraingo honetan, gaur egun ikastetxeetan gertatzen ari denari buruz erantzuteko eskatu zitzaizenean baino. Pentsa liteke beren ikastetxean partaidetzak eskolako sustapenari «ez» diola laguntzen erantzun zutenak oraingo honetan aukera desberdinak hautatu dituztela, eta, helburu hori lortzeko partaidetza sustatzea komenigarria izango ote litzatekeen galdetuta, «ez erantzutea» erabaki dutela horietako zenbaitek.

Lehen hezkuntzan bigarren hezkuntza baino handiagoa da abstentzio kopurua. Agian, irakasle batzuek ez dute argi izango partaidetza bultzatzea beharrezkoa ote den; batez ere, bide jakin batzuetatik bultzatzea. Izan ere, baliteke uste izatea bide horiek konplexuegiak direla eta ikastetxeko ohiko bizimoduak nahikoa egoera eskaintzen dituela ikastetxeko bizikidetzaren positiboa sustatzeko.


Bi etapetan, bi jarrera daude: edo partaidetza eskolako bizikidetzarako funtsezkoa dela uste dute (1etik 4rako eskalan, balio maximotik hurbileko puntuazioa ematen diote), edo, bestela, abstenitu egiten dira. Abstentzio hori, agian, irakasleek partaidetza bultzatzeko modua edo hori aurrera eramateko bidea egokia ez dela uste dutelako gertatzen da, ez partaidetza berez erabilgarria ez dela uste dutelako.

Irakasleen ustez, *faktore didaktikoak* garrantzitsuak dira eskolako bizikidetzarako, Lehen Hezkuntza batik bat. 1etik 10erako eskalan, batez besteko balorazioak lehen hezkuntza 7,3 eta 6,9 artekoak dira, eta bigarren hezkuntza 6,7 eta 6,2 artekoak. Abstentzio kopurua %10 eta %20 artekoa da, eta bigarren hezkuntza lehen hezkuntza baino abstentzio kopuru handiagoa izan da.

Eskolako bizikidetzaren sustatzeko gehien balioesten diren faktoreak metodologia eta beharrian guztiei erantzutea dira. Curriculumak da gutxien balioesten dena. Hala ere, ez dago desberdintasun handirik batzuen eta besteen artean.

24. grafikoa

Faktore didaktikoen garrantzia bizikidetzaren sustapenerako (egungo egoera)



Faktore horiek eskolako bizikidetzan duten eragina, batik bat, gizarte maila ertain-altuko ikastetxeetan balioesten da; bigarren hezkuntzan, ikastetxe pribatuetan eta A eta B ereduetan.

Balorazioen arabera, ikasleek ikasketetan elkarri lagun diezaioten gehien eragiten duen faktore didaktikoa metodologia da. Eskolako jarduerak ikasle bakoitzaren interes eta gaitasunetara egokitzen diren heinean, ikaslea hobeto sentituko da, eskolako bizimodua atseginez biziko du, eta ongi moldatuko da ikasle nahiz irakasleekin. Lehen hezkuntzako irakasleek gehiagotan nabarmendu dute faktore hori Bigarren hezkuntzakoek baino. Lehen hezkuntzan, irakaslearen eta ikasleen arteko harremana estuagoa da, eta metodologia aktiboagoa eta dibertsifikatuagoa izan ohi da, bai esperientzia pedagogiko berriztatzaileek eraginda, bai duten ordutegi malguagoak eta ikasgelan lanean aritzeko duten antolakuntzak eraginda.

Irakasleen, ikasleen eta familien beharrezan erantzutea ere oso faktore garrantzitsutzat jotzen da eskolako bizikidetzaren sustatzeko. Hala geratzen da agerian, hainbat egoeratan: ikastetxeak ikasleen eskaerei eta beharrei erantzuten saiatzen direnean, ikasleak ikastetxera egokitu daitezela eskatu beharrean; irakasleei beren gaitasun eta interesekin bat datozen egitekoak ematen zaizkienean, irizpide ez-profesionalak erabili beharrean; eta familien eskaerei erantzuten zaienean eta familiaren egoera kontuan hartzen denean. Beste modu batera esanda, helburu pertsonalak eta instituzionalak bat etortzea lortzen denean.

Ildo horretatik, garrantzi handia dute ikasle bakoitzarengan dauden uste positiboek ere. Jakina da irakasleen jarrera horrek asko motibatzen dituela ikasleak, eta horrek ikastetxean integratzen eta bizikidetzara hobetzen laguntzen duela. Eskola arrakasta lortzeko, oso abiapuntu garrantzitsua da irakasleek ikasle bakoitzak bere ikasteko gaitasun, motibazio, estilo eta erritmoen baitan ikasteko eta garatzeko aukerak dituela onartzea. Aitzitik, irakasleek ikasle horiengandik ezer gutxi espero badute, bazterketa jarrerak eta eskolan adaptatu ezinak azalduko dira, eta, horren ondorioz, kalte handia egingo zaio bizikidetzari.

Ikasleen ebaluazioak balorazio jarraibideak adierazten ditu, ez ikasitakoarena soilik, baita ikasleak hobetzeko eta garatzeko duen gaitasunari buruzkoa ere. Ebaluaziorako erabiltzen diren ereduak eta irizpideen arabera, prozesu horren eragina desberdina izango da: ebaluazioa bizikidetzari laguntzen dion faktore integratzailea eta motibatzailea izan daiteke, edota, faktore hautatzaile bihurtuta, diziplinarik ezeko egoerak sor daitezke, ebaluazioan okerrean baloratutako ikasleek eraginda. Ebaluazioa kalifikazioak emate hutsa bada, oso faktore aukeratzailerik da; prestakuntzazko ebaluazioa bada, berriz, funtzio orientatzailea du. Hala ere, bigarren hezkuntzako irakasleek ez dute lehen hezkuntzakoek adina aukerarik ikusten bide horretatik bizikidetzaren sustatzeko.

Curriculum oso tresna erabilgarria da bizikidetzaren sustatzeko; hala ere, aztertutakoen artean, hori da itxaropen gutxien sortzen dituenak. Garrantzitsua da curriculumean bizikidetzaren laguntzen duten ikasketak edukitakoak sartzeko; izan ere, hori praktikatzeko aukera ematen dute, edo norberaren erreferentzia kulturei, esperientziei, interesei eta itxaropenei erantzuten diete. Gai horiek ez dira arloen eta irakasgaien curriculumean kontuan hartzen, eta tutoretza saioetara eramaten dituzte; halaxe onartzen du irakasle batek: «Gai horiek tutoretzetan lantzen dira gehienbat».


Familien laguntza oinarritzko faktorea da eskolako bizikidetzaren egokia izateko. Irakasleak badaki ikasleen portaera zenbait faktorek baldintzatuta dagoela: ikasleak bere egiten dituen ereduak, eta familiak (beste inork baino indar handiagoz) eskaintzen dituen estimuluei afektiboak. Horren ondorioz, familiaren partaidetza bilatzen dute, modu askotara: arazo bati buruzko informazioa, arazoa elkarrekin aztertzea, erabakiak elkarrekin hartzea. Bigarren jarduerak horrek bere baitan hartzen du lehenengoa, eta hirugarrenak, berriz, aurreko biak.

Jarduerak horien bidez, seme-alabek dituzten diziplina edo portaera negatibo jakin batzuk konpondu nahi dira, eta, neurri txikiagoan, bizikidetzaren sustapenean lagundu nahi da. Familien inplikazioa mai-

la handiagoa da lehen hezkuntzan bigarreanean baino; bi etapetan informazio kopuru handia dute; erabakiak elkarrekin hartzeari dagokionez, partaidetza baxuagoa da, eta alde handia dago bi etapen artean.

25. grafikoa

Eskolako bizikidetzan familiek parte hartzeko moduak (egungo egoera)



Ez dago desberdintasun esanguratsurik aztertutako aldagaien artean.

5.4. EAEko ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ondorioak

1. EAEko ikastetxeetako bizikidetzari, oro har, ona da. Hezkuntza komunitatearen arteko harremanak positiboak dira, eta diziplinarik gabeko egoerak ez dira normaltasunetik haragokoak. Lehen hezkuntzan bigarreanean baino positiboagoa da bizikidetzari; batik bat, bi faktore hauen ondorioz: bi etapetako ikasleen garapen fase desberdina eta ikastetxeko antolaketa eredu desberdina.
2. Hezkuntza komunitatean –eta are gehiago iritzi publikoan–, eskolako gatazkak, diziplinarik eza eta indarkeria areagotu egin direlako sentipena dago. Baina portaera horiek, areagotu baino gehiago, esan daiteke ikasgelako gatazkari buruzko pertzepzio zorrotzagoa dagoela gaur egun, eskola komunitatean gertatu diren aldaketan ondorioz:
 - Irakasleentzat oso mingarriak diren portaerak areagotzen ari dira: axolagabekeria edo kasurik ez egitea, eta hitzezko liskarrak (lehen ez bezalakoak).
 - Areagotze hori ikastetxe eta ikasle jakin batzuetan gertatzen da, batez ere. Ikasle horiek sarritan taldea osatzen dute, eta portaera negatibo oso kezagarria izaten dute.
 - Seme-alabek portaera desagokiak izan arren gurasoek babestu egiten dituztenez, irakasleak babesik gabe geratzen dira.
 - Ikasle taldeen gizarte osaeran izandako aldaketek eta askotariko portaera ereduak egoera berriak sortu dituzte. Portaera berri horiek ordura arte ezagututako portaeretatik urruntzen

badira, irakasleek diziplinarik eza eta indarkeria areagotu egin direla sentitzen dute; izan ere, gaingitu egiten dute irakaslearentzat ohikoa zen «tolerantzia muga». Hori dela eta, batzuetan ez dira bat bera izaten diziplinarik eza areagotu egin dela sentitzen duten ikastetxeak eta diziplina eza ohikoagoa duten ikastetxeak.

3. Ikastetxeetan ere beste edozein giza taldetan bezalaxe gertatzen dira gatazkak. Gizartearen demokratizazioak eskubide eta betebeharrakiko sentsibiltatea handitzea ekarri du, eta, horren ondorioz, gatazka areagotu egin da. Era berean, aldaketa kulturala gertatu da gatazkak haute-mateko moduan: batetik, jada ez dira ez positibotzat, ez negatibotzat hartzen, eta, bestetik, konponduz gero, horietatik ikasi eta hobetzeko balio dezakete. Ikasleen ustez, gatazkarik ohikoenak beren artekoak dira. Ikastetxeetan gatazkak elkarriketaren bidez konpontzen saiatzen dira, baina ez dira beti guztiak gustura geratzen, ikasleak batez ere. Irakasleek onartzen dute ez dutela behar besteko prestakuntzarik eskolako gatazkak lantzeko.
4. Ikastetxeetan ikasleen diziplinarik gabeko egoerak hezkuntza bitartekoen bidez saiatzen dira konpontzen, diziplina neurri hutsekin baino gehiago. Horrelako egoerak gertatzen direnean, konpontzen saiatzen dira: kasuaren arabera, tutorearekin banaka nahiz taldean hitz egiten da, edo, bestela, ikasturteko ordezkarien bileran edo Eskola kontseiluan eztabaidatzen da horri buruz. Eskuarki, zigorrik larrienak ez dira ezartzen; batik bat, ikastetxetik kanporatzea. Hala ere, zenbait ikastetxetan horrelako zigor gehiegi ezartzen dira.
5. Irakasleak ikasleekiko autoritatea galdu duela uste du. Autoritate galera horretan gurasoek ere badute zerikusia; izan ere, zenbaitetan, seme-alabek diziplinarik gabeko portaera izan arren, gurasoek zuritu egiten dituzte jokamolde horiek. Era berean, irakasle guztiak bateratutako, adostutako eta aplikatutako irizpiderik ez izatea negatiboa da. Hala eta guztiz ere, ohikoa da kargu bat betetzen dutenei autoritatetik ez onartzea, baldin eta ez badu autoritatea zuzen eta berdintasunez erabiliz zilegi bihurtzen.
6. Ikasleen arteko portaera negatiborik ohikoenak irainak, mehatxuak eta zenbait diskriminazio mota dira; batez ere, itxura fisikoaren edo eskola porrotaren ondorioz gertatutakoak. Ikasleek onartzen dute irakasleek eta gurasoek uste baino gehiagotan gertatzen direla portaera horiek: batetik, egoera bidegabeekiko jarrera zorrotzagoa dute, eta, bestetik, badakite berdinkideen arteko tratatu txarrak gertatzen direla, helduek ikusten ez dituzten arren. Eskuarki, indarkeriazko portaera gehiago izaten dituzte mutilek neskek baino, baina neskek nahiko maiz erabiltzen dute hitzezko indarkeria. Horrekin, gizartearen ereduak birstortzen dituzte.
7. Eskolako harremanetan oso ohikoa da axolagabekeria. Jarrera hori modu bat baino gehiagotan azalarazten da, harreman motaren arabera; hau da, ez da gauza bera talde baten barneko harremanak izatea, irakasle eta ikasleen artekoak izatea edo gurasoekikoak izatea. Baina, kasu guztietan, nolabaiteko arazoren bat duten hezkuntza prozesuetan parte ez hartzeko modu bat da.
8. Bigarren hezkuntzako ikasle gehienek uste dute irakasleek eta ikaskideek estimatzen edo balioesten dituztela; oso ikasle gutxi dira baztertuta sentitzen direnak. Baina, era berean, ikasle kopuru handi bat (batez ere, neskek) beste ikasleren batek erasoko dion beldur da, baita irakasleak ikaskideen aurrean barregarri utziko duen beldur ere.
9. Ikasleek eskolan duen portaerari buruzko aldagaien artean, desberdintasun esanguratsuenak agertzen dituen ikasleen familien maila soziokulturala da:
 - Gizarte maila ertain-altuko eta maila altuko ikasleak dituzten ikastetxeetan, eskolako komunitatearen arteko harremanak errazagoak eta hobeak dira.

- Gizarte maila ertaineko ikasleak dituzten ikastetxeetan, gurasoen poztasun maila baxuagoa da, kezkatuta agertzen baitira beren seme-alabek ikastetxean dituzten diziplinarik ezeko jarrekin. Baina, era berean, guraso horiek izaten dira seme-alabak defendatzearen irakasleekin liskarrik gehien izaten dituztenak.
 - Ikasleen gizarte maila ertain-baxua eta baxua den ikastetxeetan gertatzen dira sarrien diziplinarik eza eta eskola indarkeria.
10. Familia faktore erabakigarria da seme-alaben portaera ereduetan. EAEn, oro har, horretan arazo handiegirik ez dagoen arren, desegituratutako gero eta familia gehiago daudela ikusten da, eta horiek ez dira gai bizikidetza eredu argirik emateko. Bestalde, familia permisiboegiak ere gero eta gehiago dira. Egun, maila desberdinetan bada ere, familien funtzio hezitzailea murriztu egin da, eta horretan eragin handia dute –gero eta handiagoa– hedabideek (telebistak, batez ere) eta berdinkideen taldeek.
 11. Testuinguru soziokulturalak eta politikoak ere eragiten dute ikaslearengan. Hezkuntza komunitatearen ustez, testuinguru hori onuragarria da gehienbat, nahiz eta jakin horregatik gertatu direla eta gertatzen direla zenbait gatazka, eta horregatik daudela bakezko bizikidetza zailtzen duten elementu negatibo batzuk.
 12. Izugarri handitu da gai batzuei buruzko kontzientzia kolektiboa; hala nola, indarkeriazko jostailu eta jokoek haurren eta nerabeen jarreretan duten eraginaren garrantziari buruzkoa, eta bizikidetzan eta bakean hezten laguntzeko haietaz arduratu beharrari buruzkoa.
 13. Eskolaren eskumenetik kanpo dauden beste faktore batzuen eragina dela eta, ikastetxeek gero eta konfiantza gutxiago dute beren ahalmenetan. Baliteke horren bidez ikastetxeek beren erantzukizunak saihestu nahi izatea, edo egoera berri batean egokitzeko zailtasuna duela adieraztea; izan ere, egoera berri horretan askoz ere jardun aktiboagoa izan behar du, ikastetxeko bizikidetza sustatzeko. Gaur egun, ikastetxeek ez dituzte eskueran dituzten bitarteko guztiak erabiltzen, nahiz eta oso baliagarriak izan daitezkeen aipatu dugun helburua lortzeko.
 14. Gatazkak konpontzeko eta pertsonen arteko harremanak nahiz gizarte harremanak konpontzeko gizarteak haurrei eta gazteei azaltzen dien eredu gehienetan negatiboa izaten da. Gero eta hizkera zakarragoa erabiliz hitz egiten da, eta ez da elkar errespetatzen. Politikariak, lider sozialak, hedabideak... ez dira beti imitatu beharreko eredu positiboak izaten, alderantziz baidiz: askotan, tolerantziarik ezaren, elkarrizketatzeko gaitasun ezaren eta funsgabeko liskarren eredu dira. Indarraren eta indarkeriaren erabilera dira eman dakiekeen eredurik negatiboena. Hori dela eta, izugarrizko hipokrisia da ikastetxeetan gertatzen diren gorabeherak argitara eman eta horiengatik eskandalizatuta azaltzea, ikastetxeak egiten ari diren lana behar bezala baloratu beharrean.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan

6

Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza eskola erakundeen aspaldiko funtzio bat da, baina berria ere bai. Gizartean eskaera berri hori dagoela onartzeak ez du esan nahi hezkuntza komunitate osoan beti jarduera ildo berberei jarraitzen zaienik. Anbigutasun handia dago Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzan ikastetxeek izan behar luketen zereginari buruzko diskurtsoan: denek ez diote garrantzi bera ematen, bakoitzak desberdin ulertzen du hori gauzatzeko modua, eta, gainera, ikuspegi desberdinak daude gai honetan eskola erakundeak duen eraginkortasunari buruz ere.

Azterketaren bigarren zati honetan, gai hauek lantzen dira:

- 6.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren zentzua.
- 6.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beharra ikastetxeetan.
- 6.3. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza, ikastetxe proiektu gisa.
- 6.4. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako berariazko programak.
- 6.5. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren arduradunak ikastetxeetan.
- 6.6. EAEko ikastetxetako bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko ondorioak.

6.1. Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzaren zentzua


Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotzen dituzten hiru ideia esateko proposatu zitzairen inkestatutako hiru taldeei; hau da, irakasleei, gurasoei eta ikasleei. Jendearen ustez bizikidetza eta bakerako Hezkuntzaren mamia zerk izan beharko lukeen jakiteko eskatu zitzairen hori. Izan ere, uste horien arabera, bakoitzak helburu batzuk jarriko dizkio bere buruari: bizikidetza eta bakea lortzen laguntzeko ikastetxean landu daitezkeen eta landu nahi diren helburuak, hain zuzen ere.

Hauek dira bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotzen diren ideia nagusiak: errespetua, harreman positiboak, aniztasuna onartzea, elkarriketa eta entzutea, eta indarkeriarik eza. Diziplina eta ikastetxeko gatazken konponbidea ere aipatu izan dira, baina garrantzi gutxiago ematen zaie.

Bai haur hezkuntzan, bai lehen eta bigarren hezkuntzan, irakasle eta gurasoek antzeko neurrian lotzen dute bizikidetza eta bakerako hezkuntza aipatutako kategoria horiekin. Horien ustez, errespetua eta harreman positiboak dira ideia nagusiak, alde handirik gabe. Ikasleek, ordea, ez dituzte maila berean lotzen. Zehazki, bizikidetza eta bakerako hezkuntza harreman positiboekin lotzen dute, nabarmen.

26. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako ideiak (bigarren hezkuntzan)



Kategoria bakoitzean, irakasle, guraso eta ikasleekin egindako bileretako eta inkestetako ideiak biltzen dira. Katetoria berean adierazitako eta bildutako ideiak antzekoak, baterakoak, dira, baina ez berdin-berdinak. Osotasunean, agerian uzten dute hitz horietako bakoitzak adierazten duena oso konplexua dela.

Pertsona guztiek inork urra ezin ditzakeen eskubideak dauzkatela onartzea dakar *errespetuak*. Zehazki, hauek aipatzen dira: bizitzari, pertsoneri, kideei, desberdinak direnei, gutxiengoei eta pentsatzeko beste modu batzuei zor zaien errespetua. Bizikidetza eta bakerako ezinbesteko baldintza gisa ikusten da errespetua; horretan oinarrituta gauzatu behar dira, eta hori gabe ezin da ez bizikidetzarik, ez bakerik izan. Honela dio irakasle batek: «Errespetua funtsezkoa da, alderdi guztietan. Azalaren kolorea, ideologia... kontuan hartu gabe bestea errespetatzen den mundua mundu ideala da. Errealitatean ez da horrelakorik gertatzen, baina saiatzen gara, ikasleak errespetuz tratatzen ditugun neurrian eta haiei ere gauza bera eskatzen diegun neurrian».

Lehenik eta behin, gizakiaren eskubide besterenezinak eta bere duintasuna onartzearekin du zerikusia, guztion berdintasuna eta askatasuna onartzearekin, bai eta edozein diskriminazio motaren gaitzespenarekin ere, diskriminazioaren arrazoiak edozein direlarik ere: izaera, sinesmenak, iritziak edo nahiak. Inork ezin du eremu hori urratu. Gizabanakoaren askatasunerako muga bat da, eta, taldean, arau bihurtzen da. Batzuetan, idatzizkoak eta formalak izaten dira arau horiek; beste batzuetan, berriz, portaera duinerako, edo, gutxienez, egokirako, jokabideak.

Ama batek hausnarketa hau egin du: «Zaila da errespeturik gabe elkarrekin bizitzea. Gutxienez, beste ideia batzuk dituen pertsona errespetatuko balitz, ideia horiek edo bizitzeko modu hori onartuko balira, askoz errazagoa izango litzateke elkarrekin bizitzea». Ondorio hau atera du beste batek: «Errespetua oinarritzakoa da. Errespetatzen badakigu, gainerakoa lortzen da». Irakasle baten iritzia are erabatekoagoa da: «Errespetu terminoak gainerako guztia hartzen du».

Zentzu bertikala ere badu errespetuak: botereari eta ezarritako arauari men egitea. Gehiengoak onartzen du boterea errespetatu eta arauak bete egin behar direla, baina legitimitatea eskatzen zaio bote-

reari. Jadanik, boterea ez da, ezinbestez, aitarekin edo amarekin, edo pertsona helduarekin, eta irakaslearekin edo zuzendariarekin lotuta dagoen zerbait. Boterea zuzen erabiltzearen bidez legitimatu behar da estatutuhori; eta horrek zenbait betebeharrak dakartza berekin: batetik, gizabanakoaren oinarritzko eskubideekiko errespetua; bestetik, berriz, gizabanakoen desberdintasunetikiko errespetua berdintasun egoeran. Arauak legitimitatea izango du, lortu nahi den talde helburura egokitzen den neurrian eta hura definitzeko prozeduraren arabera. Komunitateak boterearen edo arauaren legitimitatea onartzean soilik izango dira benetan legitimo boterea eta araua. Hau dio ama batek: «Irakasleak errespetua merezi badu, ikasleak errespetatu egingo du... Orain arte errespetuari buruz geneukan kontzeptua zaharkituta dago».

Gehiengoak onartzen du boterea errespetatu eta arauak bete egin behar direla; baina, horretarako, komunitatearen beharrezko tresna direla barneratu behar da; hau da, kide guztiekiko errespetua bermatzeko komunitateak dituen baliabideak direla. Adostutako eta ulertutako kodetzat hartu behar da errespetua: bizikidetzak ona errazteko helburua baino ez duen kodetzat.

Lehentasun horren arrazoia, beharbada, irakasleek ikastetxean eta gurasoek familian daukaten botere estatusean datza. Horiei dagokie ikasleek edo seme-alabek talde arauak onartzea eta barneratzea; horiek gabe ezingo lukete bizitza antolaturik izan. Era berean, portaera ereduak ematen dizkiete. Ikasleek edo seme-alabek oinarri gisa erabiliko dituzte eredu horiek, bai sozializazio prozesuan, bai beren nortasuna eratze prozesuan.

Irakasleen ustez, lan ordenaturako eta curriculumaren edukiak ikasteko aukera ematen duen bizikidetzarako baldintza da errespetua. Ikasleek ulertzen dute irakasleek beren estatusarekiko errespetua eskatzea, baina ez dute uste irakasleek errespetu bera dietenik ikasleei. Gurasoek gero eta gehiago onartzen dute seme-alabei aginduen zergatia azaldu behar zaiela, eta boterea haien errespetua lortzeko moduan erabili behar dela. Horrek ez du esan nahi ez denik gehiegikeriarik egiten: batzuetan, azalpen gehiegi ematen dituzte; beste batzuetan, berriz, behin arauak ezarrita, ez dute horiek betetzerik eskatzen. Irakasleen eta gurasoen ustez, garrantzitsua da «hezeria ona» berreskuratzea, hori errespetu seinalea baita, bai pertsonetikiko errespetuarena, bai portaera zibilizatuetikiko errespetuarena; eta, gainera, desberdintasunik onartzen ez duen berdinaiztasun faltsua gainditzea dakar. Hau dio ikasle batek: «Gure artean, errespetua baino gehiago, konfiantza dago. Agian, heldu eta gazteen artean soilik erabiltzen dugu errespetu hitza».

Hau dio irakasle batek: «Diziplinarik ez badago, ezin dugu errespetatu. Orain ez da hitz hori erabiltzen, ez da modernoa, baina oso garrantzitsua da». Eta beste batek: «Errespetu ezari aurre egiteko erabiltzen da diziplina. Komunitate batean errespetua balego, ez legoke diziplina beharrik, nahikoa izango litzateke autodiziplina. Errespeturik ez badago, diziplina jarriko duen kanpoko agintea behar da. Arau asko ezartzen zaizkigu guri, eta guk ikasleei ezarri behar dizkiegu. Gure gizartea ez da gizarte horizontala, hierarkizatuta dago. Gizartean bizitzeko hezkuntza, zenbait gauza ikasi behar dituzte, guk ikasi ditugun bezala: ezin da nahi dena egin, arau batzuk daude ezarrita». Hau erantsi du beste batek: «Gizartean ez dago errespeturik, eta hori da arazorik handiena. Beraz, ikastetxean ezin dugu errespeturik eskatu».

Nerabeek diskriminazio ezarekin eta giza eskubideen urraezintasunarekin lotzen dute, batez ere, errespetua. Beste talde batzuek, berriz, gehiago lotu dute aniztasuna onartzearekin. Horrek azalduko luke zergatik ideia hori ez den hain ohikoa ikasleen artean. Hau dio ikasle batek: «Pertsona bat errespetuz tratatzen duzula esaten da, harekin sartu gabe, minik egin gabe, nahi duena esaten utziz eta estortsiorik egiten saiatu gabe tratatzen duzunean».

Irakasle batek onartzen du errespetuak zentzu desberdina daukala ikasle eta helduentzat: «Nire ustez, errespetu handia dago, baina ahaztu egiten zaigu gazteekin egiten dugula lan. Adin horretan, ez badituzu arauak urratzen, iraultzailea ez bazara... Nik ulertzen dut gazteek ikasi nahi ez izatea, irakaslea zi-

rikatzen aritzea... Gazte gisa jokatzan dute, eta hor diziplina hezkuntza eragile moduan erabili behar da, denborarekin autodiziplina lor dezaten».

Batez ere, errespetuak bi norantza dituela azpimarratzen dute ikasleek: nork bere buruarekiko errespetua eskatzeaz gain, bestea ere errespetatu egin behar da. Elkarrekikotasun printzipio bat da, gizaki guztien berdintasunaren ondorioa. Batzuek errespetuaren bi norantzen arteko lotura ere ikusten dute: besteek errespetu zaitzaten, besteak errespetatu behar dituzu. Errespetuaren zentzu horizontal hori bat dator pentsaera demokratikoarekin; pentsaera demokratikoa menderatze, ezarpen, gehiegikeria, arbitrariotasun eta diskriminazio guztien kontrakoa da. Hau uste du ikasle batek: «Besteekiko errespetua baduzu, errazagoa da bizikidetza. Pertsona heldu batzuen ustez, gazteoi ez zaigu errespeturik izan behar, zaborra bagina bezala trata gaitzakete. Errespetuak elkarrenganakoa izan behar du». Eta irakasle batek: «Errespetuak elkarrenganakoa izan behar du, baina ez dakit irakasleek ikasleak errespetatzen dituzten ala ez. Batzuetan, errespetua eskatzen diegu, eta ez dakit zenbateraino errespetatzen ditugun guk; beharbada, haiek gazteak direlako eta gu helduak...».

Errespetuak elkarrenganakoa izan behar du, baina besteek zu ez errespetatzea ez da nahikoa arrazoi zuk besteak ez errespetatzeko. Egoera hori oso ohikoa da eguneroko bizitzan, eta nolabaiteko nahasmena sortzen du ikasleengan. Hona hemen neska-mutilen arteko elkarriketa baten zati bat: —«Norbaitek ez bazaitu errespetatzen, zergatik errespetatu behar duzu zuk?». —«Nahiz eta berak errespetatu ez, zuk errespetatu egin behar duzu».

Maila sozioekonomiko ertain-altuko ikastetxeetako irakasleek maila ertain-baxukoetakoek baino gehiago azpimarratzen dute errespetuaren ideia; maila ertain-baxuko ikastetxeetako gurasoek, berriz, maila ertain-altukoetakoek baino gehiago azpimarratzen dute. Gizarte maila altuko ikasleen gurasoek balio handia ematen diote seme-alaben «heziara onari», eta irakasleek eskaera horri erantzuten diote. Gizarte maila baxuagoetako gurasoek irakasleen laguntza eskatzen dute, seme-alabak bizi diren gizarte testuinguruan beti argi ez dauden portaera ereduak irakasteko.

Harreman positiboak bizikidetzaren oinarria dira. Elkarrekin bizitzen ikasteko alderdi praktikoa dira. Horretan, maila asko bereizten dira: aldi berean izatea, elkarrekin bizitzea, elkarrekin lan egitea, elkarren artean banatzea, laguntasuna, elkartasuna eta lagun izatea. Eskala horretan ahalik eta mailarik gorena lortzea da, hain zuzen, Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzaren helburua. Bizikidetzan, afektuak, bizipenak eta emozioak sartzen dira, usteekin, eskema mentalekin eta kritikarako gaitasunarekin lotuta; baina, batez ere, balioak, nork bere bizitza eta bere burua egiteko oinarri dituen erreferenteak, sartzen dira; hau da, alderdi etikoa.

Pertsona arteko harreman konstruktiboak eta positiboak ezartzeko, lehenik eta behin, pertsonak bere buruarekin gustura sentitzeko eta bere emozioak eta bulkadak kontrolatzeko gai izan behar du. Autoestimua oinarritzat da norberaren kalterako bulkadarik ez izateko; besteekiko bulkada kaltegarriarik ez izateko, berriz, autokontrola behar da. Bigarrenik, komunikaziorako, trukerako eta elkarrekin lan egiteko gizarte gaitasun batzuk behar dira: nork bere ideiak eta sentimenduak hizketakideari argi, egoki, adierazten jakitea; eta lanak taldean egiten eta nork bere gaitasunekin talde lanetan laguntzen jakitea. Hirugarrenik, zenbait balio eta jarrera behar dira: nork bere burua indartzekoak, besteak kontuan izanda betiere; desberdina dena babestekoak; bestearen lekuan jartzekoak; gauzak, jakintzak eta esperientziak banatzekoak; eta gutxiago daukanarekiko, gutxiago dakienarekiko edo gutxiago ahal duenarekiko elkartasunekoak.

Ikasleen %40,6k Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzarekin lotzen ditu harreman positiboak. Bizitasun handiko garaian daude, eta, beraz, normala den bezala, besteekin egotearen eta maitasuna eta laguntasuna hartzearen eta ematearen onurak sentiaraziko dizkieten harremanak balioesten dituzte, bereziki. Beraz, ikasleek Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzarekin lotzen dute, nabarmen, bizikidetza.

Horrekin, bizikidetza moduen gabezia edo eskastasuna ere adierazten dute; bizikidetza hobe, aberatsagoa eta osoagoa nahi dute. Ez daude pozik, eta, hezkuntzaren bidez, harremanak hobetzea, bizikidetza positiboagoa izan ahal izatea, espero dute.

Ikasleen balorazio horretan, ez dago alde adierazgarririk (ez sexuaren, ez gizarte mailaren, ez ikastetxe motaren, ez aztertutako gainerako aldagaien arabera). Maila ertaineko eta ertain-baxuko ikastetxeetako irakasle eta gurasoek bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotzen dituzte harreman positiboak, maila altuko ikastetxeetakoek baino gehiagotan. A eredu lehen hezkuntzako gurasoek eta bigarren hezkuntzako irakasleek beste bi ereduak baino gehiago lotzen dute bizikidetza bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin.

Aniztasuna onartzeak hau egiaztatzea dakar berekin: pertsona desberdinak, desberdin sentitzen eta pentsatzen dutenak eta desberdin bizi direnak daudela; baita hori horrela izatea legitiemoa dela onartzea ere. Izateko, sentitzeko, pentsatzeko eta bizitzeko modu horiek, gureak ez bezalakoak, ezin direla ez baztertu, ez gutxietsi; aitzitik, giza eskubideak errespetatzen badira, guztiek merezi dutela errespetua eta balorazio positiboa (nahiz eta horiekin bat etorri ez). Aniztasuna onartzeak ez dakar soilik badirela onartzea, beste zenbait gauza ere badakartza: guztion onerako izan daitekeen aberastasuna direla; nor berea erlatibizatzea dakartela, gauzak beste modu batera (balio alternatibo bidez) uler, azal eta lan daitezkeela ikusirik; eta errealtateari buruz daukagun ikuspegia eta gure bizimodua alda eta hobe daitezkeela, beste batzuen ekarpenen bidez. Beste muturrean, berriz, diskriminazioa, sexismoa, matxismoa, nazionalismo baztertzailerak, arrazakeria eta xenofobia daude. Aniztasuna onartzeak jarrera irekia, onarpena eta kulturartekotasunean aurrera egitea eskatzen du.

Atzerriko ikasleak etorri dira, eta horien usteak, bizimoduak eta ohiturak ez datoz bat indarrean daudenekin. Hori dela eta, agerikoagoa eta beharrezkoagoa bihurtu da aniztasuna onartzea. Euskal gatazkak eman du zer pentsatu, eta, jende askoren ustez, euskal nortasunaren ezaugarri gisa onartu behar da aniztasuna: euskal nortasuna ez da uniforme, eta ez ditu beste nortasunak baztertzen.

Eguneroko bizitzan desberdintasuna onartzea ere badakar aniztasuna onartzeak. Nerabeen portaera bereizten ez badakigu (erdi ume, erdi heldu), adin desberdintasuna ere ez dugu beti onartuko. Ez da behar bezalako bereizketarik egiten adin horretako berezko jokaeraren eta ohitura, gaitasun eta balio ezak eragindako jokaeraren artean. Laburbilduz, beti ez dago argi ikasleen zein jokaera onartu behar diren. Horregatik, batzuetan, irakasleek ez dute jakiten nola lagundu behar dieten hobeto hel daitezkeen, ezta zer portaera zuzendu eta aldatu behar diren ere.

Beti ez da behar bezala onartzen ikasleen jatorriaren eta gizarte-familiaren testuinguru desberdintasuna. Hainbat itxaropen, motibazio eta esanahitarako bidea ematen du horrek, eta, askotan, baita eskola porrot eta bazterketetarako ere. Horiek guztiek eragin handia dute ikasleek beren buruaz duten irudian eta ikaskideekiko dituzten harremanetan. Gizabanakoaren desberdintasunak ere ez dira beti onartzen (itxura desberdina, interes eta gaitasun desberdinak, ikasteko eta azaldutakoari esanahia emateko modu desberdinak). Sexu desberdintasunaren onarpenean asko aurreratu dugu, baina oraindik asko dago egiteko.

Irakasle baten hausnarketa da hau: «Gazteek beren balioak dauzkate. Beti ez dakigu aldaketa horien alde onak bereizten, nahiz eta hasieran harritu... Gauza guztiak aldatu egiten direla onartu behar da. Guk askoz hezkuntza zurrunagoa jaso genuen, eta, gauzak aldatzen direnean, eskandalagarriak iruditzen zaizkigu. Gero, onartu egiten dira, eta positiboak direla ikus daiteke».

Aniztasuna onartzea berdintasunaren oinarria da. Guztiok berdina garelako onartu behar da aniztasuna. Eskubide, duintasun eta aukera berdintasuna benetakoa izateko, hori horrela dela onartu behar da, nahiz eta elkarren artean desberdinak izan. Derrigorrezko eskola hezkuntza da, hain zuzen ere, berdintasuna finkatzeko eta horretan aurrera egiteko gizarteak erabilitako tresnetako bat. Horregatik, hau da

gizartearen ardura eta zailtasun nagusia: aniztasuna onartzeko modua aurkitzea, berdintasunaren helburua kontuan hartuta. Oreak hori hautsi duen hezkuntza sistema edo ikastetxea ez da ari Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzaren alde laguntzen; berdin du zer-nolako mezu esplizitua igortzen duen, egiten edo esaten duenaren bidez. Ikastetxearen jardueraren sakoneko mezuak –mezu inplizitua, baina agerikoa– diskurtsoaren balioa ezeztatuko du, edo, behintzat, portaera aldatzeko behar duen indarra kenduko dio.

Gizarte maila altueneko ikastetxeek azpimarratzen dute gehien aniztasuna onartzea Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzarekin lotuta dagoela, beste maila batzuetakoek baino gehiago; eta hori deigarria da. Izan ere, esparru honetan, gizarte talde horrengandik etorri ohi dira proposamenik bereiztaileenak. Gabezia horrek bihurtzen al ditu ideia horrekiko kezkatia? Eguneroko jardunean saihestu nahi dena asmo oneko diskurtsoaren bidetik eramatea al da kontua?

Elkarrizketak bizikidetza eta bakea lortzeko prozesuarekin dauka zerikusia. Elkarrizketa da gatazkak konpontzeko bide arrazionala, desberdinak direnekiko eta desberdin pentsatzen dutenekiko elkargunea aurkitzeko bide arrazionala. Horretarako, nork bere iritzia eman, bestearena entzun, eta bi iritzi horiek bateragarri diren puntua bilatu behar da. Arrazionalizazio prozesua eskatzen du horrek, eta prozesu hori ez da gizabanako bakoitzaren pentsamendu edo nahien oinarrian dauden arrazoietara mugatzen. Aitzitik, balio eta aukera pertsonalak eta emozioen onarpena barne hartzen ditu. Gainera, zenbait gaitasun baliatu behar dira: asertibotasuna, enpatia, entzute aktiboa eta negoziazioa.

Hiru taldeek bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotzen dute elkarrizketa. Irakasleen eta gurasoen aukeraketan, laugarrena da; ikasleen ustez, berriz, bosgarren postuan dago. Helduak, bereziki, gehiago arduratzen dira prozesuez, arrazionalizazio prozesuez batez ere; era berean, onartzen dute ikasi beharreko prozedura eta gaitasun batzuk baliatzen direla elkarrizketan.

Hiru taldeetan aztertutako aldagaietan, ez dago alde adierazgarri konstanterik. Badira zenbait alde ereduaren artean, zertxobait handiagoak D ereduaren; baita lurralde artean ere, eta, horien artean, Gipuzkoa nabarmentzen da.

Ama baten ustez: «Asko hitz egiten da tolerantziaz, errespetuaz, baina albo batera uzten da. Ez baduzu ezer egiten horretara gerturatzeko, aldatzen saiatzeko... hori izango litzateke elkarrizketa. Asko hitz egin ondoren, elkarrekin bizitzera hel daiteke». Eta beste ama batek: «Elkarrekin bizi ahal izateko, funtsezkoa da besteei entzuten jakitea eta nork bere iritzia eman ahal izatea, bestearen iritzia kontuan hartzea eta akordioak lortzen saiatzea».

Indarkeria eza da gatazkak konpontzeko beste modu bat: ezinezkoa da eta ezin da onartu gatazkak indarkeria bidez, indarrez nagusituz, konpontzen saiatzea.

Haurrek eta nerabeek pertsona arteko harremanetan eta taldean duten jokabide bortitzak kezka sortzen du; portaera hori bat dator helduenarekin. Nahiz eta bidegabekeria eta indarkeria jakin batzuekiko kezka hazi, lehiakortasunak eta merkatu errentagarritasunak mugatzen dituzte gizarte harremanak; irizpide horiek dira nagusi, baita oinarrizko zerbitzuetan ere. Gazteek indarkeria jotzen dute beren interesak lortzeko biderik zuzenena, baita bidegabetzat eta eskubideen kaltegarritzat dituzten egoerekiko erantzuna ere. Eredu nagusiak kopiaitzen dituzte.

Indarkeria eza ez da indarkeria aldarrikapen tresna gisa hartzen duen ikuspegiarekiko kontrapuntu hutsa. Egiteko modu bat da, bidezko arrazoien aldeko jarrera aktiboa. Hemen, ezinbestekoa da hauek aipatzea: Indian, Gandhi eta herrialde hori independente bihurtzeko mugimendua; AEBetan, Martin Luther King eta hark beltzen eskubide zibilak onartzeko egindako lana; eta Hego Afrikan, Mandela eta hark arrazagatiko bereizketaren kontra egindakoa.

Ikasleek lotzen dute argien Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza indarkeria ezarekin. Litekeena da ikasleek zenbait mugimendu politiko eta sozialekin lotuta ikustea: mugimendu horietan, balio handia dute eskuzabaltasunak eta talde garrak, bai eta bidegabekerien basakeria eta zentzugabekeria jasaten dituzten indarrak ere. Gainera, beraiek eskatzen dute euskal gatazkari buruz hitz egitea, nahaspila hori argitzeko gogo biziz.

Helduak, irakasleak batez ere, zuhurragoak dira. Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza lantzean, nahiago dute pertsona arteko eremuan lan egin, hortik gero gizarte eremura igaro ahal izateko; politikari buruz nork bere ondorioak aterako dituela espero dute.

Gatazkak eta diziiplina arazoak konpontzea ere bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotzen da, baina beste ideiak baino askoz ere gutxiago. Nolanahi ere, merezi du aztertzea. Izan ere, hedabideetan, eta, beraz, iritzi publikoan, behin eta berriz agertzen da gatazkak eta diziiplina eza hazten ari direla ikastetxeetan.

Ikastetxeetako gatazkak ezin dira mugatu, eta ez dira mugatu behar, diziiplina ezak eragindako arazoetara. Zentzu hertsian, pertsonen edo taldeen eskubide, interes eta eskaeren arteko bateraezintasunarekin dauka zerikusia gatazkak. Hasiera batean behintzat, oinarri legítimo eta zentzuzkoetan funtsatzen dira aurkako bi jarrerak. Gatazka konpontzeko, elkargune bat lortu behar dute. Elkargune horretan, biak pozik egongo dira beren eskubide, interes eta beharrek; ez guztiz, baina bai behar adina.

Diziiplina ezak eragindako arazoak, ordea, ezarritako arauak egokitu gabeko portaeren ondorio dira, eta eragotzi, edo, behintzat, zaildu egiten dute ikastetxeko lana (ez diziplinarik ez duenarena soilik, talde osoarena baizik). Diziiplina ezak hau dakar berekin: ikastetxeko bizikidetzarako eta lan probetxugarriarako arauak ez betetzea. Ikastetxeetan, ohikoak dira diziiplina ezagatiko hutsegiteak. Diziplinarik gabeko egoerak oso ohikoak direnean edo egoera horiek oso larriak direnean sortzen da arazoa.

Beraz, bi alderdi hartzen dira kontuan arazo horretan: alde batetik, gertakarien errealitate objektiboa; bestetik, berriz, maiztasunari edo larritasunari buruzko ikuspegi subjektiboa. Azken horretan, alderdi pertsonalek eragiten dute, eta, horien artean, tolerantzia mailak nabarmentzen dira. Bi alderdi hauek baldintzatzen dituzte tolerantzia mailak: egoera bati buruzko iritzia emateko bakoitzaren irizpideek, batetik, eta portaera jakin batzuk geldiarazteko eta bideratzeko gaitasunak, bestetik. Gizarte eta ikastetxe aldaketa da eragile objektiboetako bat; gainera, izugarri eragiten du egoera ulertzeko moduan. Aldaketa horiek gero eta eragin handiagoa dute ikastetxeko bizitzan. Ondorioz, orain arteko irizpideek ez dute egoera berrirako balio, eta aurreko esperientzia ez da hain eraginkorra. Horrek guztiak diziiplina gabeko egoerak konpontzeko gaitasunik ez dugula sentiarazten digu, bai eta ezintasuna ere.

Batzuetan, gatazka adierazle ere bada diziiplina eza. Ikasleak protestatzeko duen modutzat har daiteke; hau da, arau batek ez dituela bere eskubideak errespetatzen edo ez dituela bere interes eta behar legítimoak kontuan hartzen uste duenean protestatzeko erabiltzen duen modutzat. Askotan, ikasle batzuek diziiplina eza baliatzen dute desadostasuna adierazteko: ez urratutako arauarekiko desadostasuna salatzeke, ikastetxeko bizitzako beste alderdi batzuk baizik: jasotako irakaspenak, ikasitakoaren ebaluazioa, irakasle baten portaera... Beste batzuetan, autoestimu eza edo ikastetxeko bizitzan ezin integratua eta egokitua adierazten dute... Horrelakoetan, gatazka seinale bihurtzen da diziiplina eza.

Ikastetxe batean nolabaiteko larritasuneko diziiplina gatazkak edo arazoak sortzen direnean, horiek konpontzeko beharra sumatzen da, behar larria batzuetan. Izan ere, ikastetxeko bizikidetza orokorra desoreka dezakete. Hasieran, jokaera disruptibo horiek geldiarazten saiatzen da; gero, jokaera horiek modu positiboan bideratzea izaten da helburua. Denbora erabakigarria izaten da; dena den, diziiplina gatazka eta arazo horiek gehiegi ez luzatzeko, funtsezkoa da elkarriketarako eta bitartekotzarako gaitasuna izatea, bai eta guztiak elkar ulertzeko borondate oneko jarrerak hobetzen, edo, gutxienez, ez okertzen saiatzea ere.

Hauek azpimarratzen dute ideia hori: Arabako bi etapetako irakasleek, D ereduko bigarren hezkuntzako irakasleek, B ereduko bigarren hezkuntzako gurasoek, maila ertaineko ikastetxeetako bi etapetako irakasleek eta maila ertain-altuko ikastetxeetako bigarren hezkuntzako gurasoek.

6.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beharra ikastetxeetan


Beharrezko jotzen al da bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxeko hezkuntzaren esparruan? Hori jakitea da hasierako eginkizunetako bat. Batzuen ustez, gai hori beste hezkuntza eragile batzuen ardura da, familiarena batez ere, eta ikastetxean lantzea abiapuntu bat da, betebeharrak, ez helburuak. Horien ustez, ikastetxeko hezkuntzak finkatu baino ez ditu egiten ikastetxetik kanpo lortutako balioak, ohiturak eta gaitasunak.

Iritzi horrekin batera, beste ideia hau ere hedatzen ari da: ikastetxeko hezkuntza helburuen barruan, komunikatzeko gaitasuna eta soziabilitatea ere aztertu behar dira. Gizartea asko aldatu da, eta, beraz, askok uste du ez dagoela gizarte jokaerarako eredu eztaba daezinik; horrenbestez, behar hauekin heltzen dira ikasleak ikastetxera: indarrean dauden ereduak alde onak eta txarrak ezagutu behar dituzte, eta, era berean, nortasuna definitu behar dute; hau da, egungo munduan modu positibo eta konstruktiboan izateko eta elkarrekin bizitzeko aukera emango dieten balio demokratikoetan oinarritu behar dute nortasuna.

Horrela ikusten dute irakasle eta gurasoen %90ek baino gehiagok eta ikasleen %70ek baino gehiagok. Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzari emandako garrantzia datza desberdintasuna (oso beharrezkoa edo nahiko beharrezkoa). Ñabardura hori garrantzitsua da jarreraren ikuspuntutik begiratuta, eta, nolana ere, onartzen du ikastetxeko hezkuntzak ez duela ikasketak akademikoetara mugatu behar, baizik eta jarrera ikasketak eta balioen hezkuntza ere hartu behar dituela barne.

27. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beharra ikastetxeetan



Irakasleen iritzia antzekoa da etapa guztietan. Hau esan daiteke: datu horiek erakusten dute irakasleek iritzi eta jarrera aldagaita handia izan dutela gai horri buruz. Duela urte gutxi, erantzuna askoz apalagoa izango zen, nahiz eta ez dagoen hori egiaztatzeko azterketarik.

Gurasoek ikastetxeari egozten diote gizarte eskaera hori. Amei galdera hori zuzenean egitean, zalantzi erantzun zuten; ez, ordea, Bizikidetza eta bakerako hezkuntza beharrezkoa eta garrantzitsua dela uste ez zutelako, eskakizun akademikoei erantzuteko presioagatik baizik.


Ikasleak dira eszeptikoenak. Ez dute uste ikastetxea denik gai hori lantzeko ingurune egokiena. Agian, ez dute uste irakasleak direnik hezkuntza horren eragilerik onenak. Batez ere, irakaskuntza akademikoak espero dituzte irakasleengandik.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza beharrezkoa dela esaten dute. Adierazpen hori nola interpretatu jakiteko, ordea, gainerako erantzunak aztertu dira; baita, hitzetatik harago, erantzunetan ikastetxean Bizikidetza eta bakerako hezkuntza lantzearen aldeko koherentzia agerian jartzen zen ala ez ikusteko ere. Azterketa estatistiko bat egin da, eta, hala, bi azpitaldetan sailkatu dira inkestatuak. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekiko hartutako jarreraren arabera egin da sailkapena, eta bi baldintza hauek hartu dira kontuan: alde batetik, azpitalde bakoitzeko kideak elkarren artean ahalik eta antzekoenak izatea (talde barruko homogeneotasuna); bestetik, azpitaldeak elkarren artean ahalik eta desberdinenak izatea (talde arteko heterogeneotasuna). Hirugarren azpitaldean, inkestan gai horri buruzko jarrera konstanterik izan ez dutenak eta galdera askotan ez daki/ ez du erantzun aukera hautatu dutenak daude.

Irizpide horien bidez, azpitalde hauek osatu dira:

28. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekiko jarrera



	BetaBHren ez hain aldekoa	BetaBHren aldekoa	Gainerakoa
Irakasleak LH	7,7	22,2	70,1
Irakasleak DBH	8,3	37,0	44,7
Gurasoak LH	6,1	42,4	51,5
Gurasoak DBH	16,0	59,4	24,6
Ikasleak DBH	22,9	30,0	47,1

Inkestatutako ia denek bizikidetza eta bakerako hezkuntza beharrezkoa dela diote. Hala ere, inkestan, %32k soilik hartzen dute ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza lantzearen aldeko jarrera koherentea. Erdiek ez daukate jarrera argirik: horien erantzunetan, ez dago bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxeen berariazko helburu izatearen aldeko edo kontrako jarrera argirik. Inkestan, %18k diote ez daudela guztiz bat bizikidetza eta bakerako hezkuntza hezkuntza arautuan ikastetxeko ikasketaren helburu eta eduki gisa sartzearekin.

Lehenago hautemandako jarrerak egiaztatu egin dira, eta ñabardura gehiago agertu dira. Gurasoek interes handiagoa dute bizikidetza eta bakerako hezkuntzan, eta jarrera horri eusten diote erantzun guztietan. Irakasleek koherentzia gutxiago ageri dute beren jarreraren, eta nolabaiteko zalantza erakusten dute. Ikasleek errezeloak dituzte irakaspen horiekiko.


Batez ere, hauek daude bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alde: emakumezko irakasleak, ikasketaburuak eta zuzendari pedagogikoak; ikasleen artean, berriz, neskak, A ereduan ikasten dutenak eta ikastetxean karguren bat dutenak, parrokiako taldeetan eta talde bakezaleetan parte hartzen dutenak eta atzerriko truke programetan parte hartzen dutenak nabarmentzen dira.

Beste hauek, berriz, ez dira bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren hain aldeko: lehen hezkuntzan, irakasleak eta ikastetxeetako zuzendariak; bigarren hezkuntzan, idazkari kargua duten irakasleak eta maila ertaineko prestakuntza zikloetako irakasleak; ikasleen artean, mutilak eta D ereduan ikasten dutenak.

Ikastetxe pribatuek publikoek baino askoz beharrezkoago jotzen dute bizikidetza eta bakerako hezkuntza. Iritzi desberdintasun hori are agerikoagoa da ikastetxe erlijiosoetan.

29. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beharra ikastetxeetan



Bizikidetza eta bakerako hezkuntza batez ere mezu moral gisa agertzean, eremu pribatuan, erlijio-soen ikastetxeek askoz erosoago jarduten dute beste ikastetxe batzuek baino –publikoak, zehazki-. Eremu publikoan, helburu zibiko eta etikoa dauka bizikidetza eta bakerako hezkuntzak, eta, ondorioz, irakas-kuntza publikoko ikastetxe guztiei eragiten die.

Era berean, hau azpimarratu behar da: oro har, maila apaleneko ikasleak, portaera antisoziale-nak eta gizarteratzeko zailtasun gehien dituztenak gehiago eskolatzen dira ikastetxe publikoetan. Diskurtsoa eta praktika batzea proposatu da, bizikidetzarako hezkuntza erabatekoa izateko baldintza gisa.

Hiru taldeek argi eta garbi onartzen dute bizikidetza eta bakerako hezkuntza beharrezkoa dela ikas-tetxeetan; oso abiapuntu garrantzitsua da hori. Zalantzarik gabe, euskal gatazkak zaildu egin du ikastetxe-ek gai horrekiko jarrera hartzea. Beraz, esan daiteke aurrerapauso kualitatibo bat eman dela duela urte ba-tzuk pentsatzen zenarekiko.

Hori uste izatea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa norantza horretan aurrera egiteko. Beha-rra onartzeaz gain, nahitaezkoa da bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko alderdi hauetan de-nak bat etortzea: zer den, zein den jarraitu beharreko prozesua eta zein diren ikastetxeak prozesu ho-rretan dituen berariazko zereginak, bai eta horiek familiarekin eta beste hezkuntza eta sozializazio eragile batzuekin nola lotu behar diren ere. Era berean, beharrezkoa da ikastetxearen irakaspen eta hezkuntza funtzioen arteko lotura argitzea: bateragarriak eta osagarriak diren ala ez, eta irakasleen in-

plikazio maila eta modua; guztien inplikazio zuzena eta pertsonala behar den ala nahikoa den ikastetxeak irakasle jakin batzuei ematea ardura hori. Horretan guztian bat etortzea oraindik urrun dagoe-la esan daiteke.

Seme-alabak balioetan hezteko eragile nagusia familiak izan behar duela uste dute gurasoek; hala ere, ikastetxeak familian hasitako eta sustatutako lana osatzea espero dute. Eremu horretan, ordezkatzai-le funtzioa betetzen dute irakasle batzuek: familiek funtzio hori ongi betez gero, erraza eta egiteko modu-koa izango da irakaslearen lana; familia oinarriak huts eginez gero, ordea, ia alferrikakoa izango da. Hau dio irakasle eta ama den batek: «Ama naizen aldetik, aldarrikatu nahi dut gurasooi dagokigula hezkuntza. Ikastetxeei gehiegizko ardura ematen saiatzen ari dira».

Guztiak onartzen dute familien egoera aldatzen ari dela, beren hezkuntza funtzioa ahultzen eta bes-te eragile sozializatzaile batzuk, berriz, nagusitzen ari direla: berdinkideen taldea, kalea eta telebista, adi-bidez, gora egiten ari dira; horiek eragin handia dute haur eta gazteengan, baina ez daukate hezkuntza hel-bururik. Jende gutxi onartzen ditu eskolak izandako aldaketak: jada ez da aukeratutako gutxi batzuei babesa ematen dien gotorlekua; biztanle guztiei zabaldu zaie, eta gizarte bizitzako gorabehera guztien era-ginpean dago. Normalean, ikasleen presentzia masiboa dela eta, ez da ulertzen hori dela ikastetxeetako egoera berria eta horrek eskola jardura ulertzeko eta antolatze modua aldatzea eskatzen duela; aitzitik, nolabait gairatu beharreko oztopo gisa hartzen da. Bestela esanda, oraindik ez da onartzen bizikidetz-a eta bakerako hezkuntzak oinarri berriak izan behar dituela, ikaskuntzak duela urte gutxira arte indarrean egondako prozesuei ez beste batzuei jarraitzen diela.

6.3. Bizikidetz-a eta bakerako hezkuntza, ikastetxe proiektu gisa

Bizikidetz-a eta bakerako hezkuntza ikastetxe proiektu izateko, nahita eta modu sistematikoan bi-latu behar da helburu hori, beharrak aztertu ondoren, eta helburuak eta horretarako egin beharreko jar-duerak definitu gabe. Ikastetxe askoren ustez, nahikoa da betiko jarduerarekin jarraitzea. Beste ikastetxe batzuek jardura puntualak egiten dituzte (kanpainak eta abar), baina behar bezala programatutako hez-kuntza prozesurik gabe.


Curriculumean sartutako gizarte beharrei buruzko beste gai berri batzuetan bezala, bizikidetz-a eta bakerako hezkuntzan ere ekimena indibiduala izan da; eta, askotan, hala da oraindik. Haien ustez, ika-s-etxeko hezkuntza ezin da bizikidetzari eragiten dioten arazo berrietatik kanpo gelditu; izan ere, elkarre-kin bizitzeko gai diren pertsonak hezten lagun dezake. Hezkuntzaren funtzioa sakontzen eta eguneratzen lagundu dute; lehen, beste hezkuntza eremu batzuetan –bereziki, familian– hasitakoa eta oinarritutakoa finkatzeko eta baliatzeko zeregina zeukan ikastetxeko hezkuntzak.

Arlo honetako aurrerapenetako bat ikastetxean hezkuntza jardura bateratua izatean datza; dena den, ideia hori ez da behar bezala gauzatu oraindik. Irakasle bakoitzaren ahalegin bakanak, ikasgela ba-koitzean egindako lana, ia ez da ikusten, ikastetxearen proiektu baten baitan ez badago, guztien lan eten-gabe eta koherentearen emaitza ez bada.

Ikastetxeek dokumentu hauetan definitzen dute dagokien funtzioari buruzko ikuspegia: epe ertai-nerako instituzio plangintzak biltzen dituzten dokumentuetan (hezkuntza proiektua eta curriculum pro-iektua), epe laburrerako instituzio plangintzak biltzen dituzten dokumentuetan (urteko plana) eta ika-s-gelaren programazioetan. Irakasle gehienek ustez, dokumentu horiek guztiek barne hartzen dute bizikidetz-a eta bakerako hezkuntza.

30. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxeen instituzio plangintzetan non ageri den



Baiezko erantzunak ugariagoak dira lehen hezkuntzako ikastetxeetan bigarren hezkuntzakoetan baino; baina, batez ere, ikastetxe pribatuetan publikoetan baino gehiago. Baita A eta B ereduetan eta gizarte maila ertain-baxuko ikasleak dituzten ikastetxeetan ere. Lehen hezkuntzan, irakasleen %18 inguruk ez dute erantzun, eta, bigarren hezkuntzan, %28 inguruk; batez ere, ikastetxe publikoetako eta D eredu-ko irakasleak dira.

Ikastetxe gehienetan, nahiz eta oinarrizko dokumentu horietan sartu bizikidetza eta bakerako hezkuntza, era askotako ekimen indibidualak daude; bizikidetza eta bakerako hezkuntza oraindik ez da talde proiektu bat. Aurreko erantzunarekiko koherentziari eutsiz, ikastetxe publikoetan sortzen dira horrelako ekimenak (%40,5 lehen hezkuntzan eta %44,8 bigarren hezkuntzan), pribatuetan baino gehiago (%30,7 eta %39,7 bi etapetan, hurrenez hurren).

Ikastetxe pribatuek, erlijiosoen ikastetxeek bereziki, diskurtso landuagoa daukate bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz, eta azaltzeko prest daude. Ikastetxe publikoek ez daukate hain argi zer zeregin daukaten balioen hezkuntzan, ezta horri heltzeko moduan ere.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza, eta, oro har, balioetan hezteko hezkuntza, ikastetxearen hezkuntza proiektutik abiatzen da; baina hezkuntza komunitate osoak baliatu behar du, irakasleek bereziki. Hau dio irakasle batek: «Ikastetxeak hezkuntza proiektuan oinarrituta egiten du lan. Nahikoa baliabide eta orientabide dauzka hor. Nahiz eta guztiok onartu, %50ek edo %30ek soilik lantzen dituzte gai horiek».

Ama batek curriculum proiektuan konpondu beharreko arazo bat azaldu du; alegia, nola batu eza-gutza eta balioen irakaskuntza: «Nire ustez, egiten dira balioetan hezteko proiektuak. Baina, gero, arazoa sortzen da: balioak landuz gero, ezin diegu ezagutza handia izatea eskatu. Nahiko konplexua da, guraso-
ok dena nahi baitugu». Hau erantzun dio irakasle batek: «Nire institutuan bada nirekin bat ez datorrenik ere, baina, nire ustez, balioak ere adierazten dira ezagutzarekin batera». Berez, egia da ezagutzak eta balio-
ak osagarriak direla, baina, argiago azaltzen ez bada, ez da nahikoa.

Ikastetxe gehienetako programazioetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza badagoen arren, sakanatuta dago, beharrezkotzat jotako irakaspenak eta ikaskuntzak lotzeko berezko programaziorik gabe. Irakasle baten hausnarketa da hau: «Ez da erraza bizikidetzarako beharrezko ikaskuntzak ordenatuta eta modu sistematikoan zehazten dituen programazioa edukitzea. Nire ustez, ideala izango litzateke, baina ez dago horrelakorik. Sexu hezkuntzarako programazioa da horren adibide bat. Antzeko zerbait beharko litzateke bizikidetzan hezteko ere».

Ohikoa da Ikastetxearen urteko planean ikastetxeko bizikidetza hobetzeko planak sartzea. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako berariazko programak sustatzen dituzten ikastetxeek ikasturtean gauzatuko dituztenak sartzen dituzte plan horretan.


Ikasgelaren programazioan, bi modutan azal daiteke bizikidetza eta bakerako hezkuntza: ikaskuntzaren helburu nagusi gisa edo ikaskuntza gai nagusia aplikatzeko egoera gisa. Modu orekatuan nahasten badira, biak dira onargarriak. Irakasle batzuek ez diote bizikidetza eta bakerako hezkuntzari heltzen; ez interesgarria eta beharrezkoa dela uste ez dutelako, berria eta lanean txertatzeko zaila iruditzen zaielako baizik. Ikasle batek hala onartzen du: «Bizitza osoan etxean irakatsi zaizkigun gauzak irakatsi behar dizkigute orain irakasleek, portaera eta antzeko gauzak. Gurasoek etxean irakatsi dituztela ikusi dute beti irakasleek. Ondorioz, errespeturik ez dieten gazteez, ikasgelan nola egon ez dakitenez, arduratu behar dute, eta horrelakoetan ez dakite nola jokatu».

Lehen hezkuntzan, ikasgelako ikaskuntzei eta jardueri lotzen zaie, batez ere, bizikidetza eta bakerako hezkuntza; bigarren hezkuntzan, berriz, gehiago jotzen da ikastetxe jardueratzat, eta ez dauka hala inplikaziorik ikasgeletako praktikan.

Ohartu dokumentu gehienak nahiko berriak direla, eta lehenbiziko idazketan edo osatu gabe daudela oraindik. Dokumentu horietan, finkatutako praktikak eta adostasun handieneko ideiak ari dira sartzen, proiektu berriztatzaileak baino gehiago. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako hezkuntza komunitatearen hausnarketa eta adostasuna behar dira, irakasleena batez ere. Beharbada, horrek azal dezake zergatik den ia erabatekoa zer egin beharko litzatekeen galderari buruzko erantzuna, nahiz eta oraindik ohiko praktika izan ez.

31. grafikoa

Ikastetxeen instituzio plangintzetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza non sartu beharko litzatekeen




Irakasle hauek askoz jarrera positiboagoa dute galdera guztietan: ikastetxe pribatuetakoek, B ereduok (lehen hezkuntzan, baita A ereduok ere) eta gizarte maila ertain-baxuko ikastetxeetakoek.

Irakasleen ehuneko handi batek ez daki/ez du erantzun aukera hautatu du galdera horietan: %35ek lehen hezkuntzan eta %21ek bigarren hezkuntzan. Lehen hezkuntzako irakasleen %10ek (ikastetxe pribatuetakoak dira, batez ere), nahiz eta ikastetxean zer egiten den erantzun, ez dute erantzun zer egin beharko litzatekeen. Badakite bizikidetza eta bakerako hezkuntza sartuta dagoela beren ikastetxeetako plan-gintzetan (hala erabaki dutelako Zuzendaritzak edo/eta klaustroak edo/eta Eskola kontseiluak), baina badirudi beraiek ez dutela argi ikusten horrek hala izan behar duen.

32. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxeetan (gurasoen arabera)



Gurasoen iritziz, ikastetxe askotan dago bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren aldeko mugimendua, eta hezkuntza hori hezkuntza proiektuan sartzen dela uste dute.

Gurasoak bat datoz irakasleekin. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzak garrantzi handiagoa dauka ikastetxe pribatuetan publikoetan baino, eta lehen hezkuntzan bigarren hezkuntzan baino gehiago. A ereduko gurasoak ere nabarmentzen dira.

6.4. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako berariazko programak

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza ez da ikastetxeko bizikidetza positibotik soilik sortzen. Hezkuntza hori eraginkorra izan dadin, gero eta beharrezkoagoa dirudi berariazko hezkuntza prozesuak egitea. Pixkanaka-pixkanaka, bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako programak definitzen ari dira ikastetxeak.

Programa batek errealitatea aztertzetik abiatu behar du, hobetu beharrekoa hautemateko; hezkuntza komunitatean aintzat hartu beharreko zerbait hautematen duenean, horri heltzeko asmoa azaldu behar du. Beharra ezagututa, bi gauza finkatu behar dira: alde batetik, denbora tarte jakin batean bete nahi diren helburuak; bestetik, berriz, horiek lortzeko jarraitu beharreko prozesuak (kontuan hartu beharrekoak, jarduerak, baliabideak, arduradunak....).

6.4.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programen helburuak

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programak era askotakoak izan daitezke, proposatutako helburuen arabera: garapen pertsonala, giza eskubideak, balioak, ikastetxeko bizikidetza, gatazkaren tratamendua eta abar.

Irakasleen ustez, ikastetxe gehienek curriculum esplizituan ageri dira bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako oinarritzko programak (gehiago lehen hezkuntzan bigarren hezkuntzan baino). Lehen hezkuntzan, garapen pertsonalari, afektu hezkuntzari eta pertsona arteko harremanei buruzko edukiak agertzen dira, batez ere; giza eskubideak ere lantzen dira. Bigarren hezkuntzan, giza eskubideak agertzen dira curriculumean. Bi etapetan, gatazkaren tratamendurekin lotutako edukiak agertzen dira gutxiengatik. Denak erabat ados daude programa horiek curriculumean sartzearekin.

3. taula

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programak ikastetxearen curriculumean

Irakasleak	Egiten da (ehunekotan)				Egin beharko litzateke (1-4 eskalan)			
	LH	DBH	LH	DBH	LH	DBH	LH	DBH
	Bai	Ede	Bai	Ede	Batez best.	%Ede	Batez best.	%Ede
Afektu hezk., pers. arteko erlazioak	64,6	22,3	60,2	24,4	3,8	29,5	3,6	19,0
Giza Eskubideetan hezteak	62,3	22,9	61,9	23,2	3,7	19,7	3,6	20,8
Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza	60,6	23,2	59,2	23,3	3,7	29,9	3,6	22,9
Gatazkaren tratamendua	50,0	27,6	44,1	30,0	3,7	23,9	3,6	19,3

Ez dago alde adierazgarriarik galdera horien erantzunetan.

Bai programa horiek curriculumean duten presentziari buruz galdetzean, bai bertan egon beharko luketen galdetzean, abstentzio portzentajea handia izan da: %23 inguruk ez dakite egungo curriculumean sartuta dauden ala ez, eta antzeko ehuneko batek ez daki sartu beharko liratekeen ala ez. Egin beharko litzatekeenari buruz, lehen hezkuntzako irakasleek baino gehiago erantzun dute bigarren hezkuntzakoek.

Irakasle askoren ustez, bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako gai horiek lekuren bat izan behar dute, ziur asko, ikastetxeetako irakaskuntzan. Dena den, badirudi ez dakitela ziur zer ikaskuntza mota diren, nola heldu behar zaien ikastetxean.

6.4.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programen edukiak

Eskola edukiak hiru motatakoak dira, baita bizikidetza eta bakerako hezkuntza programen ikaskuntza edukiak ere: kontzeptuak (gertakariei buruzko ezagutza, kontzeptuak ulertzea), prozedurak (egoerak, datuak... gobernatzea, azterketak egitea, aplikazioak...) eta jarrerak (gaitasunak, balorazio kritikoa, iritzi etikoa).

Irakasleek diote gizabanakoaren barruko gaitasunak eta gizarte gaitasunak lantzen dituztela: lehen hezkuntzako irakasleek diotenez, proposatutako alderdi guztietan; bigarren hezkuntzakoek diotenez, berriz, gehienetan. Irakasleak, ordea, gutxitan jabetzen dira horietaz.

Curriculum ofizialetan, modu esplizituan aipatzen dira aurreko auzi horietako asko. Egiaz, errazagoa dirudi horiek lehen hezkuntzan sartzea bigarren hezkuntzan baino. Etapa horietako irakaskuntza estilo nagusia dela eta, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan ohikoagoa da arreta ikasleek afektu eta harremanetan jartzea.

4. taula

Pertsonaren beraren eta pertsona arteko gaitasunak lantzeko maiztasuna

Irakasleak (1-4 eskalan)	LH	DBH	Ikasleak	DBH
Motibazioa	3,0	2,8		
Autonomia	2,9	2,6	Autonomia	1,7
Autoestimua	2,7	2,5		
Autokontrola	2,7	2,5	Autokontrola	1,7
Autoezagutza	2,4	2,3	Nork bere burua ezagutzea	1,9
Besteak errespetuz tratatzea	3,5	3,3		
Entzute aktiboa	3,2	2,8	Entzuten jakitea	2,3
Erabakiak hartzea	2,9	2,7	Erabakiak hartzea	2,3
Asertibotasuna	2,7	2,5	Beharra, iritzia adieraztea	2,2
Enpatia	2,8	2,4	Bestearen lekuan jartzea	1,9
Sentimenduak adieraztea	3,0	2,3	Sentimenduak adieraztea	1,7
Gatazka egoeretarako gaitasunak/estrategiak	2,9	2,3		

Irakasleen eta ikasleen ustez, balioen hezkuntza da interesgarriena bizikidetza eta bakerako hezkuntza programetarako. Irakasleek garapen pertsonala, ikastetxeko bizikidetza eta gatazkaren tratamendua jartzen dituzte jarraian; ikasleen ustez, berriz, giza eskubideak eta ikastetxeko bizikidetza dira gairik interesgarrienak.

5. taula

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren edukien artean ikastetxean gehien landu beharrekoak. Ehunekotan

	Irakasleak LH	Irakasleak DBH	Ikasleak
Balioetan hezteak	24,5	34,4	26,6
Garapen pertsonala	22,6	17,2	5,7
Ikastetxeko bizikidetza	12,1	12,8	13,1
Giza eskubideak	9,8	12,6	20,4
Gatazkaren tratamendua	10,8	7,3	3,7
Baterako hezkuntza	6,6	2,4	1,4
Euskal gatazka	1,3	2,1	9,4
Ez daki/ez du erantzun	12,3	11,2	19,3

Irakasleen eta ikasleen balorazioak ez dira guztiz berdinak. Irakasleek garrantzi handia ematen diote garapen pertsonalari; ikasleek, berriz, ez. Agian, ez dutelako horrelako kontzepturik baliatzen, eta, funtsean, ez dakitelako zer esan nahi duen. Ikasleek giza eskubideak azpimarratzen dituzte; irakasleek, berriz, ez diete halako garrantzirik ematen. Zaila da irakasleen balorazio hori ulertzea.


Irakasle gehienek ustez, bizikidetza eta bakerako hezkuntza programei dagozkien gaiak sartuta daude beren ikastetxeetako curriculumetan. Nolanahi ere, irakasle batek onartu bezala, praktikan, «gai horiek ez ditugu antolatuta eta hausnartuta lantzen»; aitzitik, beste irakasle batek dioenez, «gauza zehatzetan lantzen da bizikidetzarako hezkuntza; ez dakit, ordea, egunez egun egiten diren ala ez». Ez da harritzekoa %23 inguruk galdera horiei ez erantzutea.

6.4.3. Bizikidetza eta bakerako hezteko etapak

Hezkuntza prozesuko zein unetan da egokiena bizikidetza eta bakerako hezkuntza? Irakaspen horiek etapa jakin batera mugatu behar dira ala oinarrizko elementu iraunkor izan behar dute etapa guztietan? Irakasle gehienek ustez, hezkuntza etapa guztietan sartu behar dira helburu eta eduki horiek. Irakasleek ehuneko handi batek ez du gai horri buruzko iritzirik eman: %28,9k lehen hezkuntzan eta %40,5ek bigarren hezkuntzan.

33. grafikoa

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza emateko etapa



	Irakasleak LH	Irakasleak DBH
LHn	12,3	3,0
DBHn	1,1	6,4
Guztietan	55,8	48,9
Ez da egokia	1,9	1,1
Ez daki / ez du erantzun	28,9	40,5

Hau eskatzen du ama batek: «Balioak txikitatik landu behar dira. Hausnarrarazi egin behar zaie, eta arazoak ikuspegi kritiko eta argiz konpontzen jakin behar dute».

6.4.4. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren lekua eta unea

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programek ikastetxeetako hezkuntzan benetan zer zeregin betetzen duten jakiteko, garrantzitsua da horiek non eta nola gauzatzen diren ezagutzea. Irakasleek ustez, batez ere tutoretzan lantzen dira eta landu behar dira gai horiek; nolanahi ere, %20k ez dute erantzun. Era berean, eskola orduetan ere lekua dutela eta izan behar dutela uste dute, eta kanpainak erabil daitezkeela; dena den, %30ek ez dute erantzun, ez batean, ez bestean. Eskolaz kanpoko jardueri buruz, berriz, gehiengoak nahiago izan du erantzunik ez eman.

6. taula

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programak non gauzatzen diren

Irakasleak	Egiten dena (ehunekotan)				Egin beharko litzatekeena (1-4)			
	LH		DBH		LH		DBH	
	Bai	Ede	Bai	Ede	Bai	%Ede	Bai	%Ede
Tutoretzetan	66,9	22,7	65,8	21,2	3,8	36,3	3,7	25,4
Eskola orduetan	51,8	31,0	47,1	31,9	3,5	38,-	3,4	23,5
Kanpainetan	46,7	35,3	44,3	34,1	3,3	51,3	3,4	25,4
Eskola orduek kanpo	12,6	55,0	15,9	49,2	2,8	56,4	2,8	37,9

Ikastetxe pribatuetakako irakasleek diotenaren arabera, bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako ere erabiltzen dira ordu horiek; bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetakako irakasleek, berriz, nahiago dute erantzunik ez eman. Egin beharko litzatekeenari buruz, ez dago alde adierazgarriarik ikastetxe pribatuen eta publikoen artean, baina bai ereduaren artean: lehen hezkuntzan, A ereduko irakasleak nabarmentzen dira; bigarren hezkuntzan, berriz, B eredukoak.

Irakasle batek onartu bezala, «tutoretzan lantzen dira gehien» bizikidetza eta bakearekin lotutako gaiak. Ikasleen ustez, tutoretza gaiak interesgarriak dira, baina ikasi eta ebaluatu beharreko irakasgaiek baino garrantzi gutxiago daukate. Horietan, ez dago «ikaskuntza handirik» egin beharrik; nahikoa da iritzia biltzea eta kontrastatzea. Hala ere, ohiko eskoletan ez bezalako askatasunaz eta inplikazioaz lan daitezke gai batzuk. Dena den, seme-alaben eskolatzeko aldi bizi izandako esperientzia kontatu du ama batek: «Lehen hezkuntzan, ikastetxeak sustatu nahi zituen balioak lantzen ziren. DBHko lehen zikloan ere, zerbait egiten jarraitzen zuten; ez, ordea, hirugarren mailatik aurrera. Ikasi, ikasi eta ikasi egin behar dutela diote. Eta ez die ezer gehiago egiteko astirik ematen. Tutoretza orduan ere, gaiak ematen dizkiete, edo etxeko lanak egiten dituzte. Jada ez da tutoretzarik lantzen».

Tutoretza jarduerarik ohikoenen artean, ikastetxeko bizikidetzarekin lotutakoak nabarmentzen dira. Hala dio irakasle batek: «Bizikidetza gaiak funtsezkoak dira tutoretzan. Gai gatazkatsuei buruz eztabaidatzeko aprobetxatzen dugu; ikasle arteko arazoak daudenean edo ikaskide bat baztertzen dutenean, esaterako. Entzuteko, eztabaidatzeko eta gai horiek lantzeko aprobetxatzen dugu». Hezkuntza intereseko beste gai batzuk ere lantzen dira tutoretzan: sexu hezkuntza, drogak, ingurumena... Horien artean, bizikidetza eta bakearekin lotutako gaiei buruzko eztabaidak nabarmentzen dira; eztabaida horiek gure inguruko gertakari sozial eta politikoetan, eta gerra eta gatazka edo gizarte bidegabekeria egoeretan oinarritzen dira. Hau dio irakasle batek: «Tutoreek denbora mugatua eta behar asko –oso interesgarriak denak– dituzte lantzeko. Ikastetxe bakoitzak ikasleen behar nagusiak zein diren aztertu beharko luke, eta, guztion artean, zer egin behar den erabaki beharko litzateke».

Banakako tutoretza orduetan, diziplina arazoei edo gatazka pertsonalei heltzen zaie. Orientatzaileak, tutoreak baino gehiago, garapen pertsonalari eta ikastetxera moldatzeari buruzko gaiak jorratzen ditu ikasleekin; baita beste gai batzuk ere: ikasteko arazoei edo orientazio akademiko eta profesionalari buruzkoak, adibidez. Tutoreari dagokio gurasoei hitz egitea, ikastetxeko bizikidetzarekin lotutako gaiak lantzeko –normalean, arazoak–.

Irakasleek diotenez, bizikidetza eta bakerako hezkuntza gaiak ere lantzen dira eskola orduetan; hau da, arloei eta irakasgaiei eskainitako orduetan. Hainbat modu daude gai horiek ikasgelan lantzeko. Oso gutxitan izan ezik, «zehar lerroek dute funtzionatu», hala dio irakasle batek; ziur asko, aurreko esperientziarik eta material egokirik ez dagoelako. Gai horiek honela lantzen dira ikasgelan: arloen edukien adibide edo aplikazio gisa, edo aldizkako irakaspen gisa (ikastetxean edo inguruan jazotako gertakariak edo bestelako berriak direla eta). Hau dio irakasle batek: «Ez dakit etika irakasleak edo filosofia irakasleak edo tutoreak ikasleek eskatuta ala gusztatzen zaielako jorratzen duten horietako gairen bat».

Kanpainak interesgarriak izan daitezzen, sentsibilizatzeko eta, hala, hausnarketa, azterketa, eztabaida... prozesu patxadatsuagoa hasteko balio behar dute; edo, bestela, prozesu hori edo prozesuaren aldi bat bukatzean dira interesgarriak: konpromiso bat taldean indartzeko, hain zuzen. Askotan, ordea, kanpainak ez dituzte funtzio horiek izaten –prozesu bat eragitekoa edo bukaeran konpromisoa harraraztekoa–, eta, beraz, nahiz eta egindako momentuan interesa izan –taldean eragindako zirrargatik–, izugarri txikitzen da kanpaina horien eraginkortasuna.

Irakasle batek bere ikastetxean egiten diren kanpainen zenbait adibide eman ditu: «Nire ikastetxean, adibidez, bizitzeko beste modu batzuk, beste kultura batzuk, ezagutzeko jardunaldi bat antolatu du».

re. Ikasle batzuek Indiako neska-mutilak jaso dituzte; Gabonetan, jostailuak biltzen dira Caritasentzat; eskola materiala biltzen da Hego Amerikarako; batxilergoko ikasle batzuek SOS Arrazakerian edo DYAn hartzen dute parte; beste batzuek lagun egiten diote bakarrik dagoen adineko jendeari...».

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza gauza daiteke ikastetxean egindako jardueretan, baina eskola orduetatik kanpo; hau da, eskolaz kanpoko jarduera gisa. Ikastetxe batzuek hausnarketa eta eztabaida taldeak dauzkate; horietan, arazo bat bizi izan duten pertsonak hartzen dute parte, eta beren esperientzia taldean azaltzen dute. Irakasle gutxi ezagutzen du lan egiteko modu hori, eta gehienek ez dute horri buruzko iritzirik eman.

6.4.5. Jarduera didaktikoak

Tutoretza hizketaldiak dira bizikidetza eta bakerako hezkuntza programetako jarduerarik ohikoenak. Gatazkaren tratamenduarekin lotutako jarduerak ere egiten dira. Ez dira hain ohikoak talde eztabaidak eta kanpainak. Ikasleek ikasgelako jarduerak egiten dituzte, batez ere. Ia ez da talde tekniarik erabiltzen (rol edo simulazio jokorik, adibidez).

7. taula
Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programetako jarduerak

Irakasleak (1-4 eskalan)	LH		DBH		Ikasleak
	Batez best.	%Ede	Batez best.	%Ede	
Solasaldiak tutoretzetan	3,2	7,3	3,2	8,0	2,2
Gatazkaren tratamendua	2,7	10,5	2,5	13,1	1,6
Talde eztabaidak	2,2	11,2	2,1	12,2	1,7
Kanpainak	2,1	12,7	2,1	15,3	1,5
Lanak / jarduerak					2,1
Gatazkak konpontzeko jarduerak					1,6
Rol eta simulazio jokoak					1,3

Jarduera horiek hauetan dira ohikoenak: ikastetxe pribatuetan, A eta B ereduetan eta gizarte maila ertain-baxuko ikasleak dituzten ikastetxeetan. Etapaka, gehiago egiten dira lehen hezkuntzan; eta, bigarren hezkuntzan, DBHn.

6.5. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren arduradunak ikastetxeetan

Programak arrakastatsuak izatea horien arduradunen baitan dago. Irakasleak dira ikastetxeko hezkuntzaren arduradun nagusiak. Gurasoak, berriz, beharrezko laguntzaileak dira, seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik. Zuzendaritzak hezkuntza komunitate osoaren buruzagitza zereginarekin bete behar du. Ikastetxean lan egiten duten guztiek daukate bizikidetza eta bakerako hezkuntzan bete beharreko zereginak. Ikasleek zeregin aktiboa izan behar dute hezkuntzan, ez dute mezua jasotzen duten subjektu pasibo huts izan behar.

6.5.1. Zuzendaritza taldearen buruzagitza

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxe baten proiektu izateko, ez da nahikoa hezkuntza hori beren instituzio plangintzetan agertzea eta proiektu zehatzak finkatzea. Nahietatik errealitaterako urratsa emateko, zuzendaritza taldeak onartu eta gidatu egin behar du proiektu hori. Irakasle batek iritzi ir-moa dauka: «Zuzendaritza taldea tartean sartuta ez badago, ezerk ez du funtzionatzen».

Irakasleek onartzen dutenez, hezkuntza komunitateak bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako di-tuen ekimenak babesten ditu ikastetxeko zuzendaritza taldeak, eta horrekiko konpromisoa hartzen du; ge-hienetan, ikastetxeko proiektuak gidatzen ditu eta ikastetxean lan horri berariaz helduko dioten irakasle-ak egotea sustatzen du. Logikoa den bezala, ehunekoak behera egiten du inplikazio maila gehitu ahala; dena den, nahiko altua da beti, zuzendaritza talde askoren ahulezia kontuan hartuta batez ere (ikastetxe publikoetan, bereziki). Deigarria da lehen hezkuntzako ikastetxe pribatuetako aldea, edo bigarren hez-kuntzako ikastetxe publikoetan buruzagitza egotea inplikazioa baino gehiago.

8. taula

Zuzendaritza taldearen zeregina bizikidetza eta bakerako hezkuntzan: zer egiten den

Irakasleak (1-4 eskalan)	LH			DBH		
	Batez best.	Pub.	Prib.	Batez best.	Pub.	Prib.
Zuz. taldeak betaBHrekiko konpromisoa hartu du	7,8	7,0	9,0	6,9	5,5	7,9
Zuz. taldeak betaBH gidatzen du ikastetxean	6,9	6,4	7,5	6,7	6,-	7,1
Zuz. taldeak betaBHn komunitatea babesten du	8,2	7,8	8,8	8,1	7,8	8,2
Zuz. taldeak irakasleek betaBHn parte har dezaten sustatzen du	6,7	6,3	7,3	6,3	5,3	7,0

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan zuzendaritza taldeek dituzten inplikazio eta buruzagitza por-tzentajeek gainditu egiten dute bizikidetza eta bakerako hezkuntza IHPn, ICPn eta IUPn sartuta dagoe-la diotenen portzentajea. Beraz, horrek adierazten du, askotan, zuzendaritza taldeek interes handia dute-la ikastetxeko bizikidetza positiboa izan dadin, eta, nolabait, horretarako lan egiten dutela, baina ikastetxearen berariazko proiekturik izan gabe. Paralelotasuna agerikoa da ikastetxeen proiektuetan bizi-kidetza eta bakerako hezkuntza sartzearen eta zuzendaritza taldearen zereginaren artean. Errealitate bera-ren bi aurpegiak dira.

Ama batek honela deskribatu du zuzendaritzak ikastetxeetan duen buruzagitza: «Zuzendari batek oso ideia argia badauka, arrastoa uzten du. Argi dago ez zaizkiola denak lotuko; ez ikasle guztiak, ez irakasle guz-tiak, baina asko bai. Institutuaren lehen zuzendariak oso ikuspegi zabala zeukan, eta, ez dakit, baina bazen gauzak abian jartzen zituen zerbait». Beste irakasle batek zuzendaritzaren funtzioa zehaztu du: «Ekimenek ez daukate zertan zuzendaritza taldetik etorri, baina zuzendaritza taldeak babestu egin behar ditu».

Bi eskola sareek onartzen dute bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzen eta gidatzen zuzenda-ritza taldeek betetzen duten zeregina; dena den, ikastetxe pribatuetako irakasleek publikoetakoek baino gehiago nabarmentzen dute hori. Bi hauek azal ditzakete alde horiek: batetik, irakaskuntza publikoan eta pribatuan ikuspegi desberdina izatea Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz; bestetik, berriz, ikaste-txe publikoetan zuzendaritza taldeek duten ahulezia.

Gizarte maila ertain-baxuko ikastetxeetako irakasleek ere gehiago azpimarratzen dute zuzendaritza-ren zeregin hori, maila ertaineko eta ertain-altuko ikastetxeetan baino gehiago; ziur asko, aurreko atalean


ikusi bezala, bizikidetza arazoak handiagoak direlako eta hezkuntza programa horiek indar handiagoz bultzatu behar direlako.

Era berean, A eta B ereduetako irakasleek baiezko erantzun gehiago eman dituzte D eredukoek baino.

Edonola ere, hauek eskatzen dituzte irakasleek: alde batetik, zuzendaritza taldeak bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekiko konpromisoa hartzea; bestetik, berriz, hor daukaten zeregina ere onartzea. 1etik 4rako eskalan, 3,5 eta 3,8 artekoa da batez besteko balorazioa.

34. grafikoa

Zuzendaritza taldeak betaBHn bete beharko lukeen funtzioa



Ia berdin eskatzen dute lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan; alde txikia dago ikastetxe pribatuen mesedetan, baina ez da adierazgarria. Hauetan, berriz, oso nabarmena da zuzendaritza taldea bizikidetza eta bakerako hezkuntzan inplikatzeko eskaera: maila sozioekonomiko ertain eta ertain-baxuko ikastetxeetan, eta A eta B ereduetan.

6.5.2. Irakasleen inplikazioa eta gaitasuna bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako

Ikastetxeen proiektu guztiak bi hauen baitan daude: lehenik eta behin, irakasleek proiektu horiek beren gain hartzearen baitan; bigarrenik, irakasleek hezkuntza funtzioa betetzeko gaitasuna izatearen baitan. Horiek biek –hau da, irakasleen inplikazioak eta gaitasunak– elkar indartzen edo ahultzen dute, eta, beraz, zaila da bata bestea gabe izatea. Bi eragile horiek eragin erabakigarria izango dute emaitzetan, lorpenetan.


Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako jarrera eta balio positiboak sustatzen dituztela uste dute irakasleek. Gurasoen ustez ere, bizikidetza positiboa bultzatzen dute irakasle gehienek. 1-10 eskalan, batez beste 7,9 puntu eman dizkiete bi taldeek lehen hezkuntzan; bigarren hezkuntzan, berriz, batez beste 7,3 puntu.

Nolanahi ere, irakasleen ustez, ez dago behar bezalako prestakuntza planik bizikidetza eta bakerako hezkuntza nahi adinako gaitasunaz gauzatzeko. 1-10 eskalan, batez beste 4 puntu eman dituzte bi etapetan.

Bi horietan, askoz balorazio hobea egin dute lehen hezkuntzan bigarren hezkuntzan baino, eta ikastetxe pribatuetan hobea publikoetan baino.


35. grafikoa

Bizikidetza sustatzeko irakasleek egindako lana



36. grafikoa

Irakasleak betaBHN prestatzeko plana



Aurretik ikusi bezala, irakasleen jarrera funtsezkoa da bizikidetza eta bakerako hezkuntza prozesu guztietarako. Nolanahi ere, irakasleen jarrerari buruzko iritziz positiboak ez du bermatuko beharrezko programak gauzatzea, ez badauzkate prestakuntza egokia eta nahikoa baliabide (didaktikoak, pertsonalak, denborazkoak...). Irakasleak ikastetxearen proiektuetan inplikatzeko beharra eta horren garrantzia onartzen ditu ama batek: «Irakasleek konpromisorik hartzen ez badute, ezer gutxi egin dezake zuzendaritza taldeak. Gustatzen ez zaidan edo egiterik nahi ez dudana zerbait egiteko agintzen badidazu, ez dut egingo, edo gaizki egingo dut».

Hori dela eta, prestakuntza ikastaroak eta aholkularitza handiagoa dira irakasleen eskaerarik irmoenetako batzuk.

9. taula

Irakasleen eskaerak bizikidetza eta bakerako hezkuntzan inplikatzeko

Irakasleak (ehunekotan)	LH			DBH		
	Bai	Ez	Ede	Bai	Ez	Ede
Prestakuntza ikastaroak	65,8	23,4	10,8	59,8	22,5	17,7
Aholkularitza	58,6	30,4	11,0	58,0	21,8	20,2

Ikastetxe publikoetako irakasleek pribatuetaoek baino argiago ikusten dute prestakuntzari esker irakasleak gehiago inplikatzeko direla. Dena den, galdera honetan gehiago abstenitu dira ikastetxe publikoetako irakasleak ikastetxe pribatuetaoek baino.


Irakasleek diotenez, ez daukate beren beharretara egokitutako prestakuntza baliabiderik, nahiz eta EAEko irakasleak prestatzeko azken urteotan GARATU planean bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako nahikoa ikastaro eskaini diren eta askotan ez diren gauzatu. Beharbada, eskaintza eta eskaera bat ez datozela edo prestakuntza motak egokiak ez direla esan nahi du horrek. Bestalde, ikastetxe batzuek ikastetxeko bizikidetzan oinarritu dituzte prestakuntza proiektuak.

6.5.3. Ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza gauzatzeko baliabideak

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan inplikatzeko proposatzean, estutasun larrian daudela onartzen dute irakasleek. Horien ustez, ez da nahikoa alde aurreko esperientzia, eta, beraz, hezkuntza prozesu berriak gauzatzeko baliabideak eta Administrazioaren babesa eskatzen dituzte. Irakasleen ustez, hauetan dago, besteak beste, ahuleziarik handiena: baliabide eta bitarteko gabezia, eta Administrazioaren babes faltan. 0-10 eskalan, puntu kopuru hauek eman dituzte, nahikoa baliabide ba al dagoen eta Administrazioak babesa ematen al duen galdetu zaienean: 4,8 lehen hezkuntzan, eta 4,3 bigarren hezkuntzan.



37. grafikoa

BetaBHrako baliabideak eskura izatea



38. grafikoa

Administrazioak betaBHri emandako laguntza




Lehen hezkuntzako ikastetxeek bigarren hezkuntzakoek baino balorazio hobea egin dute, eta ikastetxe pribatuek publikoek baino hobea.

Ahulezia horrek eskaerak dakartza berekin. Lehenik eta behin, hau eskatzen dute irakasleek: berriratzeko programak, eskola orduetan ikasgelara egokitze modukoak –bai arloen irakaskuntzan, bai tutorretza orduetan–. Programekin batera, material didaktiko egokiak ere eskatzen dituzte. Beste eskaera mota bat programa horiei eskain dakiekeen denborari dagokio.

Eskaera %50etik gorakoa da beti, nahiz eta %25 inguruk baliabide horiek nahi ez eta %10ek baino gehiagok iritzirik eman ez. Ikastetxeek bizikidetza eta bakerako hezkuntzan inplikatzen behar dutela uste dutenek eskatzen dituzte gehien baliabide horiek. D ereduko irakasleek, eta, gutxiago bada ere, B eredukoek, azpimarratzen dituzte eskaera horiek. Irakasleen ehuneko handi batek ez du erantzun.

Gehiengoak ez daki Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ikastetxeetako bizikidetzarako hezkuntza programa aurkeztu zuenik 2000-2003rako. Horrek esan nahi du ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza bultzatzea pentsatu duela Administrazioak. Dena den, irakasleek ez dute horren berri, komunikazio politika eskasagatik edo programa bera behar bezala ezarri ez delako.

39. grafikoa
Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako beharrezko baliabideak



Irakasleek uste dute ez daukatela bizikidetza eta bakerako hezkuntza gauzatzeko beharrezko baliabide didaktikorik. Hau onartu du irakasle batek: «Estamentu publikoek material asko egin dituzte, baina ezin dira guztiak asimilatu: drogazaletasunaren kontrako programa, HIESaren kontrako programa, sexu hezkuntzarako programa eta abar. Programek behar bezala funtzionatzeko, pauso guztiak eman behar harko lirarteke, baina batzuetan ezinezkoa da. Ez da soilik materiala edukitzearen kontua. Irakasleen gogoia berotu behar da, horretan sarrarazi behar ditugu. Gai batzuk izanda egin daiteke hori, ez sei edo gehiago izanda». Beharbada, horrek esan nahi du dauden materialak erabiltzeko zailtasunari egotzi behar zaiola baliabide didaktiko falta, ez benetako gabeziari. Askotan, arazo zehatz bat lantzen duten materialak egiten dira, eta ez da kontuan hartzen irakasleen lan osoa. Nahiz eta material bikainak izan, ezin bada ohiko ikastetxe programetan –curriculumean, bereziki– sartu, erabilera mugatua izango dute nahitaez; ez dute eskola ohiturak nahi bezala aldatzerik lortuko.

6.5.4. Familien lankidetza bizikidetza eta bakerako hezkuntzan

Bizikidetza eta bakerako hezkuntza ikastetxe proiektu bat da, ikastetxearen hezkuntza proiektuaren osagai garrantzitsua; edo hala izan behar du. Hori horrela izanik, hezkuntza komunitate osoari dago-kio hori bere gain hartzea. Zuzendaritza taldearen eta irakasleen berezko ardurez gain, gurasoen lankidetza aktiboa ere behar da.

Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan gurasoek egindako lana, lehenik eta behin, eskola lanaren barruan hezkuntza horri ematen dioten garrantziaren baitan dago: familiek ez diote lehentasun maila handirik ematen bizikidetza eta bakerako hezkuntzari; bigarren hezkuntzan, batez ere (6 puntu inguru, 0-10 eskalan). Gurasoek laguntza aktibo gutxi ematen dute (5 puntu ingurukoa). Gurasoek ia ez dute prestakuntza planik (4 puntu inguru), nahiz eta inkestatutako lautik batek nahiago izan horri ez erantzun.


Lehen hezkuntzako ikastetxeetan, pribatuetan eta maila sozioekonomiko ertain-altukoetan eman dizkiete erantzunik positiboak egindako hiru galdera horiei.

Familiek ikastetxeei egiten dieten eskaera oso nahasia da. Familien nahiko ehuneko handi baten us-tez, beraiei dagokie gizarte gaitasunen hezkuntza, balioen hezkuntza –hau da, hezkuntza morala–; horrenbestez, familian egiten dena finkatzeko eskatzen diote ikastetxeari. Nolanahi ere, gurasoen erantzukizuna

gainditzen duten arrazoiak direla eta, askotan hutsune handiak hautematen dira hezkuntza horretan. Beraz, gizartean, balioen hezkuntzari lehentasuna emateko eta zeregin horretaz arduratzeko eskatzen zaie ikastetxeei. Gurasoek ez daukate argi zer espero duten eskola hezkuntzatik. Honela eztabaidatzen zuten ama batzuek: «Familiak irakatsi behar ditu balioak. Ikastetxeak lagundu egin behar du, baina ezagutzak dira nagusi, hori da sistemak eskatzen diona». «Nire ustez, ikastetxetik irtetea zenbat eta helduagoa izan, orduan eta denbora gutxiago beharko du ezagutza horiek bereganatzeko. Ez dut ulertzen gazte batek ezagutza handia izatea eta gizaki gisa hezita ez egotea, eta pena ematen dit».

40. grafikoa

Gurasoen lankidetzaren bizikidetzaren eta bakerako hezkuntzan



Lagundu nahi duten gurasoak gainezka daude, alde guztietatik egiten dizkieten eskaerak direla eta. Hala dio ama batek: «Gauza guztietan laguntza aktiboa ematea eskatzen zaigu. Ikastetxean, katekesian, eskolaz kanpoko jardueretan, eta, gainera, lan egin eta etxeaz arduratu behar dugu. Ez naiz hainbeste gauza egiteko gai sentitzen». Bestalde, oso guraso gutxi daude prest ikastetxean, guraso elkarteetan, laguntzeko; are gutxiago bizikidetzaren eta bakerako hezkuntza programak direnean edo prestakuntza prozesuetan. Hau dio ama batek: «Gurasoak ez daude prest seme-alabak bizikidetzan hezi ahal izateko beren buruak prestatzeko. Nire ikastetxean, balio horiei buruz hitz egiteko taldeak osatu ziren, eta lau katu bildu ziren».

Irakasleek gatazken konponketan, ikastetxeko bizikidetzaren hobekuntzan, espero dute, batez ere, familien laguntza. Batzuetan, bizikidetzari eragiten dioten gaiei buruz hitz egiten dute gurasoekin (ikasgelaren bileretan edo elkarrizketa pertsonaletan). Hauek izaten dira bilera horien helburuak: informatzea, seme-alaben arazoak elkarrekin aztertzea (beren seme-alabenak edo talde osoarenak), bai eta, batzuetan, erabakiak hartzea ere.

10. taula

Familiak bizikidetzaren eta bakerako hezkuntzan inplikatzeko moduak

	LH	DBH		LH	DBH
Informazioa	26,1	38,9	Iritziak jasotzea	3,3	5,3
Arazoak elkarrekin aztertzea	28,5	21,2	Inola ere ez	0,6	2,2
Erabakiak elkarrekin hartzea	27,1	15,1	Ez daki / ez du erantzun	14,4	17,3

6.6. EAEko ikastetxeetako bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko ondorioak

1. Hezkuntza komunitatearen ustez, hauek dira bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren helburuak: pertsonetikiko, beren eskubideekiko eta gizarte bizitza arautzen duten arauetikiko errespetua; bizikidetza –hau da, pertsona desberdinek elkarrekin bizitzeko gaitasuna izatea–, lankidetza eta elkartasuna; aniztasunak aberastu eta aurrera egiten laguntzen duela onartzea; elkarriketa erabiltzea gatazkak gainditzeko; eta indarkeria mota guztien gaitzespena.
2. Hezkuntza komunitateak onartzen du bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren garrantzia, bai eta ikastetxeak horretan inplikatzeko beharra ere; izan ere, hori du zeregin berrietako bat, haurrak eta gazteak sozializatzeko prozesuetan gertatutako aldaketen ondorioz.
3. Nahiz eta bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren beharra eta garrantzia onartu, zalantza eta oztopo asko daude hezkuntza komunitatean, irakasleen artean batez ere:
 - Hezkuntza komunitatean ez dago adostasunik: ez eskolak bizikidetza eta bakerako hezkuntzan beharko lukeen funtzioari buruz, ez funtzio hori betetzeko moduari buruz. Era berean, ez datoz bat bi alderdi hauek nola uztartu erabakitzean: alde batetik, balioen hezkuntza; bestetik, berriz, beti bere gain hartu duen jakintza akademikoen irakaskuntza.
 - Ez dago akordiorik ikastetxeen bizikidetza eta bakerako hezkuntza beste eragile batzuekin (familiarekin, beste hezkuntza eragile batzuekin eta komunitateko kultura eta gizarte zerbitzuarekin) lotzeko moduari buruz.
 - Bizikidetza eta bakerako hezkuntzak oztopo handiagoa dauka Euskal Herrian, euskal gatazka eta indarkeria direla eta. Gizarteak ez du horrekiko inolako jarrierarik hartu bere gain, eta, beraz, eskolak ezin du ezer zabaldu. Horrela azaltzen da ehuneko handi batek ez erantzutea bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko galderarik, eta D ereduan praktika gutxiago egitea.
4. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza moralarekin lotzen da batez ere (eremu pribatuan), gizarte etikarekin baino gehiago (eremu publikoan). Horrek azal dezake ikastetxe erlijiosoek gainerakoek baino askoz gehiago lantzea bizikidetza eta bakerako hezkuntza.
5. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzak era askotako alorrak dauzka, eta berariazko hainbat programa osagarriren bidez gara daitezke. Ikastetxe gehienek lantzen dute bizikidetzaren hobekuntza; nahikotan, gainera, afektu eta harreman hezkuntzarako eta balio demokratikoekin bat datozen jarduerak hartzeko programak eratzen dituzte. Bai irakasleek, bai ikasleek balioen hezkuntzarekin lotutako bizikidetza eta bakerako hezkuntza programak sustatu beharko liratekeela onartzen dute. Irakasleek garapen pertsonalari buruzko programak aipatu dituzte; ikasleek, berriz, giza eskubideei buruzkoak.
6. Ikastetxe gehienek, haur hezkuntzakoek eta lehen hezkuntzakoek bereziki, bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako gaiak sartzten dituzte beren hezkuntza proiektuan eta curriculum proiektuan. Nolanahi ere, sakabanatutako elementuak dira gehienetan, ez dute osatzen bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren helburuak lortzeko beharrezko diren ikaskuntzen programa sistematiko eta mailakaturik.
7. Ikastetxe gehienetan, tutoretza orduetan lantzen da bizikidetza eta bakerako hezkuntza. Talde-ikasgela eztabaidak dira jarduerarik ohikoena. Batzuetan, arloen garapenean ere jorratzen da, noizbehinkako eskola edo diziplina edukiekin lotutako gai praktikoa gisa. Ia inoiz ez da curriculumean sartu, zehar curriculum edo programazioaren ardatz egituratzaile gisa.

8. Zuzendaritza talde gehienek bultzatzen eta babesten dute bizikidetza eta bakerako hezkuntza beren ikastetxeetan. Horien inplikaziorik eta babesik gabe nekez gauza daiteke horrelako programarik.
9. Alde handia dago bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotuta gaur egun ikastetxeetan emandako irakaspenen eta ustez egin beharko litzatekeenaren artean. Norantza egokian aurrera egiteko, hauek eskatzen dituzte irakasleek:
 - Irakaspen horiek garatzeko berariazko programak.
 - Horiek gauzatzeko prestakuntza eta aholkularitza.
 - Horiek gauzatzea errazteko material kurrikularrak eta baliabide didaktikoak.
 - Irakaspen horietarako orduak.
10. Irakasle gehienek ez dakite Hezkuntza administrazioak onartutako eta abian jarritako Bizikidetza programaren berri. Horrexegatik uste dute Administrazioak ez diela behar bezalako babesik ematen bizikidetza eta bakerako programak gauzatu nahi dituzten ikastetxeei. Beste batzuek desegokitzen jotzen dituzte proposatutako prestakuntza planak eta orientabideak, eta eskasak iruditzen zaizkie helburu horretarako dauzkaten giza baliabideak eta baliabide didaktikoak.
11. Familiak gutxi laguntzen dute bizikidetza eta bakerako hezkuntzan. Beharrezkoa eta garrantzitsua dela uste dute; hala ere, beti ez dute uste eskola hezkuntzaren lehentasunezko zeregina denik hori. Ikastetxeek, berriz, batez ere gatazkak konpontzeko edo ikasleen portaera txarrei erantzuteko eskatzen dute gurasoen laguntza. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programak garatzean, familiak ez dira kontuan hartzen, ez zaie prestakuntzarik eta laguntzeko biderik ematen; eta, egiten denean ere, haien parte hartzea eskasa izaten da.

Ikastetxeak euskal gatazka dela eta 7

Euskal Herriko bizikidetzari eragiten dion gertakari garrantzitsu bat «euskal gatazka» deitutakoa da. EAEko ikastetxeetako Bizikidetzeta eta Bakerako Hezkuntzari buruzko azterketaren zati honetan, bi gauza ezagutu nahi dira: batetik, gatazka horrek zer neurritan eragiten dion ikastetxeetako bizikidetzari; bestetik, berriz, hezkuntza lanaren bidez, ikastetxeek nola lagun dezaketen hori konpontzen.

- 7.1. Hezkuntza komunitatean euskal gatazkarekin lotzen diren ideiak.
- 7.2. Ikastetxeko bizitzan euskal gatazkak duen eragina.
- 7.3. Ikastetxeen jokaera euskal gatazka dela eta.
- 7.4. Hezkuntza erakundeen jokaera, euskal gatazka dela eta.
- 7.5. Euskal gatazka dela-eta ikastetxeek duten jokaerari buruzko ondorioak.

7.1. Hezkuntza komunitatean euskal gatazkarekin lotzen diren ideiak

Euskal gatazkak ikastetxeetan zer-nolako eragina duen ezagutzeko eta ikastetxeen jokaera aztertze-ko, lehenik eta behin, hezkuntza komunitatean «euskal gatazkatzat» zer duten jakitea komeni da. Horretarako, horrekin lotzen dituzten hiru ideia idazteko eskatu zitzairen inkestatutako pertsonen. Sei kategori-atan multzokatu dira ideia horiek.

Hiru taldeek lotzen dute euskal gatazka terrorismoaren indarkeriarekin (ikasleak nabarmentzen di-ra beste bien gainetik), baita elkarrizketa eza eta komunikatzeko gaitasunik eza ere. Guztiei datozkie bu-rura konponbideak bilatzea eta bilaketa horretan politikariek daukaten ardura. Irakasleek azpimarratzen dituzte, bereziki, gatazkaren ondorioak, sortzen dituen sentimenduak edo bake eza, eta pertsonetikiko eta pertsonen eskubideekiko errespetu eza.

Erantzunetan, diskurtso politikoekin lotutako ideiak ehuneko hauetan ageri dira: ikasleen erantzun-nen %27,8; gurasoen erantzunen %27,1; eta irakasleen erantzunen %24. Ikasleen artean, diskurtso na-zionalista da nagusi; gurasoen artean, gehiago errepikatzen da diskurtso ez nazionalista; eta irakasleen ar-tean, berriz, ez dago joera argirik.

«Ez daki/ ez du erantzun» aukera kenduta, hauek dira talde bakoitzean bildutako erantzunen ehu-nekoak:

11. taula

Euskal gatazkari lotutako ideiak; kategoriatan, ehunekotan, bilduta eta multzokatuta

	Irakasleak	Gurasoak	Ikasleak
Terrorismoaren indarkeria	14,8	19,1	31,4
Elkarriketarik/Komunikaziorik ez	16,6	17,6	12,6
Diskurtso ez nazionalista	14,8	17,4	8,2
Diskurtso nazionalista	9,2	9,7	19,6
Alderdien ardura	8,6	11,3	7,2
Konponbide bilaketa	13,3	5,7	6,2
Gatazkak sortutako sentimenduak	9,7	5,0	4,2
Bake/Errespetu eza	8,7	8,2	5,7
Beste batzuk	4,4	6,0	4,9


Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, hezkuntza komunitatean aniztasun handia dagoela esan daiteke euskal gatazka ulertzeko moduan. Giza izaerako ideiekin lotzen da: terrorismoaren indarkeriak sortzen dituen sentimenduekin, eta elkarriketa, komunikazio, bake, errespetu eta konponbide ezarekin.

Hezkuntza komunitatearen ustez, heriotzak, suntsiketak, segurtasun falta eta mina dakartza; batez ere, terrorismoaren indarkeriak. Euskal gatazka gizartean sortzen ari den zatiketak kezka sortzen dio: gizarte zatikatua da; eremu askotan, ez dago komunikaziorik eta elkarriketarik; elkartasun falta dago. Horiek guztiek gizarte bizitzako eta pertsona arteko harremanetako beste eremu batzuei eragin diezaiekete. Gatazkan hitzarmenik ez lortzeak eta horren ondorioak ezin gaintitu izanak sentimendu txarrak sortzen dizkiola dio: frustrazioa, gogaitasuna eta ezintasuna.

Nahiz eta euskal gatazka guztion bizitzen parte izan, nahiz eta gai hori behin eta berriz agertu he-dabideetan, irakasleen %20k, gurasoen %18k eta ikasleen %32k nahiago dute euskal gatazkarekin lotu-tako ideiarik ez adierazi.

41. grafikoa

Euskal gatazkarekin lotutako ideiak: «Ez daki / Ez du erantzun» aukera



Ikastetxe publikoetako hiru taldeek modu adierazgarrian gainditzen dituzte ikastetxe pribatueta-ko taldeak. Ez da gauza bera gertatzen aztertutako gainerako aldagaietan.

Hainbat azalpen eman daitezke; esate baterako, hezkuntza eremua gai politikoei buruzko iritzietatik bereiztea; halako gai nahasi batean koherentzia-ko zerbait esateko zailtasuna; isiltasuna ez etetea, ezta inkesta anonimoetan ere («Edonola pentsatuta ere, larrutu egingo zaituzte. Horregatik ez da hitz egiten», dio irakasle batek; ama batzuek, berriz, hau diote: «Ikastetxeak beldur dira euskal gatazka jorratzeko», «gai zaila da, eta guztiok ere nahiko koldarrak gara»); ezkortasunaren ondorioz abstenitzea (ikasle batek hone- la adierazi zuen ezkortasun hori: «Euskal gatazkan, zerbait egin dezakeen jendeak ez du ezer egiten, ez da- kit zergatik, baina...»); beren ustez ez dagozkien ardura batzuk hartu nahi ez izatea, politikariek dago- kien lana egiten ez duten bitartean («Gure politikariak –hau da, hitz egin behar dutenak– ados jartzen ez ba- dira, ardura hori eskatuko al didate niri?»).


7.2. Ikastetxeko bizikidetzan euskal gatazka duen eragina

Ikastetxeko hezkuntza ekintzaren testuinguru sozial eta politikoak bultzatu eta baldintzatu egiten du hezkuntza ekintza hori. Euskal Herrian, hezkuntza eta kalitate eskaera handia dago; izan ere, itxaro- pen handia jarri da hezkuntzan. Kalitate adierazleen arabera, nahiko leku nabarmenean dago Euskal Au- tonomia Erkidegoko hezkuntza, bai Estatu espainiarreko beste Autonomia Erkidego batzuekin, bai gure inguruko beste Estatu batzuekin konparatuta.

Ikastetxeko bizikidetzaren eta bakerako hezkuntzaren aldeko jarduerak aldeko (10) ala kontrako tes- tuinguruan (0) garatzen diren galdetzean, Irakasle eta gurasoek emandako erantzuna nahiko positiboa izan da.

42. grafikoa

Euskal testuinguru soziokultural eta politikoaren balorazioa, bizikidetzaren eta bakerako hezkuntzaren aldeko edo kontrako eragile gisa



Balorazioa zertxobait hobea da lehen hezkuntzan bigarren hezkuntza baino. Era berean, askoz ho- bea da ikastetxe pribatueta, A ere- duan eta Bizkaian.


Balorazio hori egitean, ziur asko, Euskal Herriko hainbat giro eragile hartu dituzte kontuan irakas- leek eta gurasoek. Euskal gatazka oztopo da, horri buruz edozein ikuspegi izanda ere; hala dio ama batek:

«Oso herri konplexuan bizi gara bakerako hezteaz hitz egiteko. Desberdina da Euskal Herrian eta Sevilan. Hemen bizikidetzari buruz hitz egitea argi ez dagoen gauza pila bati buruz hitz egitea da. Politika alde batera uzten badugu, egungo gazteek indarkeria gehiago darabiltela ikusiko dugu, baina ez beste leku batzuetan baino gehiago». Emaizta itxaropentsua da. Euskal testuinguruan, ikastetxeek bizikidetzaren eta bakerako lan egin dezaketela ikusten dute.

Pertsona arteko harremanetan, euskal gatazkak ikastetxeetan eragin txikia daukala hautematen da: 1etik 4rako eskalan, batez beste 2tik beherakoa da eragin hori.

43. grafikoa

Ikastetxeko bizitzan euskal gatazkak duen eragina



Irakasle eta gurasoek adierazitakoarekin konparatuta, ikasleen ustez du euskal gatazkak eraginik handiena. Izan ere, ikasleen %22,5en ustez, euskal gatazkak nahiko eragin handia dauka beren taldeko harremanetan. Ehuneko hori askoz handiagoa da ikastetxe publikoetako ikasleen artean, Gipuzkoan, DBH eta batxilergoko ikasleen artean eta D ereduaren.

Nahiz eta euskal gatazkak pertsona arteko harremanetan zuzenean eragin ez, bada horrek eragin ditzakeen ondorioekiko prebentziorik. Ez da nahi zatiketa politikoa ikastetxeko bizitzan sartzerik, horrek ikastetxeko zatiketa eragiterik. «Arazoa da politikan dagoen gatazka ikastetxera ekar dezakezula», dio irakasle batek. Gizarte zatiketara ez heltzeko euskal gizarteak daukan arazo bera da.

Ikastetxeko bizikidetzari buruzko azterketa honen lehen zatian, ideologia dela-eta ikastetxeetan liskarrak badirela egiaztatu da. Liskar horien arrazoiak ez dira euskal gatazkari buruzko ikuspegi desberdinetara mugatzen; nolana ere, egia da gatazka hori dela liskar horien arrazoietako bat. Iritzirik politikoetan dauden aldeek sektore guztietako pertsona arteko harremanetan dute eragina, batzuetan besteetan baino handiagoa. Bi ikasle kontrako iritzia dute gai horri buruz: «Ni ezin naiz guztiz kontrako pentsaera duen pertsona batekin bizi». «Ni bizi ahal izango nintzateke; zuk zurea pentsatu, nik nirea eta kito». Eremita publikoan sortutako gatazkak (irakasle-ikasle artekoak) ez dira eremu pribatura eramaten; oro har, ez dira pertsona arteko gatazka bihurtzen. Honela dio ikasle batek: «Politika dela eta, izan dut gatazkarik irakas-

leekin, nahiz eta oso ongi konpondu beraiekin»; eta ikasle batek: «Irakasleekin eztabaidatu-edo egiten du gu euskal gaiari buruz. Adibidez, pegatina bat jarri nahi badut, eta irakasleek ez badidate uzten, hor hasten da eztabaida...»

Irakasle eta ikasle arteko liskarrik handienak, berriz, ikastetxeko guneak iritzi politikoak adierazteko erabiltzeagatik eta greba «politiko» deitukoengatik sortzen dira. Oro har, ezker abertzalearen tesieki-ko hurbilen dauden ikasleen ekimenak izaten dira; adierazpen eta bilera eskubidea eta beren auziaren elkartasuna eskatzen dituzte. Ikastetxean, irakasleei dagokie eskubide horiek eta horien erabilera arautzea –zenbaitetan, eskola kontseiluaren laguntza izaten dute–. Horretarako, batzuetan mugak jartzen dituzte; bere ikastetxean hala egin dela dio ama batek: «Herri independentearen aldeko adierazpenak jar daitezkeela hitzartu dute, baina ezin da indarkeriaren apologiarik egin». Beste batzuetan, berriz, ongi bereizi behar dute zer den talde baten iritzia eta zer hezkuntza komunitate osoaren jarrera; hala dio beste ama batek: «Azkenaldian izandako arazoetako bat pankartena izan da: non eta nola jarri behar dira? Gehienok bat gentozen pankartak jartzeko eskubidea zutela esatean, baina, balkoian edo sarrera nagusian jarriz gero, badirudi ikastetxe osoa horrekin bat datorrela, eta ikastetxe osoak ez du horrela pentsatzen. Beste leku batean jartzea erabaki zuten, hesietatik kanpora». Beste batzuetan, gutxienetan, adostasuna lortzen dute: «Azkeneko aldian, guztien artean adostutako ikurritza erabiltzea hitzartu zen eskola kontseiluan», dio ama berak.

Ikasleen testigantzek agerian jartzen dute grebek kezka sortzen duela eta eztabaida gaia dela irakasleen eta ikasleen artean: «Gure ikastetxean ez digute grebarik egiten uzten, hemen politikak lekurik ez duela diote». «Guk paper bat eraman behar dugu, greba egingo dugula adierazteko». «Nire ikastetxean ezin da politikarekin zerikusia duen ezer egin, araututa dago. Ezin da pegatinarik jarri, ezin da grebarik egin, ez manifestaziorik, ez ezer. Bai, ordea, gizarte ekimenak. Badira gauza batzuk, politikoak izan arren, sozialak ere badirenak. Zerbait politikoa eta era berean soziala dena egiten uzten ez digutenean, ez da giro izaten...» Liskar horiek konpontzeko, irtenbidea negoziatu egiten dute ikastetxeek; ez beti, ordea; hala ohartarazi du ama batek: «Ikastetxeren batean, pankarta bat dago balkoian duela sei hilabetetik».

Irakasle eta ikasle arteko liskar horiek, askotan, irakasle arteko liskarretarako bidea eman dute. «Bakoitzak bere sentikortasun politikoa, euskal gatazkari buruzko bere ikuspegia, dauka; orduan, zer egin behar da?», dio irakasle batek. Batzuk isildu egiten dira, nahiz eta hizketakideekin bat etorri ez; beste batzuek aurre egiten diete; batzuek hitzarmenak lortzen dituzte. Zenbait politikak planteamenduak egiten dituzte gaiari heltzeko; beste batzuek, berriz, hezkuntza edo etikaren arabera planteamenduak proposatzen dituzte. Gehiengoak, ordea, ez daki gaiari modu positiboan nola heldu.

Ikastetxeetan, sortu izan da euskal gatazkarekin lotutako gai batzuegatik liskarrik, baina ez indarkeriaren gaiagatik. Hauek nabarmentzen dira: euskara irakasgai izatea, ereduaren ezarpena eta curriculumaren ikuspuntua.

Euskararen eta, batez ere, hizkuntza ereduaren ezarpenak liskarretarako eta tirabiretarako bidea eman dute, bai zenbait irakasle klaustrotan, bai ikasleen guraso taldeekiko harremanetan. Gatazkak gutxituz joan dira, zenbait gauza finkatu ahala: familien eskaera definitu, irakasleek eskatutako hizkuntza profilak lortu eta ikastetxeetan postuak finkatu ahala (antolaketa eskema berrien eta egungo ikasle biztanleriaren arabera).

Zenbait salaketa egin dira, oso bakanak, euskarako edo gaztelaniako irakasgai edo euskarari eskainitako ordu kopuruari buruz.

Zenbait liskar sortu dira arlo eta irakasgai batzuen curriculumak dela eta; batez ere, testuliburu jakin batzuetan edo ikastetxe jakin batzuetan curriculumak garatzeko moduegatik. Behin eta berriz ager-

tzen da, esaterako, Euskal Herriaren gaia: lurralde eremua, esapide hori edo besteren bat erabiltzea, Euskal Herria esan daitekeen ala Euskal Autonomia Erkidegoa baino ez. Garrantzitsuagoa izan da historiari buruzko eztabaida: Espainiako historia ala Euskal Herrikoa soilik ikasi behar den, testuliburu-ek edo irakasleek Euskal Herriaren edo Espainiaren aldeko joera nazionalista daukaten, historia erabil daitekeen edo erabili behar den ikasleen izaera nazionala sendotzeko (era batekoa nahiz bestekoa izan). Beste auzi bat gehiegizko lokalismoa dela-eta curriculumetik hainbat arlo eta irakasgai kentzearena da; gure artean ez du garrantzirik izan. Irakasleen ustez, oro har, euskal gatazkaren adierazpen horiek guztiek, nahiz eta hedabideetan oihartzun handia izan, ez dute eraginik izan ikastetxe gehienetan; hala ere, hor egon dira nolabait.

(1-4 eskalan)	Irakasleak LH	Irakasleak DBH
Curriculumean	1,60	1,68

Lehen hezkuntzako ikastetxe pribatuetaiko irakasleek azpimarratzen dute gehien eragin hori, ikastetxe publikoetako eta gizarte maila ertain-baxuko ikastetxeetako irakasleek baino gehiago.

7.3. Ikastetxeen jokaera euskal gatazka dela eta

Ikastetxeek euskal gatazka dela-eta zer jokaera hartu duten jakiteko, galdera batzuk egin zitzaizkien hezkuntza komunitateko hiru taldeei: hausnarketa sistematikoak ala puntualak egiten dituzten, talde osoan ala multzo batean baino ez, ikastarorik egiten al den, indarkeria gaitzesteko ekintzak egiten diren. EAEko ikastetxeek onartzen dute euskal gatazka dela-eta egiten dituzten jarduerak, oro har, oso mugatuak direla.

Gainera, garrantzitsua da euskal gatazka dela-eta ikastetxeetan egin beharko litzatekeenari buruz euskal hezkuntza komunitateak zer iritzi duen ezagutzea. Gehiago egin daitekeela eta egin behar dela erantzun zuen, baina gehiengoak ez du borondate argirik erakusten euskal gatazka dela-eta ikastetxeetan zeregin aktiborik bere gain hartzeko, nahiz eta abian jarritako jarduerak positiboak izan.

7.3.1. Irakasleen jarduerak


Irakasleak hiru taldetan banatzen dira euskal gatazka dela-eta egiten dituzten jarduerari buruz galdetean: %20 inguruk jarduera motaren bat egiten dute; beste %20k diote ez dela inolako jarduerarik egiten; gainerakoek, berriz, ez dakite edo ez dute erantzun.

Euskal gatazka dela eta, irakasleek jarduera gutxi egiten dituzte ikastetxeetan: oso gutxi hartzen dute parte irakasle guztien arteko hausnarketa taldeetan; ez dira horiek baino askoz gehiago interes berekoen talde hausnarketetan parte hartzen dutenak. Era berean, ez dute parte hartzen euskal gatazkari eta horri ikastetxetik eman dakizkikeen erantzunei buruzko prestakuntza ikastaroetan.

Jarduera mota horiek ezohikoak izan arren, horien artean irakasle talde txikien arteko hausnarketak dira gehien egiten direnak, bigarren hezkuntzako ikastetxe pribatueta bereziki.

44. grafikoa

Euskal gatazkari buruz irakasleek egiten dituzten jarduerak




Irakasle guztien arteko hausnarketarik ez egitea gai honi buruzko isiltasunaren adierazpen bat gehiago da. Hau diote irakasle batzuek: «Irakasleok ez dugu euskal gatazka politikoari buruz hitz egiten. Ez irakasle artean, ez ikasleekin. Ez da ezer esaten. Jakintzat jotzen da». «Ez gaude batzuen eta besteen ikuspuntuei buruz lasai hitz egiteko moduan...» Hausnarketa egiten bada ere, ez da sistematikoa izaten, puntuala baizik. Hau dio beste irakasle batek: «Bizitzako gauza garrantzitsu guztiei buruz bezala, gutxi batzuen artean hitz egiten duzu horri buruz ere».

Irakasleek ez dute argi ikusten ikastetxean hausnartzea ona izan daitekeenik. Irakasleak ez daude oso ados proposatutako jarduerak egin beharrarekin. Nolanahi ere, iritzirik eman ez dutenak %17 eta %30 artean dira.

45. grafikoa

Euskal gatazkari buruz irakasleek egin beharko lituzketen jarduerak




Nahiz eta balorazio hori egin, horrek ez du esan nahi ez dutenik uste hitz egitea ona eta beharrezkoa ere ez denik. Irakasle batek onartzen duen bezala, ordea, nekez gaindi daiteke horri buruz dagoen inertzia: «Nire ustez, hitz egin behar da gai honi buruz (euskal gatazkari buruz), baina ez da hitz egiten. Egoera horretatik urrun gaudela uste dut». Erantzun ez dutenen ehunekoa handia da; horiek ez dute ikusten norantza horretan urratsak ematearen benetako onurarik.

7.3.2. Ikasleen jarduerak

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok egiten dituzte euskal gatazkari buruzko jarduerak ikasleekin, eta, zehatzago, terrorismoaren indarkeriako ekintzekin lotutakoak. Bi jarduera hedatu dira gehien: alde batetik, hausnarketa puntuala, atentaturen bat edo indarkeria ekintzaren bat gertatzean; bestetik, berriz, ekintza horien gaitzespena. Euskal gatazkari buruzko hausnarketa sistematikoa eta ikerketa lanak gutxien jarduera dira. %10 inguruk diote beren ikastetxean ez dela euskal gatazkari buruzko inolako jarduerarik egiten. Irakasleen eta ikasleen %20-30ek ez dizkiete egindako galderei erantzun.

46. grafikoa

Ikasleen jarduerak euskal gatazka dela eta




Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, lanbide heziketakoetan izan ezik, lehen hezkuntzakoetan baino jarduera gehiago egiten dituzte ikasleekin, eta ikastetxe pribatuetan publikoetan baino gehiago. Terrorismo ekintzei buruzko hausnarketa eta gaitzespena gehiago egiten dira A eta B ereduko taldeetan; ikerketa lanak, berriz, A eta D ereduetan.

Irakasle askok ez dute une egokia aurkitzen ikasleekin euskal gatazkari heltzeko: «DBHko lehen mailan, gaia korapilatsua denez, nahiago duzu aurreragoko utzi. Gero, ikasleek alde aurreko ideiak dauzkate, eta ezin duzu...». Beste batzuk, berriz, beldur dira emaitza okerragoa ez ote den izango: «(Euskal gatazkari buruz ez hitz egitea) ez da beldur kontua, arretaz ibili behar da. Suarekin jolasean ibiltzea bezala da. Ziur jakingo banu eguneroko lanerako zer bait ona ekarriko lukeela, ongi. Badakit, ordea, ikasleekin hitz eginez ez dudala euskal gatazka konponduko; aitzitik, liskarra, zatiketa izugarria, ekar lezake ikasgelara, eta oso zaila egingo litzaidake zatitutako talde batekin lan egitea».

«Ikastetxeak ez dio hezkuntza politikoari heldu nahi», dio irakasle batek. Nolanahi ere, irakasle, familia eta ikasle askoren ustez, euskal gatazkari buruzko prestakuntza jardueraren bat egin beharko litzateke ikastetxean. Dena den, nolabaiteko aniztasuna dago. %20-30ek ez dute iritzirik eman. Bost talderi egin zitzaizkien galderak, eta aldagaietan ez da ikusten hiru taldetan edo gehiagotan errepikatzen den alde adierazgarririk.

47. grafikoa

Euskal gatazka dela eta, ikasleekin egin beharko liratekeen jarduerak



Ikastetxeetan, ikasleek eskatzen dute argien euskal gatazkari buruzko hausnarketa sistematikoa eta hausnarketa puntualak egiteko. Era berean, indarkeria ekintzak gaitzetsi egin beharko liratekeela uste dute.

Ikasle batek argi ikusten du: «Nire ustez, euskal gatazkari buruz hitz egin behar da ikastetxean. Azken finean, hemen bizi gara». Hau dio beste batek: «Desinformazio handia dago mota horretako gauzen arrazoiei buruz. Jendea nola hiltzen duten ikusiz hazi gara, baina benetan oso jende gutxi daki zergatik gertatzen diren gauza horiek». Honela ulertzen du ama batek: «Gazteek horri buruz hitz egin behar dute. Edozein gai politiko sor daiteke beren artean, greba antolatu delako..., edozergatik. Batzuek era batera pentsatzen dute, beste batzuek beste batera. Hori beren ingurunean landuz joan behar dute».

Ikasle batzuek proposamen zehatzak iradoki dituzte:

- «Ongi legoke iragana historia aldetik aztertzea; aztertzea zer gertakarik ekarri duten orain bizi dugun egoera. Izan ere, nahi izan ala ez, ona da hutsetik ikastea halakorik errepika ez dadin».
- «Hitz egin ahal izatea izango litzateke onena; talde bat antolatzea, jendeak iritzia adierazteko, zer pentsatzen duen eta dituen arrazoiak esan ahal izateko. Horrela, jendeak ikasi egingo luke».

Irakasleak dira hausnarketa sistematikoak edo puntualak mahaigaineratzeko borondate gutxien dutenak. Izan ere, oso gai eztabaidagarria da, eta zaila da horri heltzea. Izan ere, irakasleen artean ere ez da horri buruz hitz egiten, eta gai horrek mesfidantza handia eragiten du ikasleen eta gurasoen artean. Irakasleen artean, adostasun handiagoa dago indarkeria ekintzak gaitzetsi egin behar direla esatean.

Ama batek irakasleen arazoa onartzen du: «Guztiok azaldu dugu gai horri buruz dugun iritzia. Irakasle bat objektiboa izatea proposatzea edo eskatzea oso zaila da, hemen oso objektibotasun gutxi baitago. Erantzukizun handia iruditzen zait irakasle batentzat». Beste ama batek ondorio hau ateratu du: «Zalantzarik gabe, ez nago hori ikastetxeetan lantzearen alde, zaila baita irakasleak objektiboak izatea. Ez dut nahi nire semeari edonork ematea bere ikuspuntua». Eta ikasle batek: «Nik ezetz uste dut, ikastetxean emanez gero, ikasleak manipulatu egingo liratekeelako... Ikastetxeetan horri buruz hitz egingo balitz, gau-

za batzuk ez lirateke jakingo. Komeni zaiena soilik jakingo litzateke». Irakasle batek beharrezkotzat jotzen du gai hori ikasgeletan lantzea, baina oraindik ezinezkoa dela uste du, ideiak askatasun osoz adierazteko zailtasunagatik batez ere: «Gai hau ez da, zehazki, tabua, lehen sexu hezkuntza zen bezala. Nire ustez, iritsiko da hitz egin ahal izango den eguna... indarkeriarik gabe... katarsia gertatuko da eta jendeak hitz egingo du, baina orain...»


Irakasle batzuen ustez, oso zaila eta arazotsua da ikasgeletan euskal gatazka jorratzea; nolanahi ere, edukizko arazoei buruz kontzientzia aurrera egiten lagun dezaketela uste dute, beste gatazka batzuk aztertuz: Irlandako bake prozesua, palestinarren eta israeldarren gatazka eta antzeko beste batzuk. Hau da irakasle baten iritzia: «Alderdi etikoa lantzeko –indarkeria egokia den ala ez, bizitzarekiko errespetua...– beste gatazka batzuei buruz hitz egin behar da; palestinarren eta israeldarren gatazkari buruz, esaterako. Urrunagokoa denez, eztabaida askotarako aukera ematen du. Irakasteko modu aseptikoagoa da, min gutxiago ematen du». Ama batek, nahiz eta zailtasunak onartu, zerbait egin daitekeela eta egin behar dela uste du: «Ezin da oso objektiboa izan. Argi daukagu beldurrak kendu behar direla; batzuek horren alde hitz egiteko eskubidea duten bezala, beste batzuek horren kontra hitz egiteko eskubidea dute. Dena den, grebei, hilketei edo ez dakit zeren aldeko edo kontrako pankartei buruzko hitzarmen txikiak baino ez dira lortzen».

Gurasoak nahiko ados daude: ikasleek euskal gatazka landu egin beharko lukete ikastetxean. Euskal gatazkatik abiatuta, ikastetxeetan gai hauek lantzea proposatzen dute: elkarriketa eta bizikidetzaz; euskal gatazkaren jatorria, ibilbidea eta egungo egoera; demokrazia bidez hori gaingintzeko moduak eta abar. %1ek bakarrik uste dute ez dela ikastetxeetan jorratzeko gai egokia. Bigarren Hezkuntzakoek ez dute hain argi ikusten ikastetxeetan indarkeria gaitzetsi behar denik.

Indarkeria ekintzak gertatzean, ikasleen artean hausnarketa egiteko bidea eman beharko lukete ikastetxeek; horretan dago adostasunik handiena. Era berean, askoren ustez, ikastetxeetan gaitzetsi egin beharko litzateke indarkeria. Ikasleek euskal gatazkari buruzko ikerketa lanak egitea ona ala txarra den galdetzean, berriz, ez dago halako adostasunik. Ikasleak dira horren aldekoenak; gogo gutxien dutenak, berriz, bigarren hezkuntzako gurasoak. Asko dira galderei erantzun ez dietenak.

48. grafikoa

Ikasleen jarduerak euskal gatazkari buruz. «Ez daki / ez du erantzun» aukera



Oro har, hauek dira jarduera mota hori egitearen aldekoenak: bi etapetako irakasleak, eta ikastetxe publikoetako, A eta B eredueta eta Araba eta Bizkaiko lehen hezkuntzako gurasoak; eta, neurri txikia goan, gizarte maila ertain-altuko ikastetxeetako irakasleak. Bigarren hezkuntzako guraso eta ikasleen artean, berriz, A eta D eredueta dira jarduera horien aldekoenak, eta, gutxiagotan, Gipuzkoakoak.


7.3.3. Familien jarduerak

Familien lankidetzaz ezinbestekoa da hezkuntza komunitateak hezkuntza proiektua eta gizarte- an eraginik handiena duten gaiak definitu behar dituztenean (euskal gatazkari aurre egiteko modua, adibidez).

Horretarako, familiek hausnarketan aurrera egiteko eta akordioak lortzeko jarduerak antolatzen dituzte ikastetxe batzuek. Gehienetan, hizketaldi puntualak izaten dira. Inkestatuen artean, %25 inguru abstenitu egin ziren. Euskal gatazkari heltzeko ikastetxeek familiekin jarduerak antolatu beharko litzazketen galdetuta, erantzuna baiezkoa izan da; nolana ere, irakasleen eta gurasoen %20 inguruk ez dute erantzun. Hauek dira gurasoen iritzia:

49. grafikoa

Familien jarduerak euskal gatazkari buruz



Gurasoek B eta D eredueta eta Gipuzkoan azpimarratzen dituzte, modu adierazgarrian, ikastetxe- en jarduerak. Gehiago eskatzen dituzte ikastetxe publikoetan, A eredueta, Gipuzkoan eta gizarte maila ertaineko ikastetxeetan.

Irakasleek ez daukate hain ikuspegi baikorra euskal gatazkaz familiekin ikastetxean egiten diren jar- duerei buruz; ziur asko, ikasleen guraso elkarteek edo ikastetxeko zuzendaritzak antolatzen duelako jar- duera mota hori. Irakasleen ustez, jarduera horiek gehiago antolatzen dira ikastetxe pribatueta, Biz- kaian eta Gipuzkoan eta gizarte maila ertain-altuko ikastetxeetan.

Ikastetxeek euskal gatazkari buruzko jarduerak familiekin antolatu beharko litzazketen galdetzean, irakasleak nahiko ados agertu dira; halere, gurasoen artean baino zerbait gutxiago.

7.4. Hezkuntza erakundeen jokaera, euskal gatazka dela eta


Hezkuntza erakundeei dagokie ikastetxeek hezkuntza funtzioa betetzeko beharrezko dituzten baldintzak sortzea. Gainera, beste funtzio hauek ere badauzkate: ikastetxearen jardura gizarte beharrek bat datozen hezkuntza helburuetara bultzatzea; eta baliabideak eta orientabideak ematea, hezkuntza komunitateak helburu horiek bere gain har ditzan eta horien lorpena eraginkorragoa izan dadin.

Ez dirudi ez irakasleek, ez gurasoek dakitenik hezkuntza erakundeek zer jardura egiten dituzten euskal gatazkari buruz. Irakasleen artean, %30 inguruk ez dakite edo ez dute erantzun; gurasoen artean, berriz, %50ek baino gehiagok egin dute aukera hori. Erantzun dutenen %10en ustez, Hezkuntza erakundeek ez dute gai honekin lotutako inolako jarduerarik egiten.

Irakasle eta guraso taldeen ustez, hezkuntza administrazioak testuliburuak gainbegiratu, kulturari eta hizkuntzari buruzko azterketak egin, eta baliabideak eta orientabideak ematen ditu. Hala uste dute irakasleen %20k eta gurasoen %20-30ek.

50. grafikoa

Euskal gatazka dela-eta Hezkuntza Administrazioak egiten dituen jarduerak



Ikastetxe pribatuetan, B ereduan eta gizarte maila ertainean, irakasleek askoz iritzi hobea dute hezkuntza administrazioaren jarduerari buruz.

1992tik aurrera, ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena behar dute, Sailak berak hala aginduta. Hasieran, argitaratze proiektua baimentzen zen, ez hori testuliburuetan gauzatzea. Testuliburuetan desgokitatzat jotako jardura didaktiko batzuk sartu zirela eta, zenbait arazo sortu ziren. Hori horrela izanik, Eusko Legebiltzarrak eskatuta, araudia aldatu egin zen 1998an. Orain, hezkuntza administrazioaren baimena behar dute testuliburuak. Horretarako, EAEko derrigorrezko curriculumak eta balio demokratikoak errespetatu behar dira. Euskaraz idatzitako testuliburuak hizkuntza aldetik ere gainbegiratzen dira.

Hezkuntza erakundeek kulturari eta hizkuntzari buruzko azterketak sustatu, babestu eta egin dituzte. Hizkuntzari dagokionez, oso garrantzitsuak eta baliotsuak dira bigarren hizkuntza irakasteen-ikasteen bildutako esperientziak. Kulturari buruzko azterketak, berriz, ez dira hain agerikoak ikastetxeetan. Izan ere, horietako asko orokorrak dira, eta ez dira ikastetxean erabiltzeko egin.


Hezkuntza berritzatzeko zuzendaritzak bultzatzen du ikastetxeetako bizikidetzarako hezkuntza programa, eta programa hori ez dago, berariaz, euskal gatazkari buruz lan egitera bideratuta. Dena den, ikastetxeek proiektuak definitzeko eta gauzatzeko kontuan izango dituzten elementuen artean dago; eta programa hori bultzatzeko, sustatzeko eta horri buruzko aholkuak emateko ardura duen taldeak ere kontuan izan behar du.

Jendeak ez daki ziur zer jarduera egiten dituen hezkuntza administrazioak euskal gatazkari buruz. Argiago dago zer espero den harengandik. Iritzia ematerakoan, irakasleak lehen bezainbeste edo zerbait gehiago abstenitu dira. Lehen Hezkuntzan, %30 ingurukoa izan da abstentzioa item guztietan; Bigarren Hezkuntzan, berriz, %22 ingurukoa. Gurasoen artean, ordea, %25era gutxitu da.

Bi etapetako irakasleak ados daude: hezkuntza administrazioak proposatzen zaizkion jarduerak egin behar ditu. Gurasoek iritzi desberdinak daukate, etaparen arabera: lehen hezkuntzakoek argi eta garbi eskatzen dituzte; bigarren hezkuntzakoek, berriz, ez daukate hain jarrera argia.

51. grafikoa

Euskal gatazkari buruz hezkuntza administrazioak egin beharko lituzkeen jarduerak



Sareka, alde adierazgarriak daude, ikastetxe pribatueta irakasleen artean ikastetxe publikoetako- en artean baino gehiago. Ereduka, B eredu-ko bigarren hezkuntzako gurasoek eta lehen hezkuntzako irakasleek eskatzen dute gehien hezkuntza administrazioaren jarduna. Lurraldeka, Gipuzkoako bigarren hezkuntzako irakasleak eta gurasoak nabarmentzen dira. Ikasleen gizarte mailaren arabera, oso nabarmena da bigarren hezkuntzako irakasleen eskaera eta bi etapetako gurasoena (maila ertaineko ikastetxeetakoena maila ertain-baxukoena baino gehiago).

Datu horietatik, ondorio hau atera daiteke: hezkuntza komunitateko talde guztien ustez, Euskal hezkuntza administrazioak jarrera aktiboagoa hartu beharko luke euskal gatazkari buruz. Horrek esan

nahi du Hezkuntza Administrazioak ongi egingo duela jendearen ustez. Bigarren hezkuntzako gurasoek nolabaiteko mesfidantza adierazten dute. Izan ere, hezkuntza administrazioak gai horretan ikastetxeak bideratu beharko lituzkeen galdetzean, 2,4koa da batez besteko balorazioa; lehen hezkuntzako gurasoen 3,2aren eta bi etapetako irakasleen 3,1aren azpitik dago, beraz.

Irakasleen ustez, onuragarriagoa da Administrazioak euskal gatazkari buruzko orientabideak, baliabideak eta aholkuak ematea. Lehen hezkuntzako gurasoak bat datoz irakasleekin. Dena den, bigarren hezkuntzako gurasoek (horiekin bat datoz lehen hezkuntzakoak ere) hezkuntza administrazioaren zeregin-a azpimarratzen dute: bai kulturaren eta hizkuntzaren azterketa, bai hezkuntzarako elkarriketa foroak sustatzea euskal gatazkari buruz.

7.5. Euskal gatazka dela-eta ikastetxeek duten jokaerari buruzko ondorioak

1. Hezkuntza komunitatean, guztiak ez datoz bat euskal gatazka definitzean. Aukera politikoaren ikuspegia baino gehiago, giza eta gizarte ikuspegia dira nagusi. Batez ere, hauekin lotzen da euskal gatazka: terrorismoaren indarkeriak sortzen dituen sentimenduekin, bake ezarekin eta giza eskubideekiko errespetu ezarekin; horiez gain, baita konponbide ezak sortutako frustrazioarekin eta etsipenarekin ere.
2. Ikastetxeetan, irakasleek hainbat modutan ulertzen dute euskal gatazka; ziur asko, behar bezainbeste garatutako kontzeptu esparrurik ez dagoelako. Gehiengoak ez du uste gai horri buruzko iritzi osatua eta bakarra izan behar duenik irakaskuntza lana betetzeko, ezta ikasleekin horri hel-tzea eska dakiokenik ere, behar bezainbeste adostutako hezkuntza proposamena oinarritu ahal izateko politikarien artean gutxieneko akordiorik ez dagoen bitartean. Irakasle gutxi adieraz-ten dute ideia politikorik, eta, horien artean, ez dago joera nagusirik.
3. Irakasleek saihestu egiten dute euskal gatazka. Ez dira ez gai, ez ziur sentitzen, arrazoi askoren-gatik: gatazkak duen emozio osagai sendoagatik; ikasleek eta guraso batzuek irakasleen irakas-penen objektibotasunean eta inpartzialtasunean konfiantzarik ez dutelako; eta beldur direlako ez ote diren okerragoak izango ondorioak, balizko onurak baino.
4. Bizikidetzeta eta bakearen aldeko hezkuntzan lan egiteko gogoia zuzenean dago lotuta euskal gi-zarte baketsua egiteko ikastetxeek daukaten borondatearekin eta beharrarekin.
5. Oro har, euskal gatazkak ikastetxeetan eragin gutxi daukala uste da. Hori dela-eta sortzen diren gatazkak puntualak izaten dira ikastetxe gehienetan, eta ez dute eraginik ez pertsona arteko ha-rremanetan, ez ikastetxeen dinamika orokorrean. Irakasleei dagokie ikastetxeko arauak betetzen direla bermatzea, mugak gaindi ez daitezen ez adierazpen askatasunean, ez talde batzuen eran-tzunean. Nolanahi ere, jokatze hainbat modu dituzte ikastetxeek. Gutxi batzuetan, jokatze-ko irizpide batzuk erabaki dira, hezkuntza komunitateko ordezkaritza organoetan hausnartu eta adostasuna lortu ondoren. Ikasleen ustez da handiena eragin hori; batez ere, Gipuzkoan, D ere-duan eta maila sozioekonomiko ertain eta ertain-baxuko ikastetxeetan ikasten dutenen artean.
6. Ikastetxe askok, pribatuek eta A eta B ereduakoei batez ere, hausnarketa puntualak egiten di-tuzte: bai euskal politikan garrantzitsu diren gertakariei buruz, bai indarkeria gaitzesteko ekin-tzei buruz. Gehiengoaren ustez, egin beharko lirake.
7. Ikasle gehienek ikastetxeetan euskal gatazka modu sistematikoan lantzea eskatzen dute: bai ar-lo edo irakasgai batzuen programaren barruan, bai ikasleen arteko hausnarketa eta eztabaida tal-

detan. Gurasoen ustez, ikastetxean azter daitekeen eta aztertu behar den gaia da, baina inolako manipulaziorik ez egiteko eskatzen dute.

8. Hezkuntza komunitateak, eta, zehazki, irakasleen gehiengoak, ez daki hezkuntza administrazioak euskal gatazkari buruz zer jarduera egiten dituen, ezta zerbait egiten duen ere. Nahiz eta batzuek ezer esan ez, irakasle gehienek hau eskatzen diote hezkuntza administrazioari: euskal gatazkari heltzeko, baliabideak, orientabideak eta aholkuak eman diezazkiela.

8.1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren buru izatea

1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programa berria definitzea 2003-2006 hirurtekorako

- 2000-2003 bizikidetza programaren garapena aztertzea eta lorpenak baloratzea.
- Helburu berriak, jarduera ildoak eta jarduerak finkatzea.
- Berdinkideen arteko tratu txarrak hautemateko eta gainditzeko programa sustatzea.

2. Ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzeko eta indartzeko beharrezko egiturak ezartzea

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako aholku batzordea sortzea. Bertan, ordezkaritza izan behar dute bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin zuzenean lotutako erakundeek, gizarte taldeek eta ikastetxeek. Egoera aztertuko dute, bizikidetza eta bakerako hezkuntza programarako proposamenak egingo dituzte, garapenaren segimendua egingo dute eta hori ezartzeko hobe-kuntzak proposatuko dituzte.
- Ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza finkatzeko, administrazio mekanismoak abian jartzeaz arduratuko den zerbitzua sortzea.
- Hezkuntza Sailak ikastetxeei emango dizkien tresnak egiteaz arduratuko den lan talde iraunkorra ezartzea. Bereziki, 9. eta 10. puntuetan zehaztutako baliabideak prestatuko dituzte.
- Tutorearen funtzioa sendotzea. Ikasleei taldeka eta bakarka arreta eskaintzeko, irakastorduak emango zaizkie tutoreei. Era berean, lan baldintzak, pizgarri profesionalak eta beren prestakuntzarako baliabideak hobetuko zaizkie.

3. Ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzeko eta errazteko administrazio mekanismo egokiak ezartzea

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko proiektuen artetik, berriztatze nabarmeneko proiektu gisa kalitate handiena dutenak, baliabide eta aholkularitza bereziak dituztenak, aukeratzeko. Aukeratutako proiektuek beste ikastetxe batzuen erreferentzia izateko balio behar dute.
- Irakasleek bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako prestakuntza jaso ahal izateko baliabideak sustatzea eta jartzea. Horretarako, ikastetxean garatutako prestakuntza proiektuak izango dituz-

te oinarritzko modalitate. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza programen koordinatzaileei, berri, prestakuntza sakonagorako aukera emango zaie, ikastaro bidez.

- Gizarte maila apaleko ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeei eta bizikidetza proiektuak eta desberdintasunak gainditzeko proiektuak abian jarri nahi dituzten ikastetxeei berariaz laguntzea.

4. Ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko araudia aldatzea, ikastetxeko bizikidetza sustatzeko asmoz

- Ikastetxeko gatazketarako, diziplinarik gabeko egoeretarako eta indarkeria egoeretarako hezkuntza erantzunak emateko –aurrea hartzekoak eta antolatzekoak, bereziki–, ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua aldatzea.
- Derrigorrezko irakaskuntzan, aldi baterako kanporatzeak ikasleen zigorretatik kanpo uztea. Ikasleen portaera aldaketari mesede egingo dioten formula alternatiboak proposatzea.
- Bizikidetza batzordearen funtzioak aldatzea, ikastetxeko bizikidetzaren sustapenerako eta bake kulturarako organo izan dadin.

5. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoera modu sistematikoan ebaluatzea

- Hezkuntzako Ikuskaritzak ikastetxeei buruz egiten duen ebaluazioan, ikastetxeko bizikidetzarekin eta bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren ekimenekin lotutako gaiak sartzea.
- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundean (ISEI), ebaluazio eta ikerketa ildo bat ezartzea, ikastetxeko bizikidetzari buruz eta ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzeko moduei buruz.
- Aldian-aldean, Euskadiko Eskola Kontseiluari gizarte balorazioa eskatzea, ikastetxeko bizikidetzarako eta Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntzarako ekimenei buruz. Horretarako, hezkuntzako ikuskaritzaren eta ISEIren txostenetan oinarritu behar du Euskadiko Eskola Kontseiluak, baita ikastetxe horiei buruz dakienean ere.
- Lehen hezkuntza eta DBH bukatzean egin beharreko proba orokorretan, bizikidetzarekin eta bakearekin lotutako ikasketei eta iritziei buruzko berariazko atal bat sartzea, etapa horietako oinarritzko ikaskuntza diren aldetik.

6. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko hausnarketa eta eztabaida foroak, mintegi iraunkorrak eta lan taldeak antolatzea eta sustatzea.

- Ikastetxeko bizikidetza arazoak eta hobetzeko bideak aztertzea.
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan ikastetxeek daukaten zeregina argitzea.
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz irakasleek eta hezkuntza komunitateak daukaten zalantzak, beldurrak eta gaitzespenak ezagutzea.
- Euskal gatazka dela-eta ikastetxeek izan ditzaketen jokatzeko moduak aztertzea eta bideratzea.

7. Koordinazio sareak sortzea, bizikidetza eta bakerako hezkuntzan lan egiten duten estatuko eta nazioarteko agentziekin

8. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzan ikastetxeek aurrera egin ahal izateko oinarriak proposatzea

- Ikastetxeko bizikidetzaren kalitate adierazleak proposatzea.
- Ikasleen beharrei erantzuteko gai diren ikastetxe ereduak –ikastetxe barne hartzaileak– sustatzea.

9. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarako berriazko programak –ikastetxeen eredu izan daitezkeen programak– egitea, probatzea eta ebaluatzea

- Programek, gutxienez, bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alor hauek jorratuko dituzte: garapen pertsonala, balio demokratikoak, giza eskubideak, gatazken tratamendua, kulturartekotasuna eta ikastetxeko bizikidetzaren sustapena. Talde tutoretzetan garatuko dira horiek, edota arloen curriculumetan nahiz eskola jardueretan sartuta.
- Baliabide didaktikoen banku bat sortzea, programa horiek eta ohitura egokiei buruzko informazioa ikastetxeetan bultzatzeko.
- Bizikidetza aholkularien bidez, irakasleak prestatzeko baliabide banku bat jartzea ikastetxeen eskura.

10. Ikastetxeei euskal gatazkari heltzeko orientabideak proposatzea

- Euskal Herriko historiari, kulturari eta antropologiari buruzko informazioa biltzea, ikuspegi pluralaz, eta ikastetxeen eskura jartzea.
- Hezkuntza etapetan, euskal gatazka jorratzeko esperientziak biltzea eta hedatzea.

11. Ikastetxeko bizikidetzari buruzko eta bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko informazio politika sustatzea

- Hezkuntza komunitate guztiari bizikidetza eta bakerako hezkuntza programaren berri behar bezala ematea.
- Aldian-aldean, bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz Hezkuntza Sailak erabakitako jarduerak eta egindako proposamenak ikastetxeei jakinaraztea; eta informazioa irakasle guztiei helduko zaiela bermatzea.
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren alde Sailak egiten dituen ekimenei buruz eta ikastetxeek egiten dituzten jardueri buruz familiei informazioa ematea.
- Irakasleek ikastetxean duten portaeraren alde onei eta txarrei buruz hedabideei informazioa ematea, zehaztasunez eta proportzionaltasunez.

12. Ikastetxeko bizikidetza sustatzean, ikastetxeen aholkularitza bihurtzea laguntza zerbitzuen lehen-tasun

- Berritzeguneetako bizikidetza aholkulariak prestatzea, bizikidetza eta bakerako hezkuntzan prestatzaile eta aholkulari onak izan daitezzen.
- Baliabideen, ohitura onen eta ikastetxeen proiektuen banku bat prestatzea, ikastetxeko bizikidetzarako prestakuntza eta sustapen proiektuetan ikastetxeek erabili ahal izateko.
- Eztabaida foroak sustatzea; hau da, ikastetxeko bizikidetzari buruzko esperientzia trukea.

8.2. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza indartzeko eta eraginkor bihurtzeko, beste sail eta erakunde batzuen kolaborazioa behar da

13. Iritzi publikoan bake kultura berria sustatzea

- Aldian-aldean, kanpainak antolatzea, eguneroko gatazka sozial eta politikoak konpontzeko indarkeria kultura erabiltzen dela salatzea. Kanpaina horietan, bake kulturaren oinarritutako eredu alternatiboak proposatzea.

- Gatazka egoeretan, hedabideek –euskal telebista publikoak, bereziki– bizikidetza ereduak erakutsi ditzaten saiatzea.
- Lehendakariak edo Eusko Legebiltzarrak bultzatutako sariak sortzea, bizikidetza positiboaren eta bakearen aldeko lanetatik nabarmendutako ikastetxeak, gazte taldeak eta abar saritzeko.

14. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzeko, Justizia Sailaren laguntzak ematea (Giza Eskubideen Zuzendaritza), Hezkuntza Sailarekin batera egindako deialdietan

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntza proiektuak ikastetxeetan.
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntza dela eta, antzeko arazoak eta proiektuak dituzten ikastetxe sareak.
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko programazioak eta material didaktikoak egitea, argitaratzea eta hedatzea; horiek ikastetxearen curriculumean sartzeko modukoak izan beharko dute.

15. Ikastetxeen eta gizarte zerbitzuen arteko lankidetza sareak sortzea, gizartera eta ikastetxera moldatzeko ikasleek izan ditzaketen arazoei batera heltzeko

16. Bizikidetzari eta bakeari eragiten dieten gaiei buruzko berariazko programak sustatzea, aginpide-dun sailen eta erakundeen artean

- Gizarte bazterketa.
- Berdinkideen arteko tratatu txarrak.
- Umeen tratatu txarrak.
- Etorkinak.
- Komunitate garapena.

8.3. Ikastetxeei dagokie bizikidetza eta bakerako hezkuntza bultzatzea eta garatzea

17. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza integratzeko oinarriak finkatzea

- Ikastetxearen hezkuntza proiektuan, bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako oinarriko helburuak eta jarraitu beharreko ildo estrategikoa sartzeta.
- Curriculum proiektuan edo/eta tutoretza planean, bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotutako programak sartzeta. Programa horiek bat etorri behar dute IHPren helburuekin eta ikasleek hezkuntza beharrekin.
- Programa horiek pixkanaka eta planifikatuta ezartzea, bizikidetza eta bakerako hezkuntza helburu esplizitu bihurtzeko moduan, horren garapena intentzionala eta sistematikoa izateko moduan, eta bertan hezkuntza komunitate osoak parte hartzeko moduan.
- Elkarrenganako errespetua, elkarriketa, negoziazioa eta bitartekotza proposatzea gatazkak bideratzeko eta konpontzeko prozedura nagusi gisa.

18. Ikastetxeko bizikidetza hobetzeko planak sustatzea

- Ikastetxeko giroa ebaluatzeko adierazleak eta ikastetxeko bizikidetza positiborako baldintzak definitzea.

- Hobetu beharreko arloak hautemateko, ikastetxearen eta irakaskuntza lanaren antolaketa eta funtzionamendua aztertzea, baita bizikidetzari eta ikastetxeko giroari eragiten dieten gertaerak eta ikasleen beharrak ere.
- Ikastetxeko gatazkak eta horiei heltzeko prozedurak aztertzea; baita ikasleen portaera txarra eta horri aurrea hartzeko, geldiarazteko eta aldatzeko neurriak ere.
- Ikastetxearen proiektuetan eta planetan behin betiko sartu aurretik, bizikidetzaren eta bakerako Hezkuntzarekin lotutako aldaketak curriculumean, antolaketan edo arlo didaktikoan ezartzeko berriztatze prozesu bati jarraitzea.
- Proiektua diagnostikatzeko, definitzeko, garatzeko eta ebaluatzeko irakasleek beharrezko dituzten prestakuntza proiektuak sustatzea.

19. Ikastetxeko bizitzarekin lotutako ikastetxeetako arauak eta irizpideak berraztertzea

- Antolamendu eta jarduera araudia (AJA) aztertzea, hezkuntza eta prebentzio postulatuetan oinarrituz, ez zigor postulatuetan eta postulatu zuzentzaileetan; eta postulatu horiek arrazoietan jartzea arreta, ez hainbeste adierazpenetan.
- Parte hartzea bultzatzea (ikasgelan, ikastetxeko bizitzan eta ikastetxearen gobernu organoetan), ikastetxeko bizikidetzaren hobetzeko oinarritzko baliabide gisa.
- Guneen erabilera erregulatzea, guztiek berdintasunez onura ateratzeko moduan; bai eskola edo jolas jardueretan, bai adierazpen eta bilera askatasunean.

20. Tutoretza funtzioa indartzea, bizikidetzaren eta bakerako hezkuntza sustatzeko daukan garrantziagatik

- Tutoretza plan bat erabakitzea, bai taldeka, bai banaka aritzeko. Etapan garatuz joatea, aholkularitza edo orientazio arduratzen denaren laguntza.
- Tutoretza funtzioa betetzeko, pertsona egokia izendatzea talde bakoitzari.
- Ikasleen eskola orduetan, talde tutoretzarako denbora ematea tutoreei. Irakasleen orduetan, berriz, banakako tutoretzarako denbora ematea, integratzeko eta ikastetxeko bizikidetzarako edo ikasteko zailtasunik handienak dituzten ikasleak, behintzat, hartzeko.
- Dagokien funtzioa ahalik eta ongien betetzeko, beharrezko baliabideak, koordinazioa eta prestakuntza ematea tutoreei.

21. Bizikidetzaren batzordea ikastetxean bizikidetzaren eta bakerako hezkuntza sustatzeko organo bihurtzea

- Hauek etengabe aztertzea: ikastetxeko giroa, horretan eragin txarra duten jokoak, eta askotan oker jokatzen duten pertsonak eta taldeak.
- Bizikidetzaren eta bakerako hezkuntza programak eta ikastetxeko bizikidetzaren hobetzeko planak dinamizatzea eta koordinatzea.
- Beharrezkoa bada, gatazketarako bitartekotza zerbitzua ematea.
- Egoerarik larrienen, ikastetxeko diziiplina eza edo indarkeria geldiarazteko eta egoera horiek aldatzen laguntzeko neurriak proposatzea.
- Hezkuntza komunitateko estamentuei laguntzea, ikastetxean edo ikasgelan gertatzen diren gatazkei eta beste zenbait egoerari (diziiplina ezari edo indarkeriari) nola heldu jakiteko.

22. Hezkuntza komunitate osoa aintzat hartuz, euskal gatazkari modu hezigarrian heltzeko modurik egokienak proposatzea

- Curriculumean euskal gatazkari nola heldu adostea, hainbat ikuspuntutatik ulertzen laguntzeko moduan eta proposatutako konponbideak aztertzen laguntzeko moduan.

- Indarkeria eta proposamen politiko eta sozialak direla-eta hezkuntza komunitateak hartu beharreko jarrera zehaztea, baita sektoreek modu hezigarrian parte hartu ahal izateko prozedurak ere.

23. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza indartzeko sareak sustatzea eta horietan parte hartzea

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz antzeko arazoak dauzkaten eta antzeko programak sustatzen dituzten ikastetxeen arteko sareak; horren bidez, esperientziak, baliabideak eta abar trukatzeko.
- Inguruko gizarte antolakuntzek bizikidetza eta bakearen alde abian jarritako proiektuak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Gerra egoera, egiturazko justizia eza edo giza eskubideen gabezia larria bizi dituzten lekuetako ikastetxeekin harremanetan jartzea.

8.4. Familiak oinarritzko eragile dira bizikidetza eta bakerako hezkuntzan

24. Guraso elkartearen eta ikastetxearen arteko lankidetzaren bidez, familiei laguntzea, bizikidetza eta bakerako hezkuntzan daukaten funtzioa bete dezaten

- Baliabideak jartzea, familiei balio demokratikoak eta bizikidetza eta bakearen aldekoak diren jarrrerak irakasteko.
- Seme-alabei etxe eroso eta emateko zailtasunak dituzten familiei laguntzea. Etxe horietan, oinarritzko beharrak asetuta izateaz gain, behar afektiboak behar bezalako arreta jartzea.
- Telebista programak, jolasak eta jostailuak aukeratzera familiei zer zeregin duen kontzientzia hartzea. Era berean, seme-alaben lagunak ezagutzearen garrantziaz ohartaraztea, horiek baliotzat eta portaeran duten eragina kontuan hartuta.

25. Ikastetxeko bizikidetza sustatzean, familien parte hartzea erraztea

- Ikastetxeko dinamikan sartzea, bertako giroa hobetzen parte hartzeko.
- Ikastetxeetan informazio mekanismoak izatea eta egoerei buruzko baterako azterketa egitea. Ikastetxeek eta familiek erabakiak batera hartzea.
- Hitzarmen kolektiboetan, klausulen bidez gurasoei eskubide hauek aitortzea: seme-alaben ikastetxera irakasleekin hitz egitera joateko eskubidea; gurasoen ordezkari aukeratuak taldeko organoetan parte hartzeko eskubidea.

26. Seme-alaben ikastetxeko bizikidetza eta bakerako hezkuntza proiektuetan laguntzea

- Guraso elkartearen bidez, gurasoek ikastetxean antolatutako Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza proiektuak garatzen laguntzeko moduak ezartzea.
- Ikastetxeak kontuan izatea gurasoen laguntza; bai abian jarritako Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza programak definitzeko, bai horiek garatzeko.

Bigarren zati honetan aurkeztutako ikerketak helburu hau dauka: Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautua ematen duten ikastetxeetako bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoera mapa erakustea. Ikerketa hau bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko esparru teorikoaren baitakoa da, eta, horren barruan, lehen zatian erakutsi bezala, hezkuntza horrek nazioartean, Estatuan eta EAEn duen egoera erakusten du. Beste lan talde batek, berriz, hezkuntza ez formalean –Euskal Autonomia Erkidegoko aisialdi taldeetan zehazki– bizikidetza eta bakerako hezkuntzak duen egoerari heldu dio. Bi taldeek paraleloan, baina koordinatuta, egin dute lan.

Ikerketa hau egiteko, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dira. Metodo kuantitatiboa da azterketaren oinarria. Galdekizunei erantzunez ikasleek, irakasleek eta guraso elkarteetako gurasoek emandako iritzietan oinarrituz egin da. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietako lagin adierazgarri bat hartu da, eta ikasleen titulartasuna, lurraldea, eredia eta batez besteko maila sozioekonomikoa hartu dira erreferentetzat. Metodo kualitatiboa, berriz, osagarria da, eta hiru eztabaida taldetan oinarritu da. Eztabaida talde bat hartu da lurraldeko; inkestatutako taldeetako ordezkariak osatu dituzte talde horiek, eta estrategikoki aukeratu dira, ikastetxearen zenbait ezaugarriren arabera (titulartasuna, eredia eta maila sozioekonomikoa).

Galdekizunen eta eztabaida taldeei esker lortutako datuen eta informazioen bidez, txostena eta ondorioak lantzen hasi ziren. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzeko proposamen batzuk azaltzen ditu lan taldeak.

Atal honetan, alderdi hauek aztertzen dira:

- 9.1. Galdekizunak
- 9.2. Lagina
- 9.3. Datu estatistikoen azterketa
- 9.4. Eztabaida taldeak
- 9.5. Txostenaren lanketa

9.1. Galdekizunak

Hezkuntza komunitateko hiru taldeei (irakasleei, ikasleei eta gurasoei) zuzendutako galdekizunen bidez egin zen ikerketa kuantitatiboa.

Baliabide horren bidez, egindako galderei buruz inkestatuek dituzten ikuspegia eta iritziak jasotzen dira (horiek beti ez datoz bat errealitatearekin). Nolanahi ere, taldeen erantzun kopuru handiari eta erantzunen arteko kontrasteari esker, errealitate hori ezagutzera iristen da, gutxi gorabehera; era berean, hezkuntza komunitateko kideek errealitate hori nola ikusi eta bizi duten jakin daiteke, eta hori ere oso garrantzitsua da.

Galde sorta bat prestatu zen talde bakoitzarentzat. Horietako bakoitzean, ikerketa gaiarekin lotutako galderak sartu ziren; kontuan hartuz, betiere, talde bakoitzak horri buruzko informazioa edo iritziak izan zitzaizkela, bai hezkuntza komunitatean daukan lekuagatik, bai egiten dituen lanengatik. Nahiz eta galdekizunak desberdinak izan, erantzunak paraleloan aztertzeko moduan eta gai berberei buruz taldeek zer-nolako ikuspegia eta iritziak dituzten kontrastatzeko moduan jarri ziren galderak.

Lan taldeak ikerketaren gairik garrantzitsuenak finkatu zituen, eta, horietako bakoitzean, inkestatuengandik beharrezko informazioa eta iritzia lortzeko galderak prestatu zituen. Arreta handia jarri zen bi informazio mota hauek bereizten: zer den gaur egun ikastetxeek egiten dutena (edo inkestatuen ustez egiten dutena) eta zer den haien ustez egin beharko litzatekeena. Horregatik, bi erantzun zutabe agertzen dira galdera gehienetan: egiten dena jartzeko bata, egin beharko litzatekeena adierazteko bestea.

Item zehatzetan banakatu ziren galderarik gehienak, eta horiei buruz adierazi behar zuten edo adieraz zezaketen inkestatuek beren ikuspegia edo iritzia. Galdera osatzen duen item bakoitzari emandako baliotik ondorioztatzen da erantzuna. Galdekizunetan, itemak agertzeko hainbat modu erabili dira:

- Batzuetan, gertakari zehatz batzuk gertatzen diren edo jarduera zehatz batzuk egiten diren ala ez galdetu da, eta bai edo ez erantzun behar zuten (ez daki/ez du erantzun aukera ere bazegoen): baiezko erantzunen ehunekoaren bidez jakin daiteke gertakarien edo jardueren maiztasuna.
- Nahiko sarri galdetu da ea, beren ustez, jarduera horiek egin beharko liratekeen ala ez, ikastetxean egiten diren ala ez kontuan hartu gabe: inkestatuak baliozko iritzia eman behar zuen, 1etik 4rako eskalan (iritzirik eman nahi ez bazuen, 0 jartzen zuen); horrekin, desbideratze tipiko bat duen batez besteko balio bat lortzen da, 1 eta 4 bitartekoa.
- Eskala hori bera erabili da inkestatuek gertakari, egoera, jarduteko modu edo eragile baten indarra edo garrantzia baloratzeko.
- Galdera batzuetan soilik ageri da 0tik 10erako eskala: azaldutako gaiarekiko ikastetxeak duen indarra (10) edo ahulezia (0) baloratzeko erabili da.
- Galdera askotan, proposatutako itemetan agertzen ez den erantzuna emateko aukera zegoen.

Gutxitan erabili dira galdera irekiak. Lau galderatan, hiru erantzun eskatu dira, alde zureko inolako jarraibiderik eman gabe:

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin lotzen diren ideiak
- Ikastetxeko gatazkarik garrantzitsuenak (ikasleei)
- Euskal gatazkarekin lotzen diren ideiak
- Euskal gatazkari buruz ikastetxeetan landu beharko liratekeen funtsezko gaiak (ikasleei eta gurasoei).

Irakasleei eta ikasleei egindako bi galderatan eskatzen da, hainbat aukeraren artetik, hiru erantzun hautatzeko:

- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko gaien artetik, gehien landu beharko liratekeenak

— Bizikidetza gatazkak direla eta, ikastetxean jokatzeko modua.

Ikerketa aplikatuak egiten dituen Datlan enpresa arduratu zen formatu tekniko egokia emateaz.

Ondorengo taula honetan, talde bakoitzari azaldutako gaiak eta galdera kopurua biltzen dira; parentesi artean, berriz, galdekizun bakoitzean proposatutako galderetako item kopurua:

Gaiak	Irakasleak	Ikasleak	Gurasoak
Ikastetxearen datuak	8	8	8
Datu pertsonalak	7	8	10
BetaBHrekin lotzen diren ideiak eta horiek ikastetxeetan lantzeko beharra	2	2	2
Ikastetxean eta ikasgelan: zer egiten da?	18 (80)	3 (26)	1 (11)
Ikastetxean eta ikasgelan: zer egin beharko litzateke?	9 (31)	1 (14)	0
Gatazkei aurre egiteko gaitasuna	5 (6)	4 (11)	4 (8)
Diziplinarik ezeko egoerak eta indarkeria egoerak ikastetxean	10 (53)	6 (50)	6 (43)
Euskal gatazka: gertatzen dena	6 (27)	3 (14)	6 (29)
Euskal gatazka: egin beharko litzatekeena	4 (21)	2 (11)	5 (25)

Ikastetxearen datuek eta datu pertsonalek erantzunak aldaeren arabera sailkatzea dute helburu, ondoren aztertu ahal izateko

9.2. Lagina

Euskal Autonomia Erkidegoa da erabilitako laginaren lurralde eremua; ez unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautuko ikastetxeak dira, berriz, unibertsoa. Hiru talderi egin zaizkie galderak: 16 urtetik gorako 4. DBHko eta DBHOk ikasleei; lehen eta bigarren hezkuntzako eta DBHOk irakasleei; eta guraso elkarteetako edota Eskola kontseiluko gurasoei.

2002ko urtarrila eta martxoa artean egin zen landa lana. Aukeratutako ikastetxe bakoitzak ekarpen hau egin behar zuen: irakasleen 4 edo 5 galdekizun; guraso elkarteko edo Eskola kontseiluko gurasoen 3 galdekizun; eta ikasle gela bat edo bi –hau da, 15 eta 30 ikasle bitartean–. Ikasgela horiek aldeztu aurretik aukeratu zeuden, etapa eta ereduaren arabera.

Hauxe zen prozedura: ikastetxearekin harremanetan jarrita, eta eguna, ordua eta ikasgela zehaztuta, galdekizuna ematen zitzaion ikasle bakoitzari, egiten joan zedin. Era berean, sor zitezkeen zalantzak argitzen ziren. Ondoren, ikastetxeko arduradun bati ematen zitzaizkion irakasle eta gurasoentzako galdekizunak, bana zitzan. Lana errazteko eta hutsegiteak saihesteko, gutun-azal batean eta argibide eta guzti ematen zen galdekizun bakoitza. Egun batzuk igaro ondoren, ikastetxearekin harremanetan jartzen ziren berriro ere, galdekizunak jasotzeko.

Hasieran, 133 ikastetxe aukeratu ziren, baina, ikastetxe bakoitzak egin beharreko ekarpena eta azkenean biltzen zena beti bat etortzen ez zirenez, handitu egin zuten lagina. Azkenean, 140 ikastetxe hartu ziren kontuan, talde bakoitzetik esperotako galdekizun kopurua lortzeko.

Jarraian, parte hartu duten ikastetxeetan sortutako zenbait gertakari zehazten dira. Gertakari horiek landa lana zaildu dute.

- Galdekizuna bete beharko luketen batzuen ezezkoa. Horrek bildu beharreko galdekizun kopurua murrizten zuen (gurasoak edo irakasleak)
- Ikastetxean guraso elkarterik ez egotea
- Betetako galdekizunak emateko atzerapenak (gurasoak)
- Galdekizun hutsak edo osatugabeak
- Ikasle gutxiko gelak
- Ikasle galdekizunak betetzeko aukeratutako etapan, hautatutako eredia ez egotea.

Azkenik, parte hartzeari uko egin dioten ikastetxeak ageri dira. 15 ikastetxe izan dira guztira: horietako 12k telefono bidez harremanetan jarritakoan eman zuten ezezkoa; gainerako hirurek, berriz, galdekizunak betetzea onartu zuten, baina, jasotzerakoan, zuri itzuli zituzten, ezezkoa momentu hartan bertan emanez. Ezezkoaren arrazoiak jakiteko, telefonoz deitu zen ikastetxe horietako bakoitzera. Zuzendariek ez zuten azalpenik eman nahi izan; haien ustez, irakasleek eta gurasoek ez badute aukerazko inkesta bat erantzun nahi izan, zuzendariek ez daukate ezezkoaren azalpenik zertan eskatu.

12. taula

Parte hartzeari uko egin dioten ikastetxeak;
titulartasunaren, udalerriaren eta lurraldearen arabera

Sarea	Udalerria	Lurraldea
Publikoa	Abanto-Zierbena	Bizkaia
Publikoa	Abanto-Zierbena	Bizkaia
Publikoa	Barakaldo	Bizkaia
Publikoa	Bilbo	Bizkaia
Publikoa	Bilbo	Bizkaia
Publikoa	Erandio	Bizkaia
Publikoa	Larrabetzu	Bizkaia
Pribatua	Bermeo	Bizkaia
Pribatua	Zamudio	Bizkaia
Publikoa	Gasteiz	Araba
Pribatua	Amurrio	Araba
Pribatua	Gasteiz	Araba
Pribatua	Azpeitia	Gipuzkoa
Pribatua	Donostia	Gipuzkoa
Pribatua	Zumarraga	Gipuzkoa

13. taulak aztergai izan den talde bakoitzerako zehaztutako lagina eta azkenean lortutako lagina ematen ditu. Horri esker, adierazgarritasunaren eta fidagarritasunaren arteko balantze ezin hobea bermatzen da.

13. taula

Zehaztutako eta lortutako laginen banaketa eta errore marjina

	Zehaztutako lagina	Lortutako lagina	Errore Marjina (%)
Ikasleak ⁽²⁾	2.000	2.052	+2,18
Bigarren Hezkuntza	—	2.052	+2,18
Irakasleak ⁽³⁾	600	566	+4,16
Lehen Hezkuntza	—	236	+6,49
Bigarren Hezkuntza	—	330	+5,48
Gurasoak ⁽⁴⁾	400	383	+5,10
Lehen Hezkuntza	—	170	+7,65
Bigarren Hezkuntza	—	213	+6,83
EAEn aukeratutako ikastetxeak	133	140	+7,65

(¹) %95,5eko konfiantza tartea

(²) 4. DBHko eta DBHOkoko ikasleak

Ikastetxe bakoitzetik aukeratutako ikasgela kopurua: 1 edo 2. Ikasgela bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua: 15

(³) Ikastetxe bakoitzetik aukeratutako irakasle kopurua: 4 edo 5

(⁴) Ikastetxe bakoitzetik aukeratutako guraso kopurua: 3

Nahiz eta aukeratutako ikastetxe kopurua gehitu, aldeak sortu dira zehaztutako laginaren eta lortutako laginaren artean. Izan ere, beti ez dira bete ikastetxe bakoitzerako esperotako bilketa aurreikuspenak. Nolanahi ere, garrantzi gutxiko aldeak dira, eta ez diete azterketaren adierazgarritasunari eta fidagarritasunari eragiten: %+5 ingurukoa edo txikiagoa da errore marjina; %95,5ekoa, berriz, konfiantza tartea.

Etapatan banatuta ere erakusten da lortutako lagina, azterketa estatistikoa horrela egitea jo baita komenigarritzat. Txarrean ere, %7,65era arte gehitu dira errore ehunekoak. Dena den, laginak baliagarria izaten jarraitzen du, nahiko portaera homogeenoa ageri baitira bi etapetako taldeen artean.

9.2.1. Laginerako aukeratutako ikastetxeak

Lagina lortzeko, albo batera utzi dira haur hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeak, helduentzako zentroak, lanbide hastapeneterako zentroak eta berariazko hezkuntzarako zentroak (musika, hizkuntza eskola ofizialak eta abar).

Laginean zehaztasun handiagoa lortzeko, irizpide hauen arabera aukeratu dira ikastetxeak:

- Lurraldea
- Titulartasuna
- Hizkuntza eredua
- Etapa
- Ikasle kopuruaren arabera
- Kokapen geografikoa
- Ikastetxeak, inguru soziokultural eta ekonomiko apaletik etorritako ikasle kopuruaren arabera
- Ikastetxeak, inguru soziokultural eta ekonomiko aberatsetik etorritako ikasle kopuruaren arabera
- Ezker Abertzaleak parte hartze handia duen eremuetan dauden ikastetxeak

14. taula
EAEko ikastetxeen banaketa, lurraldeka

	Zehaztutako lagina (*)		Lortutako lagina	Ald.
	%	%	Abs.	
Araba	20	20,0	28	—
Bizkaia	50	50,7	71	0,7
Gipuzkoa	30	29,3	41	-0,7
Guztira	100	100	140	

(*) Azterketaz arduratutako taldeak egindako kalkulua.

15. taula
EAEko ikastetxeen banaketa, titulartasunaren arabera

	Zehaztutako lagina (*)		Lortutako lagina	Ald.
	%	%	Abs.	
Publikoak	50	51,4	72	1,4
Pribatu Erlijiosoenak	35	34,3	48	-0,7
Pribatu Laikoak	15	14,3	20	-0,7
Guztira	100	100	140	

(*) Azterketaz arduratutako taldeak egindako kalkulua.

16. taula
EAEko ikastetxeen banaketa ⁽¹⁾, hezkuntza etaparen arabera

	Unibertsoa			Lagina	
	Abs.	%		Abs.	Ald.
Lehen Hezkuntza	545	37,3	92	32,2	-5,1
DBH	343	24,7	88	30,8	6,1
Batxilergoa	219	15,8	48	16,8	1,0
ELH	133	9,6	27	9,4	-0,2
GLH	148	10,7	31	10,8	0,1
Guztira	1.388	100	286	100	

(¹) Ikastetxe batek etapa bat baino gehiago ematen baditu, behin baino gehiagotan kontatzen da. Horregatik, ikastetxeen zenbaketa orokorra ez dator etapen batukariarekin bat

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritzak. 2001/2002 ikasturtea.

17. taula

EAEko ikastetxeen banaketa, tamainaren arabera (ikasle kopurua)

	Unibertsoa		Lagina		Ald. %
	Abs.	%	Abs.	%	
Ikastetxe txikia (500 ikasle baino gutxiago)	588	76,1	90	64,3	-11,8
Ikastetxe ertaina (501 eta 1.000 ikasle artean)	152	19,7	39	27,9	8,2
Ikastetxe handia (1.000 ikasle baino gehiago)	33	4,2	11	7,8	3,6
Guztira	773	100	140	100	

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

18. taula

Ikastetxeen banaketa, eremuka (*)

	Unibertsoa		Lagina		Ald. %
	Abs.	%	Abs.	%	
Araba Mendebaldea	5	0,6	1	0,7	0,1
Amurrio	8	1,0	1	0,7	-0,3
Atip gasteiz	2	0,3	1	0,7	0,5
Ekialdeko Lautada	5	0,6	1	0,7	0,1
Laudio	9	1,2	3	2,1	1,0
Arabako Mendia	4	0,5	1	0,7	0,2
Arabar Errioxa	9	1,2	2	1,4	0,3
Gasteiz Iparralde	14	1,8	4	2,9	1,0
Gasteiz Mendebaldea	15	1,9	5	3,6	1,6
Gasteiz Hego-ekialdea	34	4,4	10	7,1	2,7
Abando	25	3,2	5	3,6	0,3
Abanto-Zierbena	10	1,3	2	1,4	0,1
Amorebieta	6	0,8	1	0,7	-0,1
Arrigorriaga	7	0,9	1	0,7	-0,2
Atip Bilbo	3	0,4	2	1,4	1,0
Barakaldo	19	2,5	4	2,9	0,4
Basauri	15	1,9	3	2,1	0,2
Bermeo	6	0,8	2	1,4	0,7
Alde zaharra	15	1,9	3	2,1	0,2
Gurutzeta	9	1,2	3	2,1	1,0
Deustua	14	1,8	5	3,6	1,8
Durango	25	3,2	4	2,9	-0,4
Enkartzioak	16	2,1	3	2,1	0,1
Erandio	7	0,9	—	—	-0,9
Ermua	7	0,9	1	0,7	-0,2

	Unibertsoa		Lagina		Ald. %
	Abs.	%	Abs.	%	
Galdakao	9	1,2	2	1,4	0,3
Getxo	19	2,5	3	2,1	-0,3
Igorre	9	1,2	2	1,4	0,3
Lea Artibai	17	2,2	3	2,1	-0,1
Leioa	15	1,9	3	2,1	0,2
Mungia	8	1,0	1	0,7	-0,3
Portugalete	13	1,7	2	1,4	-0,3
Errekalde	13	1,7	2	1,4	-0,3
Santurtzi	14	1,8	2	1,4	-0,4
Sestao	7	0,9	1	0,7	-0,2
Trapagaran	9	1,2	1	0,7	-0,5
Txorierra	16	2,1	2	1,4	-0,6
Txurdinaga	23	3,0	2	1,4	-1,5
Urdaibai	11	1,4	3	2,1	0,7
Uribarri	13	1,7	2	1,4	-0,3
Uribe Kosta	7	0,9	1	0,7	-0,2
Oria Garaia	22	2,8	3	2,1	-0,7
Urola Garaia	8	1,0	0	0,0	-1,0
Andoain	7	0,9	2	1,4	0,5
Arrasate	19	2,5	3	2,1	-0,3
Atip Donostia	1	0,1	0	0,0	-0,1
Bergara	10	1,3	1	0,7	-0,6
Bidasoa	23	3,0	4	2,9	-0,1
Kosta	19	2,5	3	2,1	-0,3
Eibar	14	1,8	2	1,4	-0,4
Elgoibar	11	1,4	2	1,4	—
Hernani	11	1,4	2	1,4	—
Lasarte	8	1,0	1	0,7	-0,3
Errenteria	20	2,6	3	2,1	-0,4
Donostia Ekialdea	14	1,8	2	1,4	-0,4
Donostia Ibaiaren eskuinaldea	15	1,9	3	2,1	0,2
Donostia Ibaiaren ezkerrekoa	35	4,5	4	2,9	-1,7
Tolosa	31	4,0	3	2,1	-1,9
Urola erdia	13	1,7	2	1,4	-0,3
Guztira	773	100	140	100	

(*) Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak erabilitako eremu banaketa
Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

19. taula

Inguru soziokultural eta ekonomiko apaletik etorritako ikasle kopuru handia duten ikastetxeen banaketa

	Unibertsoa		Lagina		Ald. %
	Abs.	%	Abs	%	
Inguru soziokultural eta ekonomiko apaletik etorritako ikasle kopuru handia duten ikastetxeak (*)	40	5,2	9	6,4	1,2
Hondarra	733	94,8	131	93,6	-1,2
Guztira	773	100	140	100	

(*) Ikastetxe horietan, ikasleen %10ek baino gehiagok daukate hezkuntza behar bereziak, gainerako ikasleak baino egoera soziokultural apalagoan daudelako.

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

20. taula

Ikastetxeen banaketa, inguru soziokultural eta ekonomiko aberatsetik etorritako ikasle kopuruaren arabera

	Unibertsoa		Lagina		Ald. %
	Abs.	%	Abs	%	
Inguru soziokultural eta ekonomiko aberatsetik etorritako ikasle kopuru handia duten ikastetxeak (*)	30	3,9	4	2,9	-1
Hondarra	743	96,1	136	97,1	1
Guztira	773	100	140	100	

(*) Hezkuntza Saileko teknikariei egindako kontsultatik ondorioztatutako kalkulua. Eusko Jaurlaritza

21. taula

Ezker Abertzaleak parte hartze handia duen eremuetan dauden ikastetxeen banaketa

	Unibertsoa		Lagina		Ald. %
	Abs.	%	Abs	%	
Ezker Abertzaleak parte hartze handia duen eremuetan dauden ikastetxeak	93	12,0	16	11,4	-0,6
Hondarra	680	88,0	124	88,6	0,6
Guztira	773	100	140	100	

(*) EHk gobernatutako alkatetzak dituzten udalerrietako ikastetxeak

Iturria: 1999ko ekainaren 13ko udal hauteskundearen emaitza. www.euskadi.net orritik ateratako datuak.

9.2.2. Lurraldeka lortutako informazioaren lagin doikuntzak

Ikastetxeek emandako informazioa ez da homogenea; izan ere, aldeak sortu dira aurreikusitako informazioaren eta benetan emandakoaren artean. Hori dela eta, ponderazio faktore zuzentzaile bat ezarri da. Lurralde Historiko bakoitzean etapako (haur hezkuntza-lehen eta bigarren hezkuntza) matrikulatutako ikasle kopuruan oinarritzen da sistema hori, eta ikastetxearen titulartasuna eta hizkuntza eredua hartzen ditu kontuan.

Irakasle taldean ponderazio faktorea ezartzeko, hauek hartu dira kontuan, besteak beste: ikastetxearen titulartasuna, zein etapatan irakasten duten, eta eskolak emateko hizkuntza eredu nagusia.

Gurasoen taldean, hauek izan dira erreferentzia: titulartasuna, etapa eta seme-alaben hezkuntzaren hizkuntza eredu.

Azkenik, ikastetxearen titulartasunaren eta hizkuntza ereduaren arabera Arabako ikasleen banaketa. Bigarren Hezkuntzako ikasleei buruzko informazioa bakarrik bildu da.

9.2.3. Araba

Hauek dira ereduaren eta titulartasunaren arabera Arabako ikasleen banaketa erakusten duten taulak (erreferentzia gisa balio dute hiru taldeentzat):

22. taula

Arabako ikasleen banaketa eredu, titulartasunaren arabera.
Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza (%)

	Publikoa	Pribatua	Guztira
A eredu	17,3	37,4	26,9
B eredu	32,3	48,4	40,0
D eredu	50,4	14,2	33,1
Guztira	52,3	47,7	100,0

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

23. taula

Arabako ikasleen banaketa eredu, titulartasunaren arabera. Bigarren hezkuntza (%).

	Publikoa	Pribatua	Guztira
A eredu	57,2	74,4	66,5
B eredu	11,6	13,-	12,4
D eredu	31,2	12,6	21,1
Guztira	45,4	54,6	100,0

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

Arabako irakasleen banaketa etapaka

Cuadro 24

Araban lortutako irakasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredu	28,1	10,8	0,62	66,7	29,3	0,56
B eredu	43,8	11,5	0,74	20,0	-28,4	2,42
D eredu	28,1	-22,3	1,79	13,3	-0,9	1,07
Guztira	66,7	14,4	0,78	40,3	-7,4	1,18

25. taula

Arabian lortutako irakasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredua	55,9	-1,3	1,02	76,5	2,1	0,97
B eredua	8,8	-2,8	1,32	8,8	-4,2	1,48
D eredua	35,3	4,1	0,88	14,7	2,1	0,86
Guztira	50,0	4,6	0,91	50,0	-4,6	1,09

Arabako gurasoen banaketa etapaka

26. taula

Arabian lortutako guraso laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredua	29,4	12,1	0,59	38,9	1,5	0,96
B eredua	35,3	3,0	0,92	33,3	-15,1	1,45
D eredua	35,3	-15,1	1,43	27,8	13,6	0,51
Guztira	48,6	-3,7	1,08	51,4	3,7	0,93

27. taula

Arabian lortutako guraso laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredua	25,0	-32,2	2,29	61,1	-13,3	1,22
B eredua	25,0	13,4	0,46	27,8	14,8	0,47
D eredua	50,0	18,8	0,62	11,1	-1,5	1,14
Guztira	60,9	15,5	0,75	39,1	-15,5	1,40

Arabako bigarren hezkuntzako ikasleen banaketa

28. taula

Araban lortutako ikasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredia	32,7	-24,5	1,75	76,6	2,2	0,97
B eredia	4,8	-6,8	2,42	2,3	-10,7	5,65
D eredia	62,6	31,4	0,50	21,1	8,5	0,60
Guztira	32,7	-24,5	1,39	67,3	12,7	0,81

9.2.4. Bizkaia

Hauek dira ereduaren eta titulartasunaren arabera Bizkaiko ikasleen banaketa erakusten duten taulak (erreferentzia gisa balio dute hiru taldeentzat):

29. taula

Bizkaiko ikasleen banaketa ereduak, titulartasunaren arabera.
Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza (%)

	Publikoa	Pribatua	Guztira
A eredia	11,1	29,7	21,1
B eredia	18,1	34,9	26,9
D eredia	70,9	32,6	50,6
Guztira	46,9	53,1	100,0

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

30. taula

Bizkaiko ikasleen banaketa ereduak, titulartasunaren arabera. Bigarren hezkuntza (%)

	Publikoa	Pribatua	Guztira
A eredia	50,6	66,2	58,8
B eredia	11,5	12,1	11,8
D eredia	37,9	19,9	28,4
Guztira	47,4	52,6	100,0

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

Bizkaiko irakasleen banaketa etapaka

31. taula

Bizkaian lortutako irakasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredua	17,8	6,7	0,62	41,7	12,-	0,71
B eredua	16,4	-1,7	1,10	25,0	-9,9	1,40
D eredua	65,8	-5,1	1,08	33,3	0,7	0,98
Guztira	54,9	8,0	0,85	45,1	-8,-	1,18

32. taula

Bizkaian lortutako irakasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredua	43,9	-6,7	1,15	72,4	6,2	0,91
B eredua	13,6	2,1	0,85	12,4	0,3	0,98
D eredua	42,4	4,5	0,89	15,2	-4,7	1,31
Guztira	38,4	-9,0	1,23	61,6	9,0	0,85

Bizkaiko gurasoen banaketa etapaka

33. taula

Bizkaian lortutako guraso laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredua	15,2	4,1	0,73	36,7	7,0	0,81
B eredua	18,2	0,1	0,99	36,7	1,8	0,95
D eredua	66,7	-4,2	1,06	26,5	-6,1	1,23
Guztira	40,2	-6,7	1,17	59,8	6,7	0,89

34. taula

Bizkaian lortutako guraso laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredia	37,7	-12,9	1,34	66,0	-0,2	1,00
B eredia	27,9	16,4	0,41	23,4	11,3	0,52
D eredia	34,4	-3,5	1,10	10,6	-9,3	1,88
Guztira	56,5	9,1	0,84	43,5	-9,1	1,21

Bizkaiko ikasleen banaketa

35. taula

Bizkaian lortutako ikasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredia	71,2	20,6	0,71	76,5	10,3	0,87
B eredia	7,3	-4,2	1,58	9,8	-2,3	1,23
D eredia	21,5	-16,4	1,76	13,6	-6,3	1,46
Guztira	40,6	-6,8	1,17	59,4	6,8	0,89

9.2.5 Gipuzkoa

Hauek dira ereduaren eta titulartasunaren arabera Gipuzkoako ikasleen banaketa erakusten duten taulak (erreferentzia gisa balio dute hiru taldeentzat):

36. taula

Gipuzkoako ikasleen banaketa ereduak, titulartasunaren arabera.
Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza (%)

	Publikoa	Pribatua	Guztira
A eredia	0,3	5,9	3,2
B eredia	17,6	37,8	28,0
D eredia	82,1	56,4	68,8
Guztira	48,6	51,4	100,0

37. taula

Gipuzkoako ikasleen banaketa ereduak, titulartasunaren arabera. Bigarren hezkuntza (%)

	Publikoa	Pribatua	Guztira
A ereduak	28,0	28,1	28,1
B ereduak	14,1	25,5	20,2
D ereduak	57,9	46,3	51,7
Guztira	46,6	53,4	100,0

Gipuzkoako irakasleen banaketa etapaka

38. taula

Gipuzkoan lortutako irakasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A ereduak	0,0	-0,3	—	5,3	-0,6	1,11
B ereduak	2,8	-14,8	6,29	36,8	-1,0	1,03
D ereduak	97,2	15,1	0,84	57,9	1,5	0,97
Guztira	65,5	16,9	0,74	34,5	-16,9	1,49

39. taula

Gipuzkoan lortutako irakasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A ereduak	15,0	-13,0	1,87	30,6	2,5	0,92
B ereduak	17,5	3,4	0,81	38,8	13,3	0,66
D ereduak	67,5	9,6	0,86	30,6	-15,7	1,51
Guztira	44,9	-1,7	1,04	55,1	1,7	0,97

Gipuzkoako gurasoen banaketa etapaka

40. taula

Gipuzkoan lortutako guraso laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredia	3,2	2,9	0,09	0,0	-5,9	—
B eredia	19,4	1,8	0,91	45,5	7,7	0,83
D eredia	77,4	-4,7	1,06	54,5	-1,9	1,03
Guztira	58,5	9,9	0,83	41,5	-9,9	1,24

41. taula

Gipuzkoan lortutako guraso laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredia	18,8	-9,2	1,49	29,6	1,5	0,95
B eredia	21,9	7,8	0,64	55,6	30,1	0,46
D eredia	59,4	1,5	0,97	14,8	-31,5	3,13
Guztira	54,2	7,6	0,86	45,8	-7,6	1,17

Gipuzkoako ikasleen banaketa

42. taula

Gipuzkoan lortutako ikasle laginaren, eta unibertsoaren eta ponderazio faktorearen arteko konparazioa. Bigarren hezkuntza

	Lor. L.	Publikoa Ald.	Pond. Fakt.	Lor. L.	Pribatua Ald.	Pond. Fakt.
A eredia	25,5	-2,5	1,10	29,9	1,8	0,94
B eredia	25,5	11,4	0,55	41,1	15,6	0,62
D eredia	49,0	-8,9	1,18	29,0	-17,3	1,60
Guztira	52,9	6,3	0,88	47,1	-6,3	1,13

9.3. Datu estatistikoaren azterketa

Aztertutako datu estatistikoak EAEko ikastetxeetako ikasle, irakasle eta gurasoei egindako galdekizunetatik lortutako erantzunak dituzte oinarrian.

Era berean, bereizketa hau egin da irakasleen eta gurasoen artean: batetik, seme-alabak Lehen Hezkuntza dauzkaten gurasoak eta Lehen Hezkuntzako irakasleak daude; bestetik, berriz, era batera edo bestera, Bigarren Hezkuntzarekin lotuta daudenak.

Gainera, galdekizunetatik lortutako emaitzen ponderazioarekin osatzen da azterketa. Horretarako, Lurraldea, titulartasuna eta hizkuntza eredu hartu dira kontuan.

Modu estandarizatuan egiten da datu horien azterketa, hainbat adierazleren bidez. Jarraian, datu horien berriazko hausnarketa metodologikoa agertzen da.

Lehenik eta behin, proposatutako aldagaiei kontsultatutako taldeek emandako erantzunetatik aterako portzentaje banaketa eta batez besteko kopuruak agertzen dira.

Ondoren, lortutako informazioari emandako tratamendu estatistikotik aterako ondorioak adierazten dira. Student-en *t* kontraste batean datza tratamendu hori: galdekizuneko azterketa aldagai guztiak aldagai nagusi edo independente gisa definitutakoekin gurutzatzean, hain zuzen ere. Aldagai nagusi edo independenteak esku artean daukagun gaiaren azterketan funtsezkotzat jotako aldagaiak dira.

Talde bakoitzaren erantzunen azterketan duten garrantziaren arabera aukeratu dira aldagai horiek. Hauek dira, laburbilduta: *ikastetxearen ezaugarriak* aipatzen dituzten aldagaiak; hau da, ikastetxearen titulartasuna eta Lurraldea. Bestalde, arreta *konsultatutako pertsonen ezaugarrietan* jartzen dutenak; hau da, horien generoan eta zein hezkuntza mailatan eta zein hizkuntza eredutan lan egiten duten/ikasten duten/eskolatzen dituzten (galdera irakasleei, ikasleei edo gurasoei egiten zaien kontuan hartuta, hurrenez hurren); irakasleetan, beste aldagai bat gaineratzen da: zenbat urte daramatzaten irakaskuntzan. Azkenik, *bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren* gaia zehazki aipatzen duten aldagaiak: Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza ikastetxeetan lantzeak duen garrantziaren balorazioa, eta gertakari garrantzitsuei buruz hausnarketa zehatzak egiteari edo ez egiteari buruzko aldagaia.

Aukeratutako aldagai guztiak galdekizunetan bildutako informaziotik ateratu dira. Horiei, ordea, aukeratutako ikastetxeen egoera sozioekonomikoa deskribatzen duen adierazlea gehitu zaie, eta, horretarako, diru laguntzak jasotzen dituzten ikasleen ehunekoa hartu da kontuan. Ikastetxeetako ikasleen gizarte klasea ondorioztatzeke orientagarria izan daiteke datu hori.

Azterketaz arduratutako Hezkuntza Saileko ikerlariek finkatu zituzten aldagai berri hori egituratzen duten irizpideak, eta taula honetan islatzen dira.

43. taula

Aukeratutako ikastetxeen sailkapen sozioekonomikorako irizpideak, diru laguntzak jasotzen dituzten ikasleen ehunekorekin arabera

	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza
Ertain-altua	0tik %15era	0tik %12ra
Ertain-ertaina	%16tik %34ra	%13tik %29ra
Ertain-baxua	%35etik %100era	%30etik %100era

Iturria: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2001/2002 ikasturtea.

Irizpide berri horren arabera, honela gelditzen da laginaren banaketa taldeka:

44. taula

Laginaren banaketa gizarte klaseka, galdetutako talde motaren arabera

	Ikasleak		Irakasleak		Gurasoak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Ertain-altua	606	29,5	142	25,1	77	20,1
Ertain-ertaina	943	46,0	301	53,2	199	52,0
Ertain-baxua	503	24,5	123	21,7	107	27,9
Guztira	2.052	100	566	100	383	100

Azkenik, aldagai anitzeko bi tratamendu teknika erabili dira: Cluster eta Quick Cluster teknikak, hain justu. Lehenak ezaugarri homogeneousodun azpitaldeak hautematea du helburu; bigarrena, berriz, hautemandako azpitalde kopuruaren arabera gizabanakoak sailkatzeko eta deskribatzeko erabiltzen da.

Hezkuntza Sailean kontsulta daiteke lortutako taula estatistiko multzoa; azterketan sakondu nahi duen edonoren eskura daude han. Dokumentu honetan, taula batzuk testuan daude; beste batzuk, berriz, eranskinean. Nolanahi ere, oinarrizko azterketa estatistikotik laburbildutako datuak dira horiek guztiak.

9.4. Eztabaida taldeak

Helburu hau dauka eztabaida taldearen teknikak: parte hartzaileen talde batek gai batzuei buruz duen diskurtsoa ezagutzea –hemen, bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz, hain zuzen–. Era berean, gure azterlanean, hobekuntzarako proposamenak identifikatzea eta lehenestea da gure helburua.

Hurbilketa kualitatibo horren bidez, zundaketa kuantitatiboak sakontasun osoz azaldu ezin dituen alderdiak osatu nahi dira.

Horregatik, beharrezkotzat jo da hiru galdekizun kualitatibo eranstea –Lurralde bakoitzeko bat–, hiru taldeei (irakasle, ikasle eta gurasoei).

Talde horietako bakoitzean gehienez 10 pertsona egotea proposatu zen. Eztabaida sustatzeko, ego-kitzat jo zen taldeak Lurralde Historikoka eta talde motaren arabera banatzea. Horrenbestez, Bizkaiko multzoa ikasleez osatu zen, Arabakoa gurasoez eta Gipuzkoakoa, berriz, irakasleez.

Hauek izan dira aukeraketa irizpideak: ikastetxearen lurralde kokapena, titulartasuna, etapa, hizkuntza erdua eta ikastetxearen gizarte klasea (diru laguntzak jasotzen dituzten ikasleen ehunekoaren arabera).

Gidoi bera erabili da hiru taldeetan; atal hauek dauzka:

- Zer da bizikidetza eta bakerako hezteak?
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruz ikastetxeetan egiten diren ekintzak
- Zuzendaritzak, irakasleak eta familiek bizikidetza eta bakerako hezkuntzan duten konpromisoa
- Bizikidetzarako hezteak
- Ikastetxeko giroa
- Ikastetxeko gatazkak

- Portaera desagokiak: diziiplina eza, indarkeria
- Euskal gatazka

Bizkaiko taldea, ikasleez osatua, ekainaren 18an bildu zen. Ikastetxe hauetako ikasleen parte hartzea eskatu zen:

Udalerrria	Titulartasuna	Gizarte Klasea	Etap	Eredua	Etorri al zen?
Bilbo	Pribatua	Ertain-altua	ELH	A	Ez
Bilbo	Publikoa	Ertain-ertaina	BATX.	A	Bai
Galdakao	Pribatua	Ertain-ertaina	BATX.	A	Ez
Zalla	Pribatua	Ertain-ertaina	ELH	A	Ez
Durango	Pribatua	Ertain-altua	BATX.	A	Ez
Gernika	Pribatua	Ertain-ertaina	DBH	B	Bai
Bilbo	Publikoa	Ertain-baxua	DBH	B	Bai
Elorrio	Pribatua	Ertain-altua	DBH	D	Bai
Bilbo	Publikoa	Ertain-baxua	DBH	D	Bai
Abanto-Zierbena	Publikoa	Ertain-baxua	BATX.	D	Ez

Deitutako hamar ikastetxeetatik, bostetan baino ez zen lortu ikasleek parte hartzea. Batzuek azken orduan huts egin zuten, azterketengatik edo ikasleek parte hartu nahi ez zutelako.

Arabako taldea guraso elkarteetako gurasoek osatu zuten, eta ekainaren 18an bildu zen. Ikastetxe hauetako gurasoen parte hartzea eskatu zen:

Udalerrria	Titulartasuna	Gizarte Klasea	Etap	Eredua	Etorri al zen?
Gasteiz	Pribatua	Ertain-ertaina	ELH	A	Ez
Gasteiz	Publikoa	Ertain-altua	ELH	A	Ez
Kanpezu	Publikoa	Ertain-baxua	DBH	A	Bai
Gasteiz	Pribatua	Ertain-baxua	DBH	A	Bai
Gasteiz	Pribatua	Ertain-altua	BATX.	A	Ez
Gasteiz	Publikoa	Ertain-ertaina	DBH	B	Bai
Iruña Oka	Publikoa	Ertain-baxua	DBH	B	Ez
Gasteiz	Publikoa	Ertain-baxua	DBH	D	Bai
Gasteiz	Pribatua	Ertain-altua	DBH	D	Ez
Gasteiz	Publikoa	Ertain-ertaina	BATX.	D	Ez
Gasteiz	Pribatua	—	—	—	Bai

Deitutako hamar ikastetxeetatik, lauen parte hartzea baino ez zen lortu. Nolanahi ere, Arabako Guraso Elkartearen arduradunak bat egin zuen bilerarekin eta ikastetxe batetik bi pertsona etorri ziren.

Gipuzkoako taldea irakasleek osatu zuten, eta ekainaren 18an bildu zen. Ikastetxe hauen parte hartzea eskatu zen:

Udalerria	Titulartasuna	Gizarte Klasea	Etap	Eredua	Etorri al zen?
Hernani	Publikoa	Ertain-ertaina	DBH	D	Ez
Zumaia	Publikoa	Ertain-altua	ELH	D	Ez
Donostia	Pribatua	Ertain-altua	BATX.	D	Bai
Irun	Publikoa	Ertain-altua	ELH	B	Bai
Donostia	Publikoa	Ertain-ertaina	DBH	D	Bai
Donostia	Pribatua	Ertain-baxua	BATX.	A	Bai
Irun	Publikoa	Ertain-ertaina	BATX.	A	Ez
Errenteria	Publikoa	Ertain-baxua	DBH	A	Ez
Andoain	Publikoa	Ertain-baxua	BATX.	A	Bai
Zarautz	Pribatua	Ertain-ertaina	DBH	D	Ez

Deitutako hamar ikastetxeetatik, bosten parte hartzea baino ez zen lortu azkenean.

9.5. Txostenaren lanketa

Galdekizunetatik lortutako datu estatistikoen azterketa informatiko eta estatistikoa egin ondoren, eta eztabaida taldeen kontaketa kontuan hartuta, txostena egiteari ekin zitzaion. Horretan, agertutako gaiei buruzko informazio eta iritzirik garrantzitsuenak bildu, ordenatu eta baloratu nahi dira.

Hiru ataletan antolatu da txostena:

- Bizikidetza EAEko ikastetxeetan
- Bizikidetza eta bakerako hezkuntza EAEko ikastetxeetan
- Ikastetxeak euskal gatazka dela eta

Atal bakoitzean, gai nagusiarekin lotutako galderei emandako erantzunak aztertu dira. Galdera bakoitzean, berriz, batera aztertu dira galdera zehazten duten item guztien erantzunak. Maiztasun portzentajeak konparatzeari edo horien guztien batez besteko balorazioei esker, agertutako egoera edo gaia ongien definitzen dutenak zein diren ezagutzeko aukera daukagu, baita galdera orokorrari emandako erantzuna zehatzago ezagutzeko aukera ere. Era berean, aldagai nagusien desberdintasun adierazgarriak batera aztertu dira galdera bereko item guztietan. Beraz, aldagai bati garrantzia eman zaio, baldin eta ezaugarri bereko desberdintasun adierazgarriak sortu badira item guztietan edo askotan. Azkenik, talde bakoitzeko emaitzak konparatu dira, batzuen eta besteen erantzunen artean bat etortzea edo desberdintasuna dagoen aztertuz. Horrekin, parte hartzaileen ikuspegiak, iritzia eta helburuak ezagutu nahi izan dira.

Hortik abiatuta eta hausnarketa taldeetan emandako iritzia kontuan hartuz, bildutako erantzunak kokatzen eta horiei zentzua ematen saiatu da lan taldea. Zenbaitetan, hipotesiak egin dituzte, gertakari edo jokatzeko modu batzuk zein arrazoik edo gertaerak bultzatu edo eragotzi ahal izan dituzten azaltzeko.

Azterketa prozesu horren ondoren, azterketaren atal bakoitzeko ondorioak atera dituzte. Ondorio horietan, EAEko ikastetxeetako bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoera mapa labur definitzen sailatu dira.

Lan taldeak badaki hau egoeraren lehen deskribapena dela, eta, beraz, horren balioa erlatiboa dela. Gai honi berari buruz egin beharko diren beste azterketa batzuen abiapuntua baino ez du izan nahi txosten honek: mota berekoak izango dira batzuk, joerak hautemateko aukera emango dute, eta azterketa honetan aurreratutako hipotesiak edo gai honi buruzko hezkuntza prozesuetako aldaketak berretsi edo ukatuko dituzte; beste batzuk, berriz, kualitatiboagoak izango dira, eta ikastetxeetan egiten dena edo egiten ez dena hobeto ulertzen lagunduko dute, baita bizikidetza eta bakerako hezkuntza prozesuen hobekuntza sustatzen ere. Beharbada, ikerketa zehatzagoetan baliatuko dituzte azterketa honetako datu asko, eta gai berberei edo antzekoei buruzko beste azterketa batzuetako datuekin kontrastatuko dituzte.

Salbuespenak albo batera utzita, ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntza sustatzeko proposamen batzuekin bukatzen da azterketa. Proposamen horiek bi erakunderi zuzentzen zaizkie bereziki: alde batetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hori baita EAEko hezkuntza arautuaren arduraduna; bestetik, berriz, ikastetxeei, hezkuntza arautuaren eragile nagusiak baitira. Ikasleen guraso elkar-teei ere egin zaizkie proposamenak, ikastetxeetako bizikidetza eta bakerako hezkuntza proiektuetan parte hartzeko eta familietan ildo bereko lana sustatzeko. Azkenik, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei eta beste erakunde publiko eta gizarte erakunde batzuei ere egin zaie parte hartzeko proposamena, jarduera horretan ezin baitira ikastetxeak eta familiak bakarrik aritu.

Eranskinak

I. Eranskina: Bibliografia eta beste informazio iturri batzuk

A. Testuan aipatutako bibliografia

- COLECTIVOS DEL PAÍS VASCO (1998): *Educación para la paz en Euskalherria. Fundamentos y propuestas para potenciar y desarrollar la Educación para la Paz en el País Vasco*.
- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (1997): *Bakerako Heziketari buruzko Euskal Liburua*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- DADHICH, NARESH (2002): «Peace Education in Action», in *Peacebuilding*, 3. lib., 4. zk, 2002ko uda, USA: Peace Education Commission, International Peace Research Association.
- EURED (2002): *The Eured Teacher Training Programme: «Curriculum of European Peace Education Course»*, Villach, Austria.
- FISAS, VICENC: *Introducción al estudio de la paz y de los conflictos*, Editorial Lerna, Barcelona.
- GALTUNG, JOHAN (1998): *Sobre la paz*, Editorial Fontamara.
- GIRARD, KATRYN; KOSCH, SUSAN J. (1996): *Resolución de Conflictos en las Escuelas. Manual para educadores*, Editorial Gránica, Barcelona.
- JARES, XESUS R. (1991): *Educación para la Paz: Su teoría y su práctica*, Editorial Popular S.A, Madrid.
- JARES, XESUS R. (1999). Estructura didáctica y organizativa, in *Educación y Derechos Humanos*, Editorial Popular, Madrid.
- LEDERACH, JOHN PAUL (1986): *Educación para la Paz*. Editorial Fontamara, Barcelona.
- LÓPEZ EIRENE, M^a CARMEN (1994): Nuevas propuestas, in *Educando para la Paz*, Alfonso Fernández-ek argitaratua.
- SALOMON, GAVRIEL (2002): *Peace Education. The Concept, Principles, and practices around the World*, Lawrence Erlbaum Associates, Londres.
- SEMINARIO DE EDUCACIÓN PARA LA PAZ, ASOCIACIÓN PRO DERECHOS HUMANOS (1994): *Educación para la paz: una propuesta posible*, Editorial Los Libros de la Catarata, Madrid.
- UNESCO (1996): *Hezkuntza: altxor eskutua*. Aditu Batzordearen txostena, Jacques Delors batzordeburu zela egina, UNESCO, Paris; Santillana, Madrid.

B. Interes praktikoa duten beste liburu batzuk.

- ALZATE SÁEZ DE HEREDIA, R. (1990): *Resolución del Conflicto. Programa para Bachillerato y Ed. Secundaria*, Mensajero, Bilbo.
- ARÓN S., A. M.; MILICIC M., NEVA (1996): *Vivir con otros. Programa de desarrollo de habilidades sociales*, CEPE, Madril.
- ARRIBAS, M.; JUDEZ, A.; MIRANDA, I. (1998): *El juego y el juguete*, Instituto aragonés de la Mujer, Zaragoza.
- BANTULÁ JANOT, J. (1998): *Juegos motrices cooperativos*, Paidotribo, Bartzelona.
- BOQUÉ TORREMOLL, M. C. (2002): *Guía de mediación escolar. Programa comprensivo de actividades de 6 a 16 años*, Octaedro - Rosa Sensat, Bilbo.
- BOWLBY, J. (1989): *Una base segura. Aplicaciones clínicas de una teoría del apego*, Paidos, Bartzelona.
- BUXARRAIS, M^a R.; MARTÍNEZ, M.; PUIG ROVIRA, J. M; TRILLA, J. (1995): *La educación moral en primaria y en secundaria*, MEC-Edelvives, Madril.
- CARRASCOSA, M.; MARTINEZ, B. (1998): *Cómo prevenir la indisciplina*, Escuela Española, Madril.
- CARRERAS, Ll. eta beste batzuk (1997): *Cómo educar en valores*, Narcea, Madril.
- CASAMAYOR, G. (1998): *Cómo dar respuesta a los conflictos. La disciplina en la enseñanza secundaria*, Grao, Bartzelona.
- CASCÓN SORIANO, P. eta MARTÍN BERISTAIN, C. (1997): *La alternativa del juego. Juegos y dinámicas de educación para la paz*, Los libros de la Catarata, Madril.
- CATALÁ, A.V. eta GARCÍA (1989): *Una mirada, otra*, Generalitat Valenciana. Consellería de Cultura, Educació y Ciencia, Valentzia.
- CAVA, M. J.; MUSITU, G. (2002): *La convivencia en la escuela*, Paidos, Bartzelona.
- CERESO RAMIREZ, F. (2001): *La violencia en las aulas*, Pirámide, Madril.
- CERESO RAMIREZ, F. eta beste batzuk (1997): *Conductas agresivas en la edad escolar. Aproximación teórica y metodológica. Propuestas de intervención*, Pirámide, Madril.
- CORNELIUS, H. eta FAIRE, S. (1995): *Tú ganas, yo gano*, Gaia ediciones, Madril.
- CRARY, E. (1998): *Crecer sin peleas. Cómo enseñar a los niños a resolver conflictos con inteligencia emocional*, Integral, Bartzelona.
- CRARY, E. (1998): *Crecer sin peleas. Cómo enseñar a los niños a resolver conflictos con inteligencia emocional*, Integral, Bartzelona.
- DÍAZ AGUADO, M.J. eta MEDRANO, C. (1994): *Educación y razonamiento moral. Una aproximación constructiva para trabajar los contenidos transversales*, Mensajero, Bilbo.
- DÍAZ AGUADO, M. (1996): *Escuela y tolerancia*, Pirámide, Madril.
- ECHAURI OZCORDI, M. eta beste batzuk (1995): *Guía de Salud y desarrollo personal en la adolescencia*, Dpto. de Sanidad, Educación y Cultura de Navarra, Nafarroa.

- EISENBERG, N. (1999): *Infancia y conductas de ayuda*, Morata, Madril.
- EL DEFENSOR DEL PUEBLO (2000): *Informe sobre violencia escolar 2000*, Madril.
- ELKARRI (1999): *Hiru txandatan, el método de los tres turnos. Guía didáctica para educadores*, Elkarri.
- ELKARRI eta IKASTOLEN ELKARTEA (1996): *Arian-arian. Bakegintzarako hezkuntza*, Elkarri eta Ikastolen Elkartea, Lizarra.
- FABRA, M. L. (1996): *Ni resignadas ni sumisas. Técnicas de grupo para la socialización asertiva de niñas y chicas*, Institut de Ciències de l'Educació, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ GARCÍA, I. (coord.) (2001): *Guía para la convivencia en el aula*, CISS PRAXIS, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ GARCÍA, I. (1998): *Prevención de la violencia y resolución de conflictos. El clima escolar como factor de calidad*, Narcea, Madril.
- FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, G.; BANCIELLA SUÁREZ, M. J.; RODRÍGUEZ DÍEZ, B. (coord.) (2001): «La Convivencia en los Centros Educativos: Nuevos retos» en *Actas del Congreso Nacional*, UNED, Bartzelona.
- FORWARD, S. (1998): *Chantaje emocional*, Martinez Roca, Bartzelona.
- GARAIGORDOBIL, M. (1992): *Juego cooperativo y socialización en el aula*, SECO-OLEA.
- GARAIGORDOBIL, M. (1992): *Jolas kooperatiboa*.
- GARCIA MORIYÓN, F. (1998): *Crecimiento moral y filosofía para niños*, Desclée de Brouwer, Bilbao.
- GIRARD, K. eta KOCH, S. J. (1997): *Resolución de conflictos en las escuelas. Manual para educadores*, Granica, Bartzelona.
- GÓMEZ MASDEVALL, M^a T., MIR COSTA, V., SERRATS PARETAS, M^a G. (1990): *Propuestas de intervención en el aula. Técnicas para lograr un clima favorable en la clase*, Narcea, Madril.
- GOÑI, A (ed.) (1996): *Psicología de la educación sociopersonal*, Fundamentos, Madril.
- GUTIERREZ, J. (1998): *Tratamiento de conflictos. Caja de Herramientas*, Gernika Gogoratz, Gernika.
- GUTIÉRREZ-MOYANO ZIMMERMAN, K. (1992): *Aprendo a relacionarme*, Promolibro, Valentzia.
- JARES, X. R. (1992): *El placer de jugar juntos*, C.C.S.
- JARES, X. R. (2001): *Educación y conflicto. Guía de educación para la convivencia*, Popular, Madril.
- JUDSON, S., eta beste batzuk (1986): *Aprendiendo a resolver conflictos. Manual de Educación para la Paz y la No violencia*, Lerna, Bartzelona.
- JUDSON, S., eta beste batzuk (1986): *Aprendiendo a resolver conflictos. Manual para la educación para la paz y la no violencia*, Lema, Bartzelona.
- LENIZ, A. (coordina) (1996): *LINGUAPAX bakegintzan*, UNESCO Etxea.
- LÓPEZ, F. eta beste batzuk (1999): *Desarrollo afectivo y social*, Pirámide, Madril.
- MARTÍNEZ MARTÍN, M., eta beste batzuk (2003): *La convivencia en los centros de secundaria: estrategias para abordar el conflicto*, Desclée de Brouwer.

- MARTÍNEZ PAMPLIEGA, A. eta MARROQUÍN PÉREZ, M. (1994): *Programa «Deusto 14-16». I. Desarrollo de Habilidades Sociales*, Mensajero, ICE Deusto, Bilbo.
- MELERO, J. (1993): *Conflictividad y violencia en los centros escolares*, Siglo XXI, Madril.
- MÉNDEZ RAYÓN, J. L. (2002): *Aprender y vivir mejor en la escuela: Orientaciones y dinámicas para la tutoría en secundaria*, CCS, Madril.
- MIR, C. (coordinadora) eta beste batzuk (1998): *Cooperar en la escuela*, Graó, Bartzelona.
- MONJAS CASARES, M. I. (1996): *Programa de Enseñanza de Habilidades de Interacción Social (PE-HIS)*, CEPE, Madril.
- OLWEUS, D. (1998): *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*, Morata, Madril.
- ORTEGA, P.; MINGUEZ, R.; GIL, R. (1996): *La tolerancia en la escuela*, Ariel, Bartzelona.
- PRZESMYCKI, H. (2000): *La pedagogía de contrato. El contrato didáctico en la educación*, Grao, Bartzelona.
- PUIG ROVIRA, J. M. (1995): *La Educación Moral en la Enseñanza Obligatoria*, Horsori, Bartzelona.
- SALAS GARCÍA, B.; SERRANO HERNÁNDEZ, I. (1998): *Aprendemos a ser personas*, EUB, Bartzelona.
- SASTRE, G.; MORENO, M. (2002): *Resolución de conflictos y aprendizaje emocional. Una perspectiva de género*, Gedisa, Bartzelona.
- SEGURA, M.; ARCAS, M.; MESA, J. R. (1997): *Programa de competencia social. Decide tú (1º Ciclo y 2º Ciclo). Habilidades cognitivas (3º Ciclo). Primaria*, Consejería de Educación, Cultura y Deportes del Gobierno de Canarias, Kanariak.
- TORREGO J.C.. (coord) (2000): *Mediación de conflictos en instituciones educativas. Manual para la formación de mediadores*, Narcea, Madril.
- TRIANES, M.V. (1996): *Educación y competencia social en el aula. Un programa en el aula*, Aljibe, Málaga.
- URRUZOLA, M. J. (1992): *Guía para chicas*, Maite Canal, Bilbo.
- VALLÉS ARÁNDIGA, A. (2000): *Me gusta quien soy. Programa para aumentar la autoestima*, Promolibro, Valentzia.
- ZAITEGI, N.; AMIGO M. (1995): *Trabajando en la prevención del maltrato*, Emakunde, Gasteiz.
- ZENBAIT EGILE. (1998): *Educación en relación. Serie cuadernos de educación no sexista*. 6. zk. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Instituto de la Mujer, Madril.
- ZENBAIT EGILE. (2002): *Valores escolares y educación para la ciudadanía*, Grao, Madril.
- ZURBANO DÍAZ DE CERIO, J. L. (2001): *Educación para la convivencia y para la paz. Educación Infantil*, Gobierno de Navarra.
- ZURBANO DÍAZ DE CERIO, J. L. (2001): *Educación para la convivencia y para la paz. Educación Primaria*, Gobierno de Navarra.

Web orriak

Espainiar Estatuan

- Convivencia en los centros (CNICE)
<http://www.cnice.mecd.es/recursos2/convivencia/convivencia.htm>
(en esta página hay enlaces)
- Claves psicológicas de la convivencia escolar (ponentzia)
<http://www.mec.es/cesces/beltran.html>
- Congreso de educación para la convivencia - bizikidetzarako heziketaren 1. Biltzarra
<http://www.congreso-convivencia.com/>
- Consejo Escolar del Estado - Convivencia en centros escolares
<http://www.mec.es/cesces/seminario2000-2001.htm>
- Convivencia en los centros (CNICE)
<http://www.cnice.mecd.es/recursos2/convivencia/convivencia.htm>
- Convivencia Escolar - Junta Andalucía
<http://averroes.cec.junta-andalucia.es/bibliotecas/conviven.pdf>
- Proyecto Valor
<http://personal4.iddeo.es/aaps/valor.htm>
- Pedagogía - Conflicto (artikuluua)
<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/articulos/articulo2.htm>
- Mejora de la convivencia en centros escolares
<http://platea.pntic.mec.es/~jaam/convivir/temas.html>
- Mediación escolar entre pares
<http://www.achnu.cl/proyectos/mediacion.html>
- Desarrollar propuestas de Convivencia Escolar (IAF)
<http://www.iaf-world.org/Ghiso3.html>
- Convivencia y Disciplina Escolar
<http://www.nalejandria.com/00/colab/convivencia.htm>
- Convivencia y conflicto - Concejo Educativo de Castilla y León
http://www.concejoeducativo.org/3con_con.htm
- Seminari Viure la Democràcia a l'Escola
<http://www.fmrppv.org>

Afrikan

- African Centre for the Constructive Resolution of Disputes ACCORD – South Africa
<http://www.accord.org.za>
info@accord.udw.ac.za

— Centre for the Study of Violence and Reconciliation – South Africa
<http://www.wits.ac.za/csvr>
csvr@wn.apc.org

— Truth & Reconciliation Commission – South Africa
<http://www.truth.org.za>
restrc@iaf.com

Asian eta ozeanian

— Conflict Resolution Network (CRN)- Australia
<http://crnhq.org>
crn@crnhq.org

— Hiroshima Peace Institute - Japan
<http://serv.peace.hiroshima-cu.ac.jp>
office-peace@peace.hiroshima-cu.ac.jp

Amerikan

— Resolución de Conflictos (Argentinako ataria)
<http://www.nalejandria.com/utopia/proyectos/C/conflictos.htm>

— Reglamento de Disciplina o de Convivencia Escolar (Blas Pascal School)
<http://www.bpschool.cl/Files/Legal/Disciplina.html>

— Civitas Internacional. Resource for Civic Education
<http://civnet.org>

European

— Amnistia Internacional London - UK
<http://www.amnesty.org>
amnestyis@amnesty.org

— Arbeitsstelle Friedensforschung Bonn – Peace Research Information Unit Bonn - Germany
<http://www.bonn.iz-soz.de/afb/>
afb@bonn.iz-soz.de

— Centre for Conflict Resolution – Department of Peace Studies – University of Bradford, UK
<http://wwwbrad.ac.uk/acad/confres/>
l.k.reynolds@bradford.ac.uk
